

2010eko Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Urtekaria

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen
Behatokiko Taldea

bizkaiko hirugarren
sektorearen behatokia

observatorio del
tercer sector de bizkaia



Egileak: Ainara Canto, Irama Vidorreta, Iskandar Cabezas
Itzultzailea: Koldo Morales
Diseinu grafikoa: ST3 Elkartea
Inprimategia: Berekintza
ISBN: 978-84-936634-6-9
Lege-gordailua: BI- 761-2011

Argitalpen hau, Behatokiaren gainerako argitalpenak bezala, dohainik deskarga daiteke www.3sbizkaia.org webgunetik. Haien bidez, gure ekarpena egin nahi diogu Hirugarren Sektorearen hobekuntzari, eta, hortaz, ahalik eta gehien zabaltzea eskertzen dugu eta baimena ematen dugu haren banaketa, kopia eta berrerabilpenerako, beti ere irabazi-asmorik gabe egiten bada eta beraren egilea nor den aitortzen bada.

AURKIBIDEA

Aurkezpena	5
1. Sarrera	6
2. Aztergaiaren definizioa eta zehaztapena	7
3. Metodologia eta lan-prozesua	10
4. Kopuru orokorrak	17
5. Identitatea eta jarduera	18
Kopurua eta oinarrizko sailkpena	18
Kokapena	20
Kolektibo hartzaileak, jarduerak eta pertsona erabiltzaileak	21
Jarduera-eremu geografikoa	27
Antzinatasuna	28
Erakundearen jarduera gidatzen duten printzipioak	28
6. Erakundearen egitura	30
Gobernu-organoak	30
Demokratizazioa: oinarri soziala eta pertsonen erakundearen duten inplikazioa	32
Tamaina, pertsonalaren bolumenaren eta bolumen ekonomikoaren arabera	36
7. Pertsonak	40
Pertsona boluntarioak	40
Soldatiko pertsonak	46
Generoaren eremuko kontuak	52
8. Baliabide ekonomikoak	55
Diru-sarrerak	55
Gastuak	64
Likidezia- eta zorpetze-arazoak	66
Jabetzako lokalak	67
Aitortza	68
Auditoriak	68
9. Kudeaketarako estrategiak	70
Plangintza estrategikoa	70
Postu esanguratsuak, kudeaketari dagokionez	72
Kalitatea eta beste ziurtagiri batzuk	74
Informazioaren eta komunikazioaren teknologia	75
Komunikazioa	78
10. Erakundearen harremanak	82
Administrazio publikoak bultzatutako parte-hartze ekimenak	82
Harremana edo lankidetzaren ingurunearen eragileekin	82
Zenbait eragileren sostengua	90
Gizartearen konfiantza	91
11. Sektorearen egituraketa	93
Bigarren mailako erakundeak	93
Sektoreko erakundearen arteko elkar-ezagutza	97
Erakundearen hausnarketak	98
12. Sektoreko panoramari buruzko intuizioak	100
Etorkizunerako ikuspegia	100
Erakundearen hausnarketak	101
13. Konklusioak	104
Identitatea eta jarduera	104
Erakundearen egitura	105
Pertsonak	106
Baliabide ekonomikoak	109
Kudeaketarako estrategiak	111
Erakundearen harremanak	113
Sektorearen egituraketa	115
Sektoreko panoramari buruzko intuizioak	115
14. Taula eta grafikoen aurkibidea. Galdetegia	116

Aurkezpena

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia Hirugarren Sektorean espezializatutako informazio- eta dokumentazio-zentro bat da, ikerkuntza aplikatuan eta sustapen-lanetan ere aritzen dena. Ez du irabazi-asmorik eta independentea da, eta beraren xedeak dira Hirugarren Sektorea indartzea, Bizkaiko erakundeen berrikuntza bultzatzea eta haien esku-hartze eta kudeaketa hobetzea.

“3S Ikerketa” bildumaren asmoa hauxe da: Bizkaiko Hirugarren Sektoreko erakundeen errealitateari eta haien ekarpenari buruzko ezagutza hobea eskaintzea Hirugarren Sektoreko erakunde eta sareei eta sektoreagatik interesatzen diren gainerako eragileei.

Halaber, azterketarako gakoak eskaini nahi ditu eta bizkaitar gizarte parte-hartzaile eta solidarioa sustatzeko proposamenak helarazi, konbentzimendu batetik abiatuta, alegia, Hirugarren Sektorea ezinbesteko aktore eta aktiboa dela Bizkaiko gizartearentzat, eta horrela jarraitu behar duela izaten.

Bilduma honetako zero zenbaki bezala argitaratutako **Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zuriak** (2007) bidea eman zuen aztergaia definitzeko eta modu operatiboan mugatzeko, Bizkaiko Hirugarren Sektoreko erakundeen ezaugarrien inguruko ezagutza nabarmenki sakontzeko, eta beraren sustapen eta garapenerako orientabideak ezartzeko epe labur, ertain eta luzera.

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen “Urtekaria” (2010) ikerketa-proiektu bat da, lehen aipatutako lanari jarraipena ematen diona, Hirugarren Sektoreari buruzko datuak eskainiz, batez ere kuantitatiboak eta al-dizka eguneratuak; horri esker, beraren errealitateari buruzko ezagutza dinamikoa izan dezakegu eta alde-raketak egin ditzakegu denboran zehar, eta horrek ahalbidetzen du sektoreari eta beraren sustapenarekin konprometitutako eragileei buruzko hausnarketa informatua egitea.

Beren lankidetzak eskertu nahi diegu beren jardunari buruzko informazioa berriz ere eman diguten 382 erakundeei, txosten hau prestatzea ahalbidetu baitute horrela.

1. Sarrera

Lehenengo diagnositik hiru urte igaro direnean, hemen aurkezten den Urtekaria sektoreko errealitatearen erradiografia bat da, 2010eko datuetan oinarritua (2009, datu ekonomikoen kasuan).

Txostenaren datuen azterketa nagusia modu honetan dago egituratuta:

- a. **Kopuru orokorrak:** Bizkaiko Hirugarren Sektoreko erakundeek osatzen duten unibertsoan bildutako erakundeen bolumena, boluntarioen eta soldatako pertsonen bolumenaren estimazioa, eta Bizkaiko Hirugarren Sektoreko erakundeek guztira kudeatzen duten bolumen ekonomikoa.
- b. **Identitatea eta jardura:** erakundeen jardura deskribatzen duten ezaugarriak, beren lanaren bidez atenditzen dituzten kolektiboak, eskaintzen dizkieten zerbitzu edo jardura motak, antzintasuna, jardura-eremu geografikoa, eta abar.
- c. **Erakundeen egitura:** gobernu-organoei buruzko datuak, gizarte-oinarria, tamaina, giza taldearen osaketa, eskura dituzten baliabideak, barneko parte-hartzea, eta abar.
- d. **Pertsonak:** erakundeetan okupatzen diren edo parte hartzen duten bi kolektibo handiei buruzko informazio zehatza (boluntarioak eta soldatako pertsonala).
- e. **Baliabide ekonomikoak:** erakundeen errealitate ekonomikoari buruzko datuak, finantziazio-iturriak, gastuen egitura, eta abar.
- f. **Kudeaketa-estrategiak:** kudeaketa-plan edo -tresna jakin batzuen ezarpen maila, kalitatea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, eta abar.
- g. **Erakundeen harremanak:** sektoreko erakundeek beste eragile batzuekin dituzten harremanak.
- h. **Sektorearen egituraketa:** sektoreko erakundeek beren artean ezartzen dituzten harremanak, bigarren mailako erakundeekin ezartzen dituztenak, eta abar.
- i. **Panoramari buruzko intuizioak:** erakundeen hausnarketak sektorearen etorkizun hurbilari buruz (erronkak, oztopoak, eta abar).

Erakundeen jardura, egitura, funtzionamendu, baliabide, harreman eta gainerako alderdiei buruzko erradiografia eguneratu horrez gain, proiektu honen bidez haxe ere lortu dugu:

- *Bizkaiko Hirugarren Sektoreko erakundeen Direktorioa* handitzea eta eguneratzea: Liburu Zuriak Hirugarren Sektoreari buruz egiten duen definizio operatiboan oinarritzen da, eta jardunean dauden erakundeen eta jarduerarik gabe dauden arteko bereizkuntza bat eranstean du, Erregistro Ofizialen erabileratik haratago joanez, aztergai dagoen unibertsoaren oinarria zehazteari begira.
- Bizkaiko Hirugarren Sektoreko erakundeen errealitatea behatzea eta haren inguruko ezagutza finkatzea: 2007an bildutako eta Liburu Zurian jasotako datuak (2006 urteko erreferentzia ekonomikoekin) alderatzen ditu Urtekari honetan aurkezten diren 2010eko datuekin (2009ko erreferentzia ekonomikoekin).

2. Aztergaiaren definizioa eta zehaztapenea

Hirugarren Sektorearen definizioari dagokionez, lan honek erreferentziatzen hartzen du *Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zurian* landutako definizioa.¹

Horren arabera, haxe da **Bizkaiko Hirugarren Sektorea: gizarte zibilaren ekimen aktiboak, kudeaketa autonomoa eta independentzia dituztenak, irabazi-asmorik gabekoak eta -oro har- boluntarioak, beren jarduera esku-hartze sozialera bideratzen dutenak zentzu zabalean, hau da, beren asmoa da ingurune soziala hobetzea, hainbat motatako eremuetan, Bizkaiko Lurralde Historikoaren baitan.**

Oro har, definizio kontzeptual edo teorikoaz gain, azterlan orok izaera operatiboko beste definizio bat behar du, bai irizpideak adierazleetan islatzeko eta bai azterlanaren baitan sar daitezkeen edo sartu behar diren erakundeak zein diren zalantzarik gabe identifikatzeko.

Hala, azterlan honi begira, *Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zurian* 2007an egin zen bezala, ezaugarri hauek dituzten erakundeak hartu dira kontuan:

- 1. Ekimen formalizatuak izatea:** legalki eta juridikoki erakunde bezala eratu diren ekimenak bakarrik hartzen dira kontuan; beraz, erregistratuta egon behar dute beren figura juridikoari dagokion erregistro ofizialean.
- 2. Jardunean egotea:** kontsultaren aurreko urtean jarduerarik izan ez dutenak baztertu egin dira, egoera hori egiaztatu ondoren.
- 3. Gizarte zibiletik sortuak izatea eta kudeaketa autonomoa eta independentzia izatea Hirugarren Sektorekotzat hartzen ez diren erakundeetatik:** izaera eta jatorri pribatuko erakundeak dira, herritarren ekimen libretik sortu direnak; gainera, beren gobernu-organoetako ordezkarien artean, administrazio publiko, enpresa, aurrezki-kutxa, alderdi politiko edo sindikatuetao ordezkariak erdiak baino gutxiago dira.
- 4. Irabazi-asmorik ez izatea eta normalean boluntarioak izatea:** beren figura juridikoak bermatzen du jarduera ez dela zuzentzen mozkinak bilatzera, eta mozkinik lortuz gero ezin banatu daitezkeela beren kideen artean.
 - Honako hauek kontuan hartzen dira: fundazioak, elkarteak, gizarte-ekimeneko kooperatibak, erakunde erlijiosoak, laneratzeko enpresa moduan sailkatuta dauden merkataritza-sozietateak edo kooperatibak.²

1 Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiaren Webgunean dokumentu hauek kontsulta daitezke: "mintegiaren oharrrak" eta "gure definizioa" (www.3sbizkaia.org).

2 Laneratzeko enpresek figura juridiko mota desberdinak har ditzakete (merkataritza-sozietateak, gizarte-ekonomiako sozietateak, eta abar), baina sustatzaileak eta partaideak irabazi-asmorik gabeko erakundeak dira (gutxienez, % 33ko partaidetza izan behar dute), beren helburua da gizarte-bazterketako egoeran dauden kolektiboak lan-merkatuan integratzea (aldi baterako laneratzeko-tresna ez-finalizatzen hartzen dira), eta ezin dute mozkinik banatu (305/2000 Dekretua, Abenduaren 26koa, Laneratzeko Enpresen kalifikazioa arautzen duena, 2001eko otsailaren 2ko EHAA, 24. zenbakia, 1900. orrialdea).

- Enplegu Zentro bereziak kanpo geratzen dira.³
- Kanpo geratzen dira Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren arabera arautzen ez diren elkarteak; izan ere, lege horrek irabazi-asmorik gabeko elkarteak soilik hartzen ditu bere aplikazio-eremuaren baitan, eta kanpo uzten ditu beste hauek: sozietate zibilak, merkataritza-, industria- eta lan-sozietateak, kooperatibak eta mutualitateak, enpresen aldi baterako batasunak, interes ekonomikoko taldeak eta ondasunen edo jabeen komunitateak, haien helburuak eta izaera ez baitatoz bat elkarteei aitortzen ohi zaion funtsarekin.
- Kanpo geratzen dira, halaber, beren izaera “bereziagatik” elkarte-erregimen espezifiko baten mende daudenak, hala nola alderdi politikoak, sindikatuak, enpresaburuen elkarteak, elizak, kirol federazioak eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteak.

5. Beren jarduera gizartean esku hartzera zuzentzea, zentzu zabalean: horrek esan nahi du gizarte-ingurunea hobetzea hartzen dutela xedetzat, eta xede hori onura publikokoa dela, hau da, orokorrean, lortu nahi dituzten xedeak ez direla beren kideenak soilik, xede horietatik haratago baitoaz; horrenbestez, izaera irekia dute eta beren jardunaren zati bat –gutxienez- hartzailetzat jotzen dituzten pertsonengana zuzentzen da, bazkideak ote diren alde batera utzita.

- Askotariko jarduera-eremuak jorratzen dira, hala nola, gizarte-ekintza, kultura, garapenerako nazioarteko lankidetzak, giza eskubideak, osasuna, aisialdia, enplegua, ingurumena, eta abar. Kirol elkarteak, aldiz, kanpo geratzen dira, aztergaia zehazteko eta unibertsoa gehiago mugatzeko, nahiz eta gizarte-xede bat lortzera zuzendutako kirol jarduera (osasunerako hezkuntza, gizarteratzea...) esku-hartze sozialeko jardueratzat har daitekeen.
- Kanpo uzten dira ikastetxeak, osasun-arretarako zentroak, borondatezko gizarte aurreikuspenarako fundazioak eta lan-fundazioak, konfesio eta komunitate erlijiosoak, xede erlijioso hutsetarako eratutako elkarteak edo beren arrazoi instituzionalagatik batez ere jarduera erlijiosoetara zuzentzen diren elkarteak.
- Kanpo geratzen dira, oro har, elkarte gastronomikoak, profesionalen elkarteak, ikasleen gurasoen elkarteak, ikasle ohienak, jolas elkarteak, hala nola peñak, konpartsak eta jai-batzordeak, zezenzaleen elkarteak, irati-amateurrenak, elkarte filateliko eta numismatikoak, mikologikoak, zale eta bildumagileenak, kofradiak eta ermandadeak, zientzia, astronomia, meteorologia, ekonomia, enpresa eta horrelakoekin zerikusia dutenak, teknologia eta informatikarekin zerikusia dutenak, astrologiari buruzkoak, txakurrenak eta gisa berekoak (gida-txakurrekin zerikusia dutenak izan ezik).
- Halaber, kanpo geratzen dira kaltetutako pertsonenak eta biktimenak (desgaitasunak edo gaixotasunak jotako pertsonenak izan ezik).

³ Enpresa hauen helburu nagusia da soldatuko lan produktiboa gauzatzeko aukera eskaintzea desgaitasunak dituzten langileei; lan hori langile bakoitzaren ezaugarriei egokituta dago, eta beraren asmoa da lan-merkatuan sartzeko bidea erraztea (izaera finalista). Kudeaketa beste edozein enpresa arautzen dituen arauen mende dago. Beren balizko irabazien aplikaziorik begira, zentroek irabazi-asmoa izan dezakete edo irabazi-asmorik gabekoak izan, kontuan hartuta ea irabazi guztiak erakundearentzat ote diren edo haien zati bat zentroaz arduratzen den erakundeak bilatzen duen beste helburu baterako erabiltzen den. (2273/1985 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, minusbaliatuak gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 42. artikuluan definitutako Enplegu Zentro Berezien araudia onartzen duena).

- 6. Beren jarduera Bizkaian eta Bizkaitik garatzea:** erakunde hauek Bizkaiko Lurralde Historikoan dute beren egoitza nagusia edo ordezkaritza bat, eta beren lanaren zati bat lurralde horren baitan garatzen dute.

Unibertsoa erakunde multzo handi eta heterogeneo batez osatuta dagoenez, **jarduera-eremu**en arabera sailkapen bat egin dugu, azterketa orientatzea ahalbidetuko duten estratuak bereizteko. Estratuak egite-rakoan, saiatu gara estratu bakoitzeko elkarteek ezaugarri komunak izatea, eta, aldi berean, Hirugarren Sektoreko beste estratu batean sailkatutako erakundeetatik bereiztea. Horrenbestez, laginaren diseinu-rako ere erabili den sailkapen horrek exhaustibotasun eta eskusibotasun irizpideak bete nahi ditu; hau da, bermatu nahi du erakunde guztiak kontuan hartzen direla eta kategoria batean soilik sartzen direla, sektoreko erakundeei buruzko informazioa oinarritzko irizpide multzo txiki baten arabera antolatuz.

Nolanahi ere, sektoreko erakunde askoren ezaugarri bat beren jarduera-eremuaren dibertsitatea denez, erakundeak irizpide horren arabera sailkatzeak jarduera nagusia edo esanguratsuena identifikatzera behartzen du, eta hori ez da beti erraza izaten, ezta erakundeentzat berentzat ere, jarduera batean baino gehiagotan aritzen direnean.⁴

Erakundeak jarduera-eremuaren arabera sailkatzeko, ondorengo kontsiderazio edo irizpideak hartu dira kontuan:

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Hegoaldeko herrialdeen garapenaren alde diharduten erakundeak (GGKE).
Zibikoa	Emakumeen elkarteak, adineko pertsonenak, etorkinenak, auzo-elkarteak, ijitoen elkarteak,...
Kultura	Erregioetako etxeak, dantza, pintura, antzerki eta euskara elkarteak...
Enplegua	Eremu honetan lan egiten duten elkarteak, laneratzeko enpresak...
Gizarte Ekintza	Arriskuan dauden kolektiboak sustatzen eta laguntzen aritzen diren erakundeak, desgaitasunak dituzten pertsonen elkarteak...
Ingurumena	Ingurumenaren zaintzan, landa-garapenean eta horrelako ekimenetan lan egiten duten erakundeak ...
Aisialdia	Aisialdi Elkarteak ...
Osasuna	Gaixotasun edo mendetasunek jotako pertsonen erakundeak, gaixotasun edo mendetasunek jotako kolektiboek laguntzen diharduten erakundeak ...
Giza Eskubideak	Giza eskubideen defentsa eta sustapenaren alorrean lan egiten duten erakundeak.
Besteren bat	Aurrekoetako bat ere ez.

4 Erakunde batzuk kolektibo jakin baten bizi-baldintzak hobetzeko xedez eratzen dira, kolektibo horiek ahulezia, diskriminazio, arrisku, mendetasun, bazterketa edo babesgabetasun egoeran daudelako. Kasu horietan, erakunde horien jarduera eremu jakin batean kontzentratzen denean, hala nola enpleguan, osasunean, aisialdian, eta abar, erakunde horiek dagokien eremu espezifikoan sailkatu dira. Dena dela, nolabaiteko maiztasunez, gauzatzen duten esku-hartzearen izaera integralak ez du ahalbidetzen eremu jakin bat identifikatzea erakundearen jarduera-eremu nagusi bezala. Horrelakoetan, erakundeak Gizarte Ekintzaren alorrean sailkatu dira, bestelako gai batzuekin –enplegua, osasuna, eta abar– zerikusia duten jarduerak ere gauzatu arren. Beste alde batetik, zuzeneko esku-hartzerik gauzatzen ez duten erakundeak benetan ezagutzen duten alorrean sailkatu dira, edo beren lanaren bidez sustatu nahi dutuzten erakundeei dagokien alorrean. Sailkapen hori egitea ezinezkoa denean, -erakundeak zeharkako izaera garbia duelako, ezein eremuri bereziki lotuta egon gabe-, “besteren bat” deriztan eremua egotzi zaie, “aurrekoetako batean ere ez egotearen” sinonimo gisa.

3. Metodologia eta lan-prozesua

Ikerketa honen metodologia kuantitatiboa da, zeren beraren helburu nagusia 2007ko egoerarekin aldera daitekeen erradiografia bat lortzea baita.

Lana hiru fasetan garatu da:

1. Fasea	Datuak biltzeko lanaren aurretikoa	Hasierako unibertsoa identifikatzea.
2. Fasea	Datuak biltzeko lana (landa-lana)	Erakunde-lagin bati buruzko informazioa jasotzea eta unibertsoa berraztertzea.
3. Fasea	Analisia	Datuak aztertzea eta txostena prestatzea.

1. Hasierako unibertsoaren identifikazioa

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zuria baliagarria izan zen Bizkaiko Hirugarren Sektorea osatzen duten erakundeen unibertsoaren lehenengo identifikazioa egiteko. Lan horri berriro helduz, eta 2007ko datu-basea abiapuntutzat hartuta -5.325 erregistro-unitate zituen-, unibertsoaren zifra eguneratu ahal izan dugu 2010erako. Horretarako:

- 2007 eta 2010 urteen bitartean gertatutako izen-emate eta bajei buruzko informazioa eskatu zaie aztergai izandako figura juridiko bakoitzari dagokion erregistro ofizialari.
- Izena eman duten erakundeen artean, ezabatu egin dira “azterketa-eremutik kanpo” daudenak.
- Eta, jardunean dauden erakundeak identifikatzeko xedez, berrikusi ditugu erakundeen webguneak, sareen erregistro ez-ofizialak eta Bilboko Udalaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzako zenbait Sailen eta BBKren Gizarte Ekintzaren 2008 eta 2009ko diru-laguntzen deialdiak.⁵

Ondorengo taulan, unibertsoaren datu-basean gertatutako mugimendu esanguratsuenak ikus daitezke, 2. fasearen hasierara arte:

3.1. Taula. *Hasierako unibertsoaren gainerako datuak.*

Kopurua	Oharrak
5.325	2007ko erakunde kopurua. Unibertsoaren ezagutza sakontzeko lanaren hasiera.
1.096	2007tik aurrera erregistro ofizialetan izandako izen-emate berriak.
16	2007tik aurrera erregistro ofizialetan izandako bajak.
6.405	2010eko erregistroak, guztira, garbiketa egin aurretik.
352	Aztergaian SARTZEN EZ DIREN erakundeen berrikuspena
6.053	AZTERGAIAN SARTZEN DEN Unibertsoa (erregistroen kopuru orokorra ken aztergaitik kanpo utzi behar diren erakunde bezala identifikatutako erakundeak), 2. fasea hasteko egunean.

⁵ Ekintza honen garrantzia da erakunde askok Erregistro Ofizialetan erregistratuta jarraitzen dutela, lan egiteari utzi ondoren. Errealitatean, ez dago inolako kontrolik deseginda egon arren beren egoera Erregistroari jakinarazi ez dioten erakundeen gainean.

Kopurua											Oharrak
Koop.	Zib.	Kult.	Empl.	G.E.	Ingur.	Ais.	Osa.	Giz.Esk.	Best.	Ez d.	AZTERGAI dagoen unibertsuaren banaketa, jarduera-eremuaren arabera, 2. fasearen hasieran (erreferentziatzen har daiteke telefonoaren bidezko jarraipen orekatsua egiteko eta lagin egokia lortzeko).
239 3,94	1.128 18,64	2.594 42,85	94 1,55	596 9,85	282 4,65	656 10,85	271 4,47	71 1,17	122 2,03	0 0	
Existitzen da 2.155		Seguru asko existitzen da 829			Seguru asko ez da existitzen 789		Ez dakigu 2.280			Webguneen berrazterketa; diru-laguntzak; sareetako erregistro ez-ofizialak; itzulitako posta; eta e-mailez edo telefonoz erakundeekin izandako kontaktua, 2. fasea hasi aurretik.	

2. Erakundeen lagin bati buruzko informazioaren bilketa eta unibertsuaren berrazterketa

2010erako unibertsua ezarri ondoren, galdetegi bat helarazten saiatu gara unibertsoko ahalik eta erakunde gehienei, hain zuzen ere 2007an erabilitakoarekin antzekotasun handia duen galdetegi bat. Orobat, azterlanen parte hartzeko motibazioa pizten saiatu gara, estatistikoki adierazgarria den lagin baten datuak jasotzekari begira. Beraz:

- Galdetegi unibertsoko erakunde guztiei bidali zaie, hots, jardunean dauden erakunde bezala edo jardunean egoteko probabilitate handia duten erakunde bezala sailkatutako erakunde guztiei. Posta elektronikoa erabili da, ezaguna zenean, Behatokiaren webgunean jarritako on-line galdetegira esteka bat bidaltzeko; gainerako kasuetan, berriz, posta arrunta erabili da galdetegi paperetan bidaltzeko.

Ondorengo taulan, informazioa biltzeko estrategiaren datu esanguratsuenak ageri dira:

3.2. Taula. *Informazioa biltzeko estrategia (2. fasea).*

Kopurua				Oharrak	
2.984				Inkestaren informazioa biltzeko xedez lan egiteko aukeratu den Unibertsua. Frogatuta dago erakunde hauek existitzen direla, edo badaude haien existentziaren adierazleak (erregistro batzuetan agertzen dira, eta bidali zaien posta ez zaie itzuli).	
Antzinako erakundeak		Erakunde berriak		Antzinako erakundeak dira 2007ko galdetegiari erantzun ziotenak. Haien jarraipena espezifiko izan da, jadanik genituen datuak aprobetxatzen saiatzeko (<i>informazioaren aldaketan kontrastea, motibazioa...</i>). Erakunde berriak dira galdetegiari iraganean erantzun ez diotenak. Jarraipen estandarra egin da, 2007 urtean egindakoaren antzekoa (<i>informazioa, motibazioa...</i>)	
551		2.433			
E-maila	Posta arrunta	E-maila	Posta arrunta	Helbide elektroniko ezaguna zuten erakundeen kasuan, e-mailez bidali diegu galdetegira on-line sartzeko esteka. Gainerakoei, berriz, paperetan bidali diegu galdetegi.	
377	174	377	2.056		
 Emaila: 754 Posta arrunta: 2.230				Erakunde guztiek aukera izan dute bi bide horiek erabiltzeko beren erantzuna emateko.	

- b. Telefonoaren bidezko jarraipen bat ezarri da, erantzunak motibatuzko. Erakundeak galdetegiari erantzun bazion 2007an, beraren lana errazten saiatu gara, eskura dagoen informazioaren balizko aldaketak kontrastatuz, eta abar. Gainerako kasuetan, berriz, deien estrategia jarduera-eremuen arabeko kuotetatik abiatu da, eremu bakoitzeko erakundeak ausaz aukeratuz.

Ondorengo taulan, datuak biltzeko lanaren 2. faseko datu esanguratsuak aurkezten dira.

3.3. Taula. *Datuak biltzeko lana (2. fasea).*⁶

Kopurua					Oharra
Antzinako erakundeak			Erakunde berriak		2010eko maiatz eta urria bitartean garatua
2007ko galdetegia	2010ko galdetegia, eguneratuta	Kontaktatuak	2010ko galdetegia	Kontaktatuak	
540 (557)	206 ⁶	385	176	774	
Galdetegiak, guztira: 382 Kontaktatutako erakundeak: 1.159 Egindako deiak: 3.426 2010ean jasotako galdetegiaren ehunekoa (%), kontaktatutako erakunde guztietatik: % 26,0 2010eko galdetegiari erantzun dioten erakunde berrien ehunekoa (%), 2010ean jasotako galdetegi guztietatik: $176/382 \cdot 100 = \% 46$ 2010ean datuak eguneratu dituzten antzinako erakundearen ehunekoa (%), 2007ko antzinako erakunde guztietatik: $206/557 \cdot 100 = \% 37$ <i>Kontaktatutako lau erakundetatik batek erantzun dio galdetegiari, gutxi gorabehera. Galdetegiari erantzun dioten erakundeak ia erdiek ez zuten parte hartu 2007ko kontsultan. 2007ko kontsultan parte hartu zuten erakundearen artean, hirutatik batek baino apur bat gehiagok parte hartu dute 2010eko kontsultan ere.</i>					Erakundearen jardura-eremuaren arabera lortutako laginaren banaketa (<i>datuak biltzeko lana egiten denean, erreferentziazat hartzen da unibertsoaren banaketarekin dagoen antzekotasuna alderatzeko eta jarraipen-estrategia doitzeko edo berrorientatzeko</i>). Galdetegiaren jarraipenean inbertitutako lanaren kuantifikazioa. Jarraipenaren inbertsioaren eta emaitzen arteko erlazioaren kuantifikazioa:

- c. Ikerketaren hasieran kontsideratutako unibertsoa berraztertu da, datuak biltzeko lanaren 2. fasean bildutako informazioaren arabera doitzeko.

Ondorengo taulak unibertsoaren datu eguneratuak erakusten ditu 2010erako.

3.4. Taula *Unibertsoaren datuak, 2010.*

Kopurua	Oharra
6.053	Datuak biltzeko lanaren 2. fasearen hasieran unibertsoaren datu-basean zeuden erregistroak, guztira.
94	AZTERGAIAN SARTZEN EZ DIREN erakundearen berrazterketa eta 2. faseko beste berrazterketa batzuk.
5.959	AZTERGAI dagoen unibertsoa (basean guztira dauden erregistroak ken kanpo utzi beharrekotzat jotako erakundeak). Datuak biltzeko lanaren amaieran.

- 6 Galdetegi hauek beren datuak 2010ean eguneratu dituzten erakundeei dagozkie.

Kopurua										Oharrak	
Koop.	Zib.	Kult.	Empl.	G.E.	Ingur.	Ais.	Osa.	Giz.Esk.	Best.	Ez d.	AZTERGAI dagoen unibertsoaren banaketa, jarduera-eremuaren arabera.
238 3,99	1.124 18,86	2.553 42,84	94 1,58	578 9,70	276 4,63	644 10,81	272 4,56	73 1,23	107 1,80	0 0,00	
Existitzen da		Seguru asko existitzen da		Seguru asko ez da existitzen		Ez dakigu		Webguneen berrazterketa; Diru-laguntzerako deialdien berrazterketa; Sareen erregistro ez-ofizialen berrazterketa; Itzulitako postaren berrazterketa; Erakundeekin e-mailez edo telefonoz izandako kontaktak.			
2.279		644		832		2.204					

3. Datuen analisia eta horri buruzko txostena prestatzeko lana

Azkenean, 382 erakunderi buruzko informazio balioduna bildu da. Erakunde horiek Bizkaiko Hirugarren Sektorea osatzen duten erakundeen lagin adierazgarria osatzen dute, % 95eko konfiantzarekin eta % 4,85eko errore-marjinarekin.

Dena dela, unibertsoa zorroztasun handiz kalkulatu denez –berretsitako informazioa soilik hartu da kontuan-, dimentsioa gehiegizkoa izan daiteke, seguruenik, eta errealtatekoa baino nabarmenki handiagoa.⁷

Halaber, nahiz eta prozesuan zehar ahaleginak egin ditugun laginaren banaketa unibertsoaren banaketara ahalik eta gehien hurbiltzeko, Gizarte Ekintzaren, Osasunaren eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren eremuek gehiegizko presentzia dute laginean; Kulturaren eta Aisialdiaren eremuko erakundeek, aldiz, legokiekeena baino apur bat presentzia txikiagoa dute.

Orobat, pentsatzekoa da tamaina handiko erakundeek edo bolumen ekonomiko handiagoa kudeatzen dutenek gehiegizko presentzia dutela, zeren joera handiagoa izaten baitute galdetegiari erantzuteko (baliabide gehiago izateagatik, eta abar.).

⁷ Gehiegizko dimentsionamendu hori nolabait neurtu nahirik, beste gutxi gorabeherako hurbilpen bat egin da, ez hain zorrotza baina seguruenik erreala goa, datuak biltzeko lanean jasotako informazioa kontuan hartuta: erakundeen jardueraren edo jarduerarik ezaren zantzuak, oraindik ere ezin izan direnak berretsi.

Hala, kalkulatu dugu unibertso errealak gutxienez 2.279 erakunde izan litzakeela eta gehienez 5.127.

Unibertsoaren datu-basea garbitzeko Behatokiak etengabe egiten duen lanari esker -erakundeek jarduerarik ote duten berretsiz-, gero eta datu zehatzagoak eskuratu ahal izango ditugu; beraz, unibertsoak gero eta antzekotasun handiagoa izango du errealtatearekin, eta, hortaz, ezagutza sakonagoa izango dugu laginaren fidagarritasunaz.

3.5. Taula Laginaren datuak.

Azkeneko Unibertsoa, GUZTIRA	5.959
Azkeneko Lagina, GUZTIRA	382
% 5eko errore-marjinarako beharrezkoa den gutxieneko lagina (estatistikoki gehien onar daitekeen errore-marjina da hori)	361
Laginaren errore-marjina, % 95eko konfiantza mailarekin	4,85%
Desbideratze esanguratsuak, jarduera-eremuaren arabera, unibertsoan eta laginean egindako banaketen artean (kointzidentziarik gabeko proportzioak)	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren, Gizarte Ekintzaren eta Osasunaren eremuek gehiegizko proportzioa dute. Kulturaren eta Aisialdiaren eremuek gutxiagizko proportzioa dute azkeneko laginean.

3.6. Taula Laginaren eta unibertsoaren 2010eko banaketa, jarduera-eremuaren arabera.
Kopuru absolutuak eta ehunekoak.

Eremua	2010 Urtea: eskuratutako lagina		Unibertsoa 10	
	K	%	K	%
Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren	26	6,81	238	3,99
Zibikoa	78	20,42	1.124	18,86
Kultura	108	28,27	2.553	42,84
Enplegua	11	2,88	94	1,58
Gizarte Ekintza	75	19,63	578	9,70
Ingurumena	12	3,14	276	4,63
Aisialdia	26	6,81	644	10,81
Osasuna	40	10,47	272	4,56
Giza Eskubideak	6	1,57	73	1,23
Besteren bat	0	0,00	107	1,80
GUZTIRA	382	100,00	5.959	100,00

Informazioaren tratamendua eta analisisa SPSS-WIN programa estatistikoarekin egin dira, beharrezkoak izan diren formula estatistikoaren erabilera bermatzeko xedez. Ohiko deskribatzaileez gain, kontingentzia-taulekin ere lan egin dugu.⁸

Interpretazio egokirako gakoak

Analisiari heldzerakoan, egokitzen jo da datuak bereiztea ahalbidetzen duten gurutzak egitea, sektorearen konfigurazioarentzat funtsezkotzat hartzen diren aldagaiak abiapuntutzat hartuta: figura juridikoa, jarduera-eremua, tamaina... Bestela esanda, aldagai horiek aldagai independente bezala tratatu dira maiz analisisan.

8 Ez da xehetasun gehiagorik eskaintzen, zeren eta, gure ustez, analisiak edozein ikerketaren funtsezko prozeduraren arabera egin baita. Analisiari buruzko atalean, horren inguruko azalpena irakur daiteke.

Nolanahi ere, lagina ez da adierazgarria estratuen arabera, eta haien proportzioak baditu desbideratze txikiak. Horregatik, jarduera-eremu, figura juridiko eta beste aldagai batzuen arabera desagregatutako datuek argibideak eskaini ditzakete, eta aldagai batzuen jokabidea ere esplikatu dezakete, nolabait, baina zuhurtziaz kontsideratu behar dira.

Beste alde batetik, “erantzunik ez” deritzan indizea galdera bakoitzaren arabera aldatzen da, eta, hortaz, aztertutako kasuen kopurua ez da beti izaten lagingaren osoko kopurua (382). Datuak desagregatzean geratzen den kasu kopurua txikiegia denean, ez da konklusio garbirik atera behar horietatik. Taula eta grafikoetan, aztertutako kasuen kopurua adierazten da, parentesi arteko ohar batean, orientabidetzat hartu dadin zentzu horretan.

Kopuru Orokorren Kapitulua

Lan honetan, kapitulu batek sektoreko datu orokorrak azaltzen ditu (“kopuru orokorrak”): erakundeen kopurua, soldatako pertsonen eta boluntarioen kopurua, eta erakundeek kudeatutako bolumen ekonomikoa.

Datu horiek estimazio batetik abiatuta kalkulatzen dira, lagineko datuak unibertso osora estrapolatzearen bitartez. Jarraian, parametro esanguratsuenen balioak inferitzeko erabili diren prozedurak azaltzen dira xehetasun handiagoz, eta prozedura horiek –eta ez beste batzuk– zergatik aukeratu diren esplikatzeko da.

Pertsonal boluntarioa eta soldatako pertsonala estimatzeko, estimazio partzialak erabiltzea aukeratu da, jarduera-eremuaren estratuetan oinarrituta; kasu behagarri nahikoa egon denean, gainera, figura juridikoaren azpiestratuak kontsideratu dira ⁹ (estratu edo azpiestratu bakoitzaren balioak kalkulatu, eta gero agregatu). Erabaki da estimatu beharreko balio estatistikoa batez bestekoa izatea.

Prozedura hau lehenetsi da, batez besteko orokorra estimazio-neurri moduan erabili beharrean, arrazoi hauengatik:

- Lagingaren diseinuari erantzuten diolako, estratu horietan banatuta;
- Estratu bakoitzak pisu desberdina duelako osoko kopuruan;
- Desberdintasun nahiko handia dagoelako estratuen batez bestekoen artean (estratuetako populazioen batez bestekoak zenbat eta desberdinagoak diren, orduan eta zehaztasun handiagoa irabazten dugu estimazioan, populazio osoarentzat estratifikatutako lagina oinarritzat hartuta, ausazko laginketa sinplearen aldean).

Gainera, estratu bakoitzaren laginketa-frakzioak (populazioan dauden erakundeen kopurua / laginketa errealean jasotako erakundeen kopura) asko aldatzen dira behatutako aldagaiaren arabera. Esan dugunez, nahiz eta orokorrean saiatu garen lagingak banaketa proportzionala bermatzea, galdera batzuek erantzunik jaso ez izanak eragotzi du laginketa errealek banaketa proportzional hori beti bermatzea galdera guztietan.

⁹ Kasu gutxi egotearen eraginez, “figura juridikoa” aldagaia bi taldetan soilik birkodetzea erabaki dugu, estimazio partzialak kalkulatzeari begira.

Edonola ere, balioen sakabanaketaz informatzen duen bariantzak (zenbat eta sakabanaketa txikiagoa, orduan eta bariantza txikiagoa) hobera egiten du estratuak estimazioan kontuan hartzen badira, eta horrek kalitate edo zehaztasun handiagoa ematen dio estimazio-neurri horri. Bariantza orokorra nahiko handia da; estratu gehienena, aldiz, askoz ere neurritsuagoa.

Beste alde batetik, batez bestekoa kontsultatutako erakunde guztientzat erabiltzeko beharra planteatu da¹⁰, pertsonal boluntarioa edo soldatako pertsonala benetan¹¹ duten erakundeentzat erabili beharrean, zeren ezinezkoa baita frogatzea ea unibertsoko erakunde guztiek mota horretako pertsonala –boluntarioa edo soldatakoa- ote duten.

Bolumen ekonomikoaren kalkulurako ere, estimatu beharreko estatistikoa batez bestekoa izatea erabaki da, baina horretarako metodo batzuk konbinatzea erabaki da, estimazioaren alborapena saihesteko, zeren susmatzekoa baitzen tamaina handiko erakundeek gehiegizko presentzia zutela laginean; gainera, gai honetan, estratuen araberrako bariantzek handiegiak izaten jarraitzen zuten.

Estimazio partzialak erabiltzea erabaki da –jarduera-eremuaren estratuak oinarritzat hartuta, eta, zenbait kasutan, figura juridikoaren azpiestratuak ere kontsideratuz (estratu edo azpiestratu bakoitzaren batez bestekoak kalkulatu eta gero agregatu)-, tamaina handiagoko erakundeen kasuan izan ezik¹², hau da, azken urtean milioi bat euroko edo gehiagoko diru-sarrerak izan dituzten erakundeen kasuan izan ezik.

Erakunde horiek laginetik kanpo utzi dira batez bestekoa kalkulatzeko; orobat, unibertsotik kanpo utzi dira estrapolazioak egiterakoan, zeren “outlier” edo distortsio-elementutzat jo baititugu -beren multzoaren batez bestekotik nabarmenki urruntzen diren emaitzak dituzten kasuak; muturreko puntuazioak aldagaiaren barnean-. Horren asmoa zen beren emaitza propioa ez handitzea eta estimazioa ez distorsionatzea.

Tamaina handikotzat jo diren unibertsoko erakundeen kasuan (erantzun duten eta laginaren barnean dauden erakunde handiak izan ezik), estimazio partzialak egin dira, jarduera-eremuen arabera, lagineko erakunde handien batez besteko espezifikoak oinarritzat hartuta.

Azkenik, estimazio orokorreko erakunde handientzat egindako estimazioak gehitu zaizkie; gainera, erantzun duten eta laginaren barnean dauden erakunde handi guztien zenbatekoak gehitu dira zuzenean.

Eranskina

Txosten honetan, Hirugarren Sektorearen gaur egungo egoera deskribatzeko esanguratsuentzat hartu ditugun taulak eta grafikoak sartu ditugu. Horiez gain, beste taula eta grafiko osagarri batzuk bildu dira eranskin batean, eta ikusgai jarri dira Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiaren webgunean.

¹⁰ Horrek esan nahi du zeroak konputatzen direla.

¹¹ Pertsonal boluntarioa edo soldatako pertsonala benetan duten erakunde batez bestekoa balio zehatzago bati dagokio; hortaz, estimaziorako erabili ez bada ere, azterketa orokorrean bai erabili da, komentarioak egiteko.

¹² Unibertsoko erakundeen erreferentzia “tamaina” aldagaitik abiatuta hartu da espresuki, estimazio hori egin ahal izateko. Erakunde *handitzat* hartu dira gutxienez 1.000.000 ko aurrekontua dutenak; informazio horren oinarriak hauek izan dira: bigarren mailako iturriak, eremu bakoitzeko adituei egindako kontsultak, eta abar.

4. Kopuru orokorrak

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zuriaren testuinguruan egindako lanari esker, muga garrantzitsu bat identifikatu zen Hirugarren Sektorea gaur egun osatzen duten erakunde bolumena zehazteari dagokionez, hau da, konturatu ginen ez dagoela beren jardueraren mantendu ez arren Erregistro Ofizialetan erregistratuta jarraitzen duten erakundeak diskriminatzen dituen zentsu-baserik.

Beste azterlan batzuetan ez bezala, ikerketa horrek ekintza espezifiko hartu zuen erregistroen garbiketa, jardunean dauden erakundeak eta jarduerarik ez dutenak bereiziz. Azkenean, sektoreak Bizkaian dituen erakunde unibertsoa 5.325 erakundekoa zela kalkulatu zen, 2007 urtean.

Metodologia beretik abiatuta, 2010eko Urtekarian egindako lanak bidea eman du datu hori eguneratzeko eta, horri esker **kalkulatu dugu Bizkaiko Hirugarren Sektorearen oraingo unibertsoa 5.959 erakundez osatuta dagoela**. Unibertso hori askoz ere zehatzagoa da erregistroen elkartzeko hutsak emango lukeena baino, beraren kalkulurako erabilitako zorrotasunaren eraginez; izan ere, berretsitako informazioa soilik hartu dugu kontuan.¹³

Kopuru horretatik abiatuta, eta kontsultatutako erakunde laginarentzat bildu diren datuen estrapolazioa oinarritzat hartuta, sektorearen jardueraren garrantzia erakusten duten beste zifra batzuk estimatu dira¹⁴.

Hala, parte-hartzeari dagokionez, kalkulatu da Bizkaiko Hirugarren Sektorearen erakundeei 193.624 pertsona egon litezkeela modu aktiboan parte hartzen. Hain zuzen ere, bertan 30.043 pertsona inguru daude enplegatuta eta 63.581 pertsona inguru boluntario gisa aritzen bide dira. Orokorrean, beraren jarduerak 658 milioi euro mugitu zituen 2009an, hau da, Bizkaia urte horretan izandako BPGaren % 2,0¹⁵.

4.1. Taula. *Hirugarren Sektorearen kopurua handiak. Erakunde kopurua eta pertsona boluntarioen, soldatako pertsonalaren eta diru-sarreraren estimazioa, 2010ean. Kopuru absolutuak.*

Erakunde kopurua	5.995	Erakunde
Pertsona boluntarioen kopurua	163.581	Pertsona
Soldatako pertsonen kopurua	30.043	Pertsona
Bolumen ekonomikoa	658.379.845	Euro urtean

2007an egindako estimazioari dagokionez, esan daiteke erakunde bolumena % 10,6 igo dela (2007=5325), pertsona boluntarioen bolumena % 9,5 igo dela (2007=147977), eta soldatako pertsonen kopurua are gehiago handitu dela: % 33,6 (2007=19940); diru-sarreraren bolumenari dagokionez, igoera % 25,6 izan da (2006=490000140, BPGaren % 1,58).

13 Informazio gehiago nahi izanez gero, metodologiaren atala eta eranskina kontsulta daitezke.

14 Kopuru orokorren estimazioari buruzko informazioa sakontzeko, metodologiaren atala kontsulta daiteke.

15 2009an, Bizkaiko BPGa 32.924.998.000 euro izan ziren. Iturria: http://www.eustat.es/elementos/ele0003200/ti_PIB_por_año_y_territorio_historico_Precios_corrientes_base_2005_miles__1980-2009a/tblo003214_c.html

5. Identitatea eta jarduera

KOPURUA ETA OINARRIZKO SAILKAPENA

Hirugarren Sektoreko erakundeek mota desberdineko figura juridikoak har ditzakete, baina gehien erabiltzen dena "elkartea" da. 2010ean, elkartek Bizkaiko erakunde guztien % 96 dira -2007ko proportzioaren antzekoa-; fundazioak % 3 dira, gutxi gorabehera, eta gainerako figurak ez dira % 1era iristen.

5.1. Taula. Unibertsoaren banaketa figura juridikoaren arabera. Ehunekoak eta kopuru absolutuak.

FIGURA JURIDIKOA		Azkeneko unibertsoa	Azkeneko unibertsoa %
	Elkartea	5.699	96,06
	Fundazioa	170	2,86
	Merkataritza-sozietatea, kooperatiba edo laneratzeko enpresa	22	0,37
	Gizarte-ekimeneko kooperatiba	15	0,25
	Kongregazio erlijiosoa	26	0,44
	Besteren bat	1	0,02
	Ezaguna, guztira	5.933	100,00
	Zalantza, ez daki / ez du erantzuten	26	-
	GUZTIRA	5.959	-

Sektoreko erakundeen jarduera askotarikoa da eta esku-hartze sozialaren hainbat eremutan gauzatzen da, hala nola, Garapenerako Nazioarteko Lankidetz, Zibikoa, Kultura, Enplegua, Gizarte Ekintza, Ingurumena, Aisialdia, Osasuna, Giza Eskubideak eta beste batzuk.


Kulturaren eremua da erakunde gehien biltzen dituen (%42,8), eta beraren ostean eremu Zibikoa (% 18,9), Aisialdia (% 10,8) eta Gizarte Ekintza (% 9,7). Dirudienez, eremu bakoitzaren pisu erlatiboa ez da asko aldatu 2007az geroztik.

5.2. Taula. Unibertsoaren banaketa jarduera-eremuaren arabera. Ehunekoak eta kopuru absolutuak.

JARDUERA-EREMUA		Azkeneko unibertsoa	Azkeneko unibertsoa %
	Garapenerako Nazioarteko Lankidetz	238	3,99
	Zibikoa	1124	18,86
	Kultura	2553	42,84
	Enplegua	94	1,58
	Gizarte Ekintza	578	9,7
	Ingurumena	276	4,63
	Aisialdia	644	10,81
	Osasuna	272	4,56
	Giza Eskubideak	73	1,23
	Besteren bat	107	1,8
	GUZTIRA	5.959	100


Figura juridikoa jardura-eremuarekin lotzen bada, ikus daiteke Gizarte Ekintzan diharduten erakundeen artean handiagoa dela fundazioen proportzioa. Halaber, laneratzeko enpresak nabarmentzen dira Enpleguaren alorrean aritzen diren erakundeen artean.

5.1.Grafikoa. Unibertsoaren banaketa figura juridikoaren eta jardura-eremuaren arabera. Ehunekoak.



Inkestaren datuek erakusten dutenez, milioi bat eta erdi euro mugitzen duten erakundeen artean, fundazioen proportzioa handiagoa da elkarteen baina; elkarteen kasuan, berriz, erakundeen proportzio handia duen batek 12.000€ baino gutxiagoko baliabide ekonomikoak ditu.

5.2.Grafikoa. Laginaren banaketa figura juridikoaren eta bolumen ekonomikoaren arabera.



KOKAPENA

Erakundeek Bizkaiko ia udalerri guztietan dute presentzia¹⁶, baina lautatik hiru Bilbo Handian daude kokatuta, eta % 42 Bilbon. Eskualde batzuetako biztanleria-dentsitate txikiaren eraginez, erakundeek biztanleko dituzten ratioak zuhurtziaz hartu behar dira; nolanahi ere, Arratia-Nerbioi da ratioirik handiena duen eskualdea.

5.3. Taula. *Unibertsoaren banaketa kokapen geografikoaren arabera, Eustat eskualdeak irizpidetzat hartuta. Kopuru absolutuak, ehunekoak eta biztanleriaren araberrako ratioa.*

	Erakundeak	%	Biztanleak	Erak./1.000 bizt.	
EUSTAT ESKUALDEAK	Arratia-Nerbioi	178	2,99	22.658	7,9
	Durangaldea	485	8,14	92.455	5,2
	Enkarterri	185	3,10	27.381	6,8
	Busturialdea	283	4,75	128.763	2,2
	Bilbo Haundia	4.480	75,18	795.064	5,6
	Lea-Artibai	135	2,27	31.246	4,3
	Uribe-Butroe	213	3,57	53.654	4,0
	GUZTIRA	5.959	100	1.151.221	5,2

Erakundeak Bilbo Handian kontzentratzeko joera jarduera-eremu guztietan gertatzen da, baina ingurumenaren alorreko erakundeek, alor zibikokoek eta aisialdikoek presentzia handiagoa dute beste eskualde batzuetan; batez ere egitura txikiagoa dutenek eta 12.000etik beherako diru-sarrerak dituztenek.

5.4. Taula. *Laginaren banaketa irizpide hauen arabera: Eustat eskualdeak, jarduera-eremua eta bolumen ekonomikoa.*

		Arratia- Nerbioi	Duran- galdea	Enkarterri	Bustu- rialdea	Bilbo Haundia	Lea- Artibai	Uribe- buroe
OROKORRAK [K=382]		1,6	2,9	1,6	2,6	88,7	0,0	2,6
JARDUERA-EREMUA [K=382]	Garapenerako Naz.Lank.	0,0	0,0	0,0	0,0	96,2	0,0	3,8
	Zibikoa	2,6	7,7	3,8	1,3	82,1	0,0	2,6
	Kultura	2,8	3,7	0,0	2,8	88,0	0,0	2,8
	Enplegua	0,0	0,0	0,0	0,0	100	0,0	0,0
	Gizarte Ekintza	0,0	1,3	1,3	1,3	93,3	0,0	2,7
	Ingurumena	0,0	0,0	0,0	16,7	66,7	0,0	16,7
	Aisialdia	3,8	0,0	3,8	7,7	84,6	0,0	0,0
	Osasuna	0,0	0,0	2,5	2,5	95	0,0	0,0
	Giza Eskubideak	0,0	0,0	0,0	0,0	100	0,0	0,0
BOLUMEN EKONOMIKOA [K=341]	12.000€ baino gutxiago	3,2	3,8	1,9	5,1	81,5	0,0	4,5
	12.001€ - 60.000€	0,0	2,4	2,4	0,0	94,0	0,0	1,2
	60.001€ - 300.000€	0,0	4,1	0,0	2,0	91,8	0,0	2,0
	300.001€ - 1.500.000€	0,0	0,0	0,0	0,0	100	0,0	0,0
	1.500.000€ baino gehiago	0,0	0,0	0,0	0,0	100	0,0	0,0


16 Eranskinean, udalez udal desagregatutako datuak kontsulta daitezke, eta baita multzotan bildutako datuak ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren eskualdekako sailkapena abiapuntutzat hartuta.

KOLEKTIBO HARTZAILEAK, JARDUERAK ETA PERTSONA ERABILTZAILEAK

Atenditutako kolektiboak askotarikoak dira; dena dela, 2007an bezala, erakundeen % 25ek baino gehiagok atenditzen dituenak gazteak, emakumeak, familiak, haurrak eta adineko pertsonak dira. Beste alde batetik, hiru erakundetatik bik biztanleria orokorrarengana zuzentzen dute beren jardueraren zati bat, gutxienez.

la kolektibo hartzaile guztiek 2007an baino erakunde gehiagoren atentzioa eskuratu dute.

5.3. Grafikoa. Kolektibo bakoitzarengana zuzentzen diren erakundeen proportzioa. Ehunekoak.



[K=379]

Jardueri dagokienez, inkesta bete duten erakundeen % 60,1k dio aisialdiaren eremuko jarduerak gauzatu dituela, eta % 55,1ek informazio- eta orientazio-jarduerak gauzatu ditu. Orobat, azpimarratzekoa da eremu hauetan aritzen diren erakundeen proportzioa: prestakuntza (% 45,7), iritzi publikoaren sentsibilizazioa (% 44,4) eta hedapen kulturala (% 38,6).

Erakundeen % 54,3k “eragin politikokotzat” jo daitekeen (zentzu zabalean) jardueraren bat gauzatzen du: iritzi publikoaren sentsibilizazioa, ikerketa, interesen defentsa, salaketa, eskubideen sustapena eta mintzakidetzak eta ordezkapena.

Alde horretatik, ikus daiteke Hirugarren Sektorea historikoki karakterizatu duten eginkizunak betetzen dituzten erakundeen proportzioak igoera txiki bat izan duela 2007 urtearen aldean; eginkizun horien artean, besteak beste, ikerketa, iritzi publikoaren sentsibilizazioa eta salaketa aipa daitezke.

Beste alde batetik, erakundeen % 11,3 zerbitzuak ematen dizkie beste batzuei, beren lana errazteko xedez.

Jarduera-eremuari dagokionez, jarduera ohikoenak aztertzen badira, zenbait desberdintasun antzematen dira rankingean:

- Garapenerako Nazioarteko Lankidetzan, erakunde gehien garatzen dituzten jarduerak sentsibilizazioa eta hezkuntza dira;
- Alor Zibikoan, aisialdia, informazioa eta orientazioa nabarmentzen dira;
- Kulturaren, hedapen kulturala eta aisialdia;
- Enpleguan, laneratzea eta prestakuntza;
- Gizarte Ekintzan, informazioa eta orientazioa, eta aisialdia;
- Ingurumenaren, ingurumenaren kontserbazioa eta sentsibilizazioa;
- Aisialdian, aisiari lotutako jarduerak, prestakuntza eta hezkuntza;
- Osasunaren eremuan, informazioa eta orientazioa; eta elkarrenganako laguntza;
- Giza Eskubideetan, sentsibilizazioa, informazioa eta orientazioa, eta salaketa.

Halaber, desberdintasunak antzematen dira zerbitzuen prestazioarekin zerikusia ez duten jardueretan. Hala, Ingurumenaren, Giza Eskubideen, Osasunaren eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren eremuetan, hamar erakundetarik zazpi baino gehiagok iritzi publikoaren sentsibilizaziora zuzentzen dute beren lanaren zati bat. Kulturaren, Enpleguaren eta Aisialdiaren eremuetan, berriz, horrelako jarduerak gauzatu dituzten erakundeak % 20 dira, gutxi gorabehera.

Beste alde batetik, salaketa-jarduerak maiz gauzatu dira Giza Eskubideen, Ingurumenaren eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren eremuan, eta baita Eremu Zibikoan eta Gizarte Ekintzen eremuan ere.

Dirudienek, erakunde bolumen ekonomikoak badu lotura gauzatu edo eskaintzen diren jardura edo zerbitzuen tipologiarekin. Hala, jarraian adierazten diren jarduerak bereziki lotzen dira diru-sarrerak handiagoak dituzten erakundeekin: aholkularitza juridikoa, laguntza psikosoziala, etxeko laguntza, elikadura, laneratzea, egoitza-arreta, eguneko zentroetako arreta, prestazio ekonomikoak, beste erakunde batzuei zerbitzuak ematea –haien lana errazteko-, jardunbide egokiak trukitzea eta erreferentziazko materialak lantzea.

5.5. Taula. *Jarduera mota bakoitza gauzatzen duten erakundeen proportzioa, jarduera-eremuaren arabera.*
Ehunekoa.

JARDUERAK [K=381]	OROKORRAK	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	Zibikoa	Kultura	Enplegua	Gizarte Ekintza	Ingurumena	Aisialdia	Osasuna	Giza Eskubideak
Aisialdia	60,1	26,9	67,9	62,0	20,0	66,7	50,0	100,0	45,0	0,0
Informazioa eta orientazioa	55,1	50,0	57,7	24,1	70,0	77,3	66,7	42,3	95,0	66,7
Prestakuntza	45,7	46,2	38,5	36,1	80,0	62,7	41,7	46,2	50,0	16,7
Iritzi publikoaren sentsibilizazioa	44,4	73,1	41,0	19,4	20,0	57,3	91,7	26,9	72,5	83,3
Hedapen kulturala	38,6	23,1	28,2	83,3	0,0	20,0	33,3	19,2	7,5	33,3
Ekitaldien antolaketa	32,0	19,2	38,5	48,1	0,0	20,0	16,7	26,9	22,5	33,3
Hezkuntza	30,4	53,8	16,7	25,0	10,0	44,0	58,3	46,2	22,5	0,0
Elkarrenganako laguntza	29,4	15,4	38,5	7,4	10,0	34,7	16,7	30,8	75,0	50,0
Sorkuntza kulturala	25,2	7,7	24,4	59,3	0,0	5,3	8,3	15,4	2,5	16,7
Laguntza psikosoziala	23,1	15,4	11,5	0,9	20,0	53,3	0,0	11,5	67,5	33,3
Folklore eta identitatea	18,6	7,7	16,7	42,6	0,0	4,0	8,3	23,1	0,0	0,0
Ekoizpen kulturala	17,8	0,0	5,1	49,1	0,0	5,3	8,3	11,5	5,0	16,7
Aholkularitza juridiko eta legala	17,3	7,7	17,9	1,9	0,0	40,0	8,3	3,8	35,0	33,3
Salaketa	16,0	23,1	21,8	4,6	10,0	22,7	25,0	7,7	15,0	66,7
Laneratzea	15,5	11,5	7,7	3,7	100,0	44,0	0,0	3,8	5,0	0,0
Ikerketa	15,2	11,5	11,5	12,0	10,0	20,0	33,3	3,8	25,0	33,3
Informazioaren transferentzia	15,2	23,1	10,3	9,3	0,0	24,0	8,3	19,2	22,5	16,7
Jardunbide egokiak trukatzea eta erreferen- tziatzeko materialak lantzea	13,9	26,9	6,4	5,6	10,0	22,7	8,3	19,2	25,0	16,7
Eskubideen sustapena	12,9	26,9	14,1	0,0	10,0	24,0	8,3	11,5	15,0	33,3
Zerbitzuak beste erakunde batzuei ematea, haien lana errazteko	11,3	11,5	9,0	6,5	20,0	22,7	8,3	11,5	5,0	16,7
Interesen defentsa	10,8	19,2	17,9	3,7	10,0	12,0	0,0	11,5	12,5	0,0
Ingurumenaren kontserbazioa	10,5	23,1	14,1	1,9	10,0	2,7	100,0	19,2	2,5	0,0
Mintzakidetzak eta ordezkapena	10,2	11,5	6,4	5,6	0,0	20,0	8,3	19,2	7,5	16,7
Baliabideak eskuratzea eta/edo transferitzea	8,4	11,5	1,3	7,4	0,0	13,3	8,3	26,9	5,0	0,0
Elikadura	8,1	19,2	7,7	1,9	20,0	14,7	8,3	3,8	7,5	0,0
Egoitza-arreta	7,9	3,8	1,3	0,9	10,0	30,7	0,0	0,0	7,5	0,0
Osasun-laguntza	6,6	15,4	3,8	2,8	10,0	6,7	0,0	0,0	22,5	0,0
Prestazio ekonomikoak	6,6	19,2	2,6	3,7	0,0	13,3	0,0	3,8	5,0	16,7
Laguntza edo diru-laguntza irabazi-asmorik gabeko erakundeei	6,0	26,9	1,3	5,6	0,0	2,7	0,0	11,5	7,5	16,7
Azpiegituren proiektuak	6,0	50,0	3,8	1,9	10,0	2,7	8,3	3,8	0,0	0,0
Larrialdiak	5,8	38,5	3,8	1,9	0,0	4,0	16,7	0,0	5,0	0,0
Ondarearen kontserbazioa	5,8	0,0	5,1	11,1	0,0	0,0	33,3	7,7	0,0	0,0
Besteren bat	5,0	11,5	3,9	1,9	10,0	8,0	8,3	0,0	5,0	16,7
Eguneko arreta eta eguneko zentroak	3,9	0,0	0,0	0,0	0,0	16,0	0,0	0,0	7,5	0,0
Bidezko merkataritza	3,1	7,7	2,6	0,0	10,0	4,0	0,0	11,5	2,5	0,0
Babesletza	3,1	15,4	2,6	1,9	0,0	4,0	0,0	3,8	0,0	0,0
Harrera, adopzioak	2,6	7,7	0,0	2,8	0,0	6,7	0,0	0,0	0,0	0,0
Etxeo laguntza	2,1	3,8	1,3	0,0	0,0	6,7	0,0	0,0	2,5	0,0

5.6. Taula. *Jarduera mota bakoitza gauzatzen duten erakundeen proportzioa, erakundearen bolumen ekonomikoaren arabera. Ehunekoak.*

	BOLUMEN EKONOMIKOA [K=340]					
	OROKORRA [K=381]	12.000 € baino gutxiago	12.001€ - 60.000 €	60.001€ - 300.000€	300.001€ - 1.500.000€	1.500.000€ baino gehiago
Informazioa eta orientazioa	55,1	40,8	57,8	61,2	86,2	81,8
Aholkularitza juridiko eta legala	17,3	9,6	19,3	22,4	48,3	27,3
Osasun-laguntza	6,6	3,2	3,6	10,2	17,2	22,7
Laguntza psikosoziala	23,1	10,2	24,1	28,6	65,5	54,5
Elkarrenganako laguntza	29,4	27,4	31,3	26,5	31,0	31,8
Etxeko laguntza	2,1	1,3	0,0	2,0	0,0	18,2
Elikadura	8,1	4,5	6,0	10,2	24,1	22,7
Hezkuntza	30,4	21,0	26,5	44,9	48,3	36,4
Prestakuntza	45,7	34,4	45,8	49,0	65,5	63,6
Laneratzea	15,5	5,7	8,4	22,4	55,2	59,1
Aisialdia	60,1	59,9	62,7	51,0	69,0	45,5
Egoitza-arreta	7,9	1,9	0,0	10,2	41,4	31,8
Eguneko arreta eta eguneko zentroak	3,9	0,0	0,0	0,0	24,1	31,8
Laguntza edo diru-laguntzak irabazi-asmorik gabeko erakundeei	6,0	3,8	9,6	6,1	6,9	9,1
Iritzi publikoaren sentsibilizazioa	44,4	36,3	48,2	55,1	55,2	59,1
Prestazio ekonomikoak	6,6	0,6	8,4	12,2	24,1	9,1
Ikerketa	15,2	12,1	10,8	22,4	17,2	27,3
Bidezko merkataritza	3,1	1,9	6,0	0,0	6,9	4,5
Babesletzak	3,1	1,9	3,6	0,0	6,9	9,1
Harrera, adopzioak	2,6	2,5	2,4	4,1	3,4	4,5
Larrialdiak	5,8	1,3	9,6	4,1	10,3	18,2
Azpiegituren proiektuak	6,0	3,2	7,2	4,1	10,3	22,7
Ingurumenaren kontserbazioa	10,5	10,8	8,4	6,1	13,8	9,1
Interesen defentsa	10,8	11,5	9,6	14,3	6,9	18,2
Salaketa	16,0	12,7	18,1	20,4	17,2	27,3
Ondarearen kontserbazioa	5,8	7,6	6,0	2,0	0,0	0,0
Folklore eta identitatea	18,6	25,5	20,5	6,1	6,9	9,1
Ekitaldien antolaketa	32,0	33,8	39,8	28,6	17,2	9,1
Sorkuntza kulturala	25,2	28,7	25,3	14,3	3,4	13,6
Hedapen kulturala	38,6	47,1	43,4	22,4	20,7	9,1
EkoiZipen kulturala	17,8	21,0	18,1	8,2	3,4	4,5
Beste erakunde batzuei zerbitzuak ematea, haien lana errazteko	11,3	7,0	9,6	20,4	13,8	36,4
Eskubideen sustapena	12,9	7,6	13,3	20,4	13,8	40,9
Baliabideak eskuratzea eta/edo transferitzea	8,4	5,1	10,8	8,2	6,9	22,7
Mintzakidetzak eta ordezkapena	10,2	5,7	10,8	18,4	17,2	22,7
Jardunbide egokiak trukatzeko eta erreferentziazko materialak lantzea	13,9	8,3	10,8	20,4	24,1	45,5
Informazioaren transferentzia	15,2	13,4	12,0	18,4	20,7	36,4

Gizarte-zerbitzuen berezko xedeak atenditzeari dagokionez:

- Erakundeen ia erdiek (% 47,2) diote beren jarduera bazterketa-egoerak atenditzera eta gizarte-integrazioa sustatzera bideratzen dutela. Gizarte Ekintzaren eta Enpleguaren alorreko erakundeak dira horrelako egoerak gehien atenditzen dituztenak.
- % 31,5ek dio mendetasun-egoerak atenditzen dituela eta autonomia sustatzen aritzen dela; ehuneko hori handiagoa da Gizarte Ekintzaren eta Osasunaren eremuko erakundeen kasuan.
- Hamar erakundetatik hiruk –gutxi gorabehera (% 31,2)- diote babesgabetasun-egoerak atenditzen dituztela; erakunde horiek, gehienbat, Gizarte Ekintzaren, Osasunaren eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren alorrekoak dira.

5.7. Taula. *Beren jarduera mendetasun-, bazterketa- edo babesgabetasun- egoerak atenditzera zuzentzen duten erakundeen proportzioa, jarduera-eremuaren arabera. Ehunekoak.*

		Mendetasun-egoerak atenditzea eta autonomiaren sustapena	Bazterketa-egoerak atenditzea eta gizarte- integrazioa sustatzea	Babesgabetasun-egoerak atenditzea
OROKORRAK		31,5	47,2	31,2
JARDUERA-EREMUA	Garapenerako Naz. Lankidetzatza	23,1	64,3	64,3
	Zibikoa	21,3	34,0	27,7
	Kultura	7,6	11,4	6,5
	Enplegua	28,6	85,7	14,3
	Gizarte Ekintza	69,5	88,9	56,4
	Ingurumena	0,0	0,0	14,3
	Aisialdia	15,4	46,2	0,0
	Osasuna	54,8	67,7	57,1
	Giza Eskubideak	25,0	50,0	33,3
		[K=260]	[K=265]	[K=247]

Datuek erakusten dutenez, erakundeek 2.979 erabiltzaile izan zituzten 2009an, batez beste –beraz, 2007an baino gehiago-; dena dela, datu hori zuhurtiaz hartu behar da, beraren kalkulurako kontuan hartzen diren errealitateen heterogeneotasunagatik eta kontzeptua bera definitzeko zailtasunagatik.

Batez bestekoa apalagoa da 12.000 €tik beherako aurrekontua duten erakundeen kasuan, baina ez dirudi diru-sarreraren bolumenak zuzeneko eragina duenik pertsona erabiltzaileen bolumenean. Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak eta Kulturak dituzte batez besteko handienak.


5.8. Taula. *Erakundeen pertsona erabiltzaileen kopurua, jarduera-eremuaren eta bolumen ekonomikoaren arabera. Oinarrizko deskribatzaileak.*

	Batez bestekoa	Desbiderapen estandarra	Moda	Mediana	Gutxienekoa	Gehienekoa
OROKORRA [K=294]	2.979,60	27.263,00	300	147,5	3	448.517
JARDUERA-EREMUA [K=294]						
Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	29.192,4	130	80	111.838,2	8	448.517
Zibikoa	984,9	155	150	5.717,6	5	47.000
Kultura	3.176,1	64,5	50	14.661,9	3	96.000
Enplegua	1.177,6	290	3	2.197,1	3	6.000
Gizarte Ekintza	915,4	300	100	1.586,4	8	7.136
Ingurumena	254,5	46,5	7	336,0	7	800
Aisialdia	633,8	122	50	1.966,6	10	9.520
Osasuna	760,3	170	100	1.881,8	8	10.000
Giza Eskubideak	377,5	195	20	498,4	20	1.100
BOLUMEN EKONOMIKOA [K=267]						
12.000€ baino gutxiago	209,5	60	20	439,7	3	3.645
12.001€ - 60.000€	3.305,8	225	30	14.499,7	5	96.000
60.001€ - 300.000€	2.331,9	340,5	700	9.781,1	3,0	60.000,0
300.001€ a 1.500.000€	1.544,8	490	29	1.992,5	29	7.136
1.500.000€ baino gehiago	31.977,7	1.571	100	115.253,9	100	448.517

JARDUERA-EREMU GEOGRAFIKOA

Gutxi gorabehera erakundeen erdiek (% 49,3) Bizkaitik haratago doan jarduera-eremua dute. Erakundeen % 29,3ren jarduera-eremua EAE da, % 9,9 estatuaren eremuan aritzen da eta % 10,1 nazioarteko eremuan. Beste alde batetik, toki izaerako erakundeak, eskualde, udalerri edo udalerritik azpiko mailan dihardute-nak, erakunde guztien % 24,3 dira, hots, nahiko proportzio esanguratsua.

5.4. Grafikoa. Erakundeen banaketa jarduera-eremu geografikoaren arabera. Ehunekoak.



Eremuen arabera azterketak erakusten duenez, Eremu Zibikoaren eta Aisialdiaren erakundeen lana udal mailarekin identifikatzen da. Beste alde batetik, Gizarte Ekintzaren alorreko erakunde gehienak Bizkaian aritzen dira, eta ingurumenaren, kulturaren eta osasunaren alorreko erakundeen eremu geografiko nagusia EAE da.

5.9. Taula. Erakundeen banaketa jarduera-eremu geografikoaren arabera, jarduera-eremua eta pertsonalaren bolumena irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.


		Nazioartekoa	Estatua	EAE	Bizkaia	Eskualdea	Udalerria	Udalerritaren azpiko maila
OROKORRAK [K=375]		10,1	9,9	29,3	26,4	3,2	13,6	7,5
JARDUERA-EREMUA [K=375]	Garapenerako Naz. Lankidetzak	57,7	11,5	15,4	15,4	0,0	0,0	0,0
	Zibikoa	4,0	2,7	20,0	20,0	2,7	28,0	22,7
	Kultura	15,2	15,2	34,3	19,0	1,9	11,4	2,9
	Enplegua	9,1	27,3	18,2	27,3	9,1	9,1	0,0
	Gizarte Ekintza	2,7	4,1	29,7	44,6	4,1	10,8	4,1
	Ingurumena	8,3	16,7	33,3	25,0	16,7	0,0	0,0
	Aisialdia	0,0	11,5	15,4	15,4	7,7	30,8	19,2
	Osasuna	0,0	5,0	52,5	40,0	0,0	2,5	0,0
PERTSONALAREN BOLUMENA [K=355]	Giza Eskubidea	0,0	50,0	33,3	16,7	0,0	0,0	0,0
	10 pertsona baino gutxiago	9,0	10,7	34,4	20,5	3,3	13,9	8,2
	10 eta 50 pertsona bitartean	12,2	7,6	25,0	26,2	3,5	15,1	10,5
	51 eta 100 pertsona bitartean	3,1	3,1	37,5	46,9	3,1	6,3	0,0
	101 eta 500 pertsona bitartean	11,1	22,2	29,6	25,9	3,7	7,4	0,0
	500 pertsona baino gehiago	0,0	0,0	0,0	100	0,0	0,0	0,0

ANTZINATASUNA

Kontsultatutako erakundeen batez besteko adina 14 urte dira, eta medianak adierazten du ia % 50ek 12 urte baino gutxiago dituela.

10 eta 20 urte bitarteko antzinatasuna duten erakundeak dira ugariak (% 27,6); multzo horren ostean, 20 urte baino gehiago dituzten erakundeak datoz (% 26,6). Dena dela, garrantzitsua da aipatzea sektoreak badituela berriki sortu diren erakundeak ere: orain dela 5 urte edo gutxiago eratu zirenak % 30,2 dira, hau da, kopuru nahiko esanguratsua.

5.5. Grafikoa. Erakundeen banaketa antzinatasunaren arabera. Ehunekoak.




[K=377]

Aisialdiaren eta Gizarte Ekintzaren eremuko erakundeak dira ibilbide luzeagoa erakusten dutenak; gazteenak, berriz, Ingurumenaren eremukoak dira. Halaber, ikus daiteke pertsonal gehiago eta bolumen ekonomiko handiagoa duten erakundeen bizitza luzeagoa dela, batez beste, erakunde txikiagoen aldean.

ERAKUNDEAREN JARDUERA GIDATZEN DUTEN PRINTZPIOAK

Kontsultatutako erakundeen artean, hamarretatik ia seik (% 58,5) printzipio etiko edo filantropikoetan oinarritzen dute beren jarduera. % 16,3k dio printzipio ideologikoetan inspiratzen dela, eta % 15,7 printzipio erlijioso kristauetan. Azken talde horren pisuak behera egin du 2007ko datuen aldean, garai hartan % 21 baitzen beraren ehunekoa.

5.6. Grafikoa. Erakundeen banaketa beren jarduera gidatzen duten printzipioen arabera. Ehunekoak.



[K=313]

Kode etikoa garrantzi handiko tresna da erakundeentzat, zeren beren ekintza ulertzeko eta garatzeko forma gidatzen baitu, printzipio etiko jakin batzuen arabera. Konsultatutako erakundeen % 17,1ek dio badiela barne-kode etiko bat, idatziz formalizatua; ehuneko hori ia bikoitza da Enpleguaren, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren eta Gizarte Ekintzaren eremuetan.

Beste alde batetik, erakundeen % 31,2k dio kode etikoarekin zerikusia duten ekintzak gauzatzen dituela, baina formalizatu gabeko moduan; esan daiteke, beraz, alderdi hori zaintzen ez duten erakundeen proportioa % 51,7era jaisten dela (% 57 2007an).

5.10. Taula. Erakundeetan kode etikoa egotea, jarduera eremuaren arabera.

		Bai, idatziz	Idatziz ez, baina ekintzak gauzatzen ditugu	Ez
OROKORRAK [K=321]		17,1	31,2	51,7
JARDUERA-EREMUA [K=321]	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren	40,0	30,0	30,0
	Zibikoa	10,0	26,7	63,3
	Kultura	4,7	25,9	69,4
	Enplegua	54,5	27,3	18,2
	Gizarte Ekintza	32,8	25,4	41,8
	Ingurumena	8,3	25,0	66,7
	Aisialdia	8,0	52,0	40,0
	Osasuna	14,0	45,7	40,0
	Giza Eskubideak	16,7	66,7	16,7

6. Erakundeen egitura

GOBERNU-ORGANOAK


Gobernu-organismoak erakundeak zuzentzeaz arduratzen dira; beraz, gutxienez, beren misioa eta helburua betetzen ote diren begiratu behar dute, baliabideen asignazioa kontrolatzeaz batera.

Erakunde askoren gobernu-organismoen partaideak (elkarteen % 47,7 eta fundazioen % 38,9) 6 eta 10 pertsona bitarte dira; pertsona horiek beren borondatez betetzen dute kargu hori, indarrean dagoen legediarekin bat etorriz.¹⁷

Patronatu-batzordeak 7,7 kidez osatuta daude, batez beste; gainerako figura juridikoek, berriz, batez beste 6,6 kidez osatutako zuzendaritza-batzordeak dituzte. Nolanahi ere, % 42,3k 6 kide baino gutxiago ditu bere batzordean.

Beren gobernu-organismoetan lege ezarritako gutxienezko kide kopurua -hiru pertsona- soilik duten fundazioak % 11,1 dira; eta elkarteak % 15,3k hiru pertsonaz edo gutxiagoz osatutako gobernu-organismoak ditu.

6.1. Grafikoa. *Erakundeen banaketa, zuzendaritza-batzordearen eta patronatu-batzordearen kide kopuruaren arabera. Ehunekoak.*



¹⁷ Euskadiko Fundazioei buruzko abenduaren 26ko 50/200 Legearen 14. eta 15. artikuluen arabera, fundazio orotan gobernu- eta ordezkaritza-organo bat egon beharko da, Patronatu izenekoa; Patronatu horrek gehiengoz hartuko ditu bere erabakiak, Estatutuaren ezarritakoaren arabera.

Euskadiko Fundazioei buruzko abenduaren 26ko 50/200 Legearen 15. artikuluen arabera, patronatuko kideek dohainik jardungo dute, beren eginkizuna betetzeagatik sortzen zaizkien gastu justifikatuak berreskuratzeko eskubidea baztertu gabe. Dena dela, fundatzaileak kontrakoa ezarri ez badu, Patronatuak ordainsari egokia ezarri ahal izango du Patronatuko kide batzuentzat, hots, Patronatuko kide gisa dagozkien eginkizunaz gain fundazioarentzat beste zerbitzu batzuk betetzen dituzten kideentzat. Horretarako, beharrezkoa da Babesleztaren baimena aurretik lortzea.


Euskadiko Elkartei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen arabera, elkarteak gobernu-organo bat izan behar du beti; gobernu-organo hori elkartearen presidentea izan daiteke, edo talde-organo bat, Zuzendaritza Batzorde deritzana edo beste izen bat duena; beste aukera bat da elkartearen Batzar Nagusiak gobernu-organo bezala funtzionatzea.

Legearen 19. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, presidentek edo -hala dagokionean- gobernu talde-organoko gainerako kideek ordainsariak jaso ahal izan ditzaten beren karguagatik, hori estatutuaren aurreikusi behar da beren-beregi. Batzar Nagusiak adostuko du zein diren ordainsariaren zenbatekoa, iraupena eta gainerako alderdiak, eta hori urteko kontuetan islatu beharko da.

Gobernu-organoetan erreleburik ez egoteak nolabaiteko egonkortasuna ematen dio erakundeari, baina arriskuak ere ekartzen ditu berekin.

Kontsultatutako erakundeen proportzio handi batek ez zion kide berririk gehitu bere gobernu-taldeari bere azken berriztapenean: % 52,9 fundazioen kasuan (% 46 2007an) eta % 40,3 gainerakoetan (% 54 2007an). Kontrako muturrean, zuzendaritza-batzordeen % 7,7ko kideak erabat aldatu ziren azken berriztapenean (2007an, zirkunstantzia hori kasuen % 4,9an soilik gertatu zen).

6.2. Grafikoa. Erakundeen banaketa kide berriek zuzendaritza-batzordean eta patronatu-batzordean duten pisuaren arabera. Ehunekoak.




Gobernu-organoaren eta talde teknikoaren eginkizunak desberdinak badira ere, gobernu-organo batzuek badute erakundearen pertsonal teknikoaren partaidetza. Rol bikoitz horrek zenbait arazo sor ditzake eginkizunak bereizterakoan; aldi berean, haatik, formula ona izan daiteke erakundearen funtzionamenduari buruzko informazioa gobernu-organoari hurbiltzeko.

Erakunde gehien-gehienetan, gobernu-organoetan diharduten pertsonak erakundea gobernatzeko eginkizunetan soilik aritzen dira; dena dela, zuzendaritza-batzordeen % 15,4k eta patronatu-batzordeen % 16,7k badute erakundearen barnean soldatako lan bat garatzen duen pertsonaren bat, batzordekidea izateaz gain. Patronatu-batzordeen kasuan, ez da aldaketarik antzematen 2007 urtearen aldean; zuzendaritza-batzordeen kasuan, berriz, 2007an soldatako pertsonarik ez zutenak % 5 gehiago ziren.

Erakundeek oso kasu gutxitan ematen diete ordainsari ekonomiko bat beren gobernu-organoetako kideen erdiei baino gehiagori beren borondatezko karguari dagozkion eginkizunetaz gain erakundearen barnean soldatako eginkizunen bat egiteagatik.

6.3. Grafikoa. Erakundeen banaketa, zuzendaritza-batzordean eta patronatu-batzordean rol bikoitza duten kideen pisuaren arabera. Ehunekoak.



Patronatu-batzorde gehienak (% 55,6) sei hiletik behin biltzen dira; zuzendaritza-batzordeen kasuan, berriaz, ohikoagoa da hilean behin biltzea (% 44,8). Bileraren maiztasuna handiagoa izaten da erakundeak soldatako pertsonalik ez duenean. Adibidez, boluntarioz osatutako erakundeen zuzendaritza-batzordeen % 23,1 astean behin biltzen da (2007an bezala, gutxi gorabehera).


6.1. Taula. Erakundeen banaketa zuzendaritza-batzordearen eta patronatu-batzordearen bileren maiztasunaren arabera. Ehunekoak.

	PATRONATU-BATZORDEA			ZUZENDARITZA-BATZORDEA				
	Hilean behin	Hiru hiletik behin	Sei hiletik behin	Astean behin edo gehiagotan	Hilean behin	Hiru hiletik behin	Sei hiletik behin	Urtean behin
OROKORRAK								
[Patronatu Batzordeen Kopurua =18]								
[Zuzendaritza Batzordeen Kopurua=346]	11,1	33,3	55,6	18,2	44,8	24,3	5,2	1,7

DEMOKRATIZAZIOA: OINARRI SOZIALA ETA PERTSONEK ERAKUNDEAN DUTEN INPLIKAZIOA

Batez beste, kalkulatzen da elkarte bakoitzeko 271 bazkide egon daitezkeela, baina kontuan hartu behar da desbiderapen estandarra handi samarra dela. Elkarteen % 42,1k 11 eta 100 pertsona bitarteko oinarri soziala du, eta % 40,7k 100 bazkide baino gehiago ditu.

6.4. Grafikoa. *Elkarteen banaketa, bazkideen bolumenaren arabera. Ehunekoak.*



[K=280]


Jarduera-eremuaren arabera, ikus daiteke bazkideen batez bestekoa handiagoa dela Enpleguaren, Gizarte Ekintzaren, Osasunaren eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren eremuetan.

Detektatu da elkarteen % 7,4ren bazkide kopurua beren gobernu-organoko kideen kopuru berdina dela. Horrek figura juridikoaren instrumentalizazioa adieraz lezake.

2007 urtearekin alderatuta, 100 bazkide baino gehiago dituzten elkarteen kopurua jaitsi egin da (kalkulatutakoaren arabera, 2007an % 45,9 ziren eta 2010ean % 40,7).

Dena dela, erakunde bakoitzaren bazkide diren pertsonen bilakaerari buruzko datuak ez dira asko aldatu 2007ko datuen aldean. Azken hiru urteotan, bazkideen bolumenak gora egin du elkarteen % 47,3an, bere horretan jarraitu du % 39,1an, eta elkarteen % 13,5ek soilik aitortzen du bere oinarri sozialak behera egin duela sasoi horretan.


6.5. Grafikoa. *Elkarteen banaketa, bazkideen bolumenak azken hiru urteotan izandako bilakaeraren arabera. Ehunekoak.*



[K=281]

Bazkideen kopuruaren igoerarik handienak Osasunaren eta Ingurumenaren eremuko erakundeetan gertatu dira, eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren erakunde batzuetan ere bai. Jaitsierak, berriz, Kulturaren eta Aisialdiaren eremuko elkarteetan gertatu dira, eta baita Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren eremuko elkarte batzuetan ere.

6.6. Grafikoa. *Elkarteen banaketa, bazkideen bolumenak azken 3 urteotan izandako bilakaeraren arabera, jarduera-eremua irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.*




Dirudienez, badago nolabaiteko lotura bazkide diren pertsonen bolumenaren eta erakundearen antzinatearen artean. Datuek adierazten dutenez, erakunde gazteenak dira -10 urte baino gutxiago dituztenak- beren bazkideen kopurua gehien igo dutenak azken hiru urteotan, zaharrenak ez bezala; izan ere, azken horiek dira igoera hori gutxien nabaritu dutenak, eta, gainera, kasu batzuetan ikusi dute beren bazkideen kopuruak behera egin duela sasoi horretan.

Beste alde batetik, batzar orokorra urtean behin biltzen da kasuen % 68,2an. Biler hori maiztasun handiagoz, sei hiletik behin edo sarriagotan egiten duten elkarteak pertsona gutxiz osatutako elkarteak izaten dira gehienbat.

Boluntarioek presentzia eztabaidea ez dute Hirugarren Sektorean. Hamar erakundetatik ia sei pertsonal boluntarioz soilik daude osatuta. Eta erakundeen % 89,8ren kasuan -10etatik 9 ia-, boluntarioak soldatiko pertsonak baino gehiago dira (datu horiek eta 2007koak ia berdinak dira).

6.7. Grafikoa. Erakundeen banaketa, boluntarioek pertsonal osoan duten pisuaren arabera. Ehunekoak.



Boluntarioek erakundearen pertsonalaren artean duten pisua nabarmenki handiagoa da elkarteetan gainerako figura juridikoetan baino. Eremu Zibikoa, Kulturala, Aisialdiarena eta Ingurumenarena dira boluntarioz soilik osatutako erakundeak proportzio handiengan biltzen dituztenak.

Hiru erakundetatik bik –gutxi gorabehera- adierazten dute beren gobernu-organoak parte hartzen duela erakundearen jardueraren plangintzan, eta % 60 inguruk dio horren ebaluazioan ere parte hartzen duela. Ehunekoak % 70,5eraino igotzen da erakundearen orientabide orokorrean parte hartzerakoan. Horri dago-kionez, ez da desberdintasun adierazgarririk aurkitu pertsonalaren bolumenaren, jarduera-eremuaren edo bolumen ekonomikoaren arabera.

6.2. Taula. Erakundeen banaketa, gobernu-organoetako kideek erakundearen alderdi batzuetan duten parte-hartzearen arabera. Baiezko erantzunen ehunekoak.

	Erakundearen jardueraren plangintzan	Erakundearen jardueraren ebaluazioan	Jarduera konkretuen plangintzan, antolaketan eta ebaluazioan	Erakundearen orientabide orokorrean
OROKORRA [K=237]	67,5	59,9	59,9	70,5

Oro har, badirudi boluntario egonkorrek gai hauetan duten parte-hartzea gobernu-organoetako kideena baino txikiagoa dela. Boluntario egonkorrek erakundearen plangintzan eta ebaluazioan eta jarduera konkretuen antolaketan inplikatzan dituzten erakundeak % 50 dira, gutxi gorabehera.

6.3. Taula. Erakundeen banaketa, boluntario egonkorrek erakundearen alderdi batzuetan duten parte-hartzearen arabera. Baiezko erantzunen ehunekoak.

	Erakundearen jardueraren plangintzan	Erakundearen jardueraren ebaluazioan	Jarduera konkretuen plangintzan, antolaketan eta ebaluazioan	Erakundearen orientabide orokorrean
OROKORRA [K=237]	50,2	47,7	52,3	47,7

Soldatako pertsonalak plangintzan eta ebaluazioan duen parte-hartzea lehengo kolektiboena baino nabarmenki handiagoa da; erakundearen orientabide orokorrari dagokionez, berriz, ez da hainbeste inplikatzen.

6.4. Taula. Soldatako pertsonala duten erakundeen banaketa, soldatako pertsonalak erakundearen alderdi batzuetan duen parte-hartzearen arabera. Baiezko erantzunen ehunekoa.

	Erakundearen jardueraren plangintzan	Erakundearen jardueraren ebaluazioan	Jarduera konkretuen plangintzan, antolaketan eta ebaluazioan	Erakundearen orientabide orokorrean
OROKORRA [K=107]	75,7	69,2	78,5	65,4

Pertsona erabiltzaileak dira parte-hartze txikiena duen kolektiboa, erakundeen baitan. Kasurik onenetan, erakundeen % 34,5ek dio badituela mekanismoak erakundearen jardueraren ebaluazioan parte hartu dezaten.

6.5. Taula. Erakundeen banaketa, pertsona erabiltzaileek erakundearen alderdi batzuetan duten parte-hartzearen arabera. Baiezko erantzunen ehunekoa.

	Erakundearen jardueraren plangintzan	Erakundearen jardueraren ebaluazioan	Jarduera konkretuen plangintzan, antolaketan eta ebaluazioan	Erakundearen orientabide orokorrean
OROKORRA [K=237]	12,2	24,5	21,5	15,6

TAMAINA, PERTSONALAREN BOLUMENAREN ETA BOLUMEN EKONOMIKOAREN ARABERA

Gaur egun, sektorea honela dago osatuta: tamaina handiko erakunde multzo txiki bat du, alde batetik, eta bestetik pertsonal eta ekonomia aldetik bolumen txiki samarra duten erakunde ugari.

Batez bestekoak erakusten duenez, erakundeak 40 pertsonaz osatuta daude, soldatakoak zein boluntarioak; nolanahi ere, batez besteko hori askoz ere txikiagoa da elkarteen kasuan.


Medianaren balioak adierazten duenez, 14 kide baino gehiago dituzten erakundeak eta zifra horretara iristen ez direnak berdintsuak dira kopuru aldetik. Gehien errepikatzen den kasua hau da: 6 pertsona soldataz edo soldata barik lanean dituen erakundeak.

2007 urteari dagokionez, datu horiek adierazten dute erakundeen tamaina murriztu egin dela; izan ere, urte horretako batez bestekoa 44 pertsona izan ziren eta moda 10 pertsona.

Erakundeen % 8,1ek 100 pertsona baino gehiago inplikatzen ditu bere jardueran, baina sektoreko erakundeen % 34,1ek 10 pertsona baino gehiago ditu. Talde handiena da 10 eta 50 pertsona bitarte dituzten erakundeena –soldatakoak zein boluntarioak-, osoko kopuruaren % 49 baitira.

Datuak ez dira asko aldatu 2007tik hona, baina bai nabaritzen da 50 pertsona baino gehiagoko erakunde-
deen pisua apur bat jaitsi dela eta 10 pertsona baino gutxiagoko erakunde-
deen pisu erlatiboak igoera txiki bat izan duela.


6.8. Grafikoa. Erakunde-
deen banaketa pertsonalaren bolumenaren arabera. Ehunekoak.



Tamaina txikiagoko erakundeek -10 pertsona baino gutxiago- oso pisu garrantzitsua dute -% 40 baino
gehiago- Eremu Kultural eta Zibikoan.

Kontrako muturrean, Enplegu, Ingurumen, Giza Eskubide, Gizarte Ekintza eta Garapenerako Nazioarteko
Lankidetzaren eremuek gaitzen dute 100 pertsonatik gorako parte-hartzea duten erakunde-
deen batez besteko proportzioa.

6.9. Grafikoa. Erakunde-
deen banaketa, pertsonalaren bolumenaren eta jardueraren arabera. Ehunekoak.



Sektoreak itxuratzen duen errealitatean, 24 milioi eurotik gorako diru-sarrerak dituzten erakundeak eta diru-sarrerarik gabeko erakundeak bizi dira elkarrekin.


Sakabanaketa maila hain handia denez, batez bestekoaren kalkuluak ez du informazio erabilgarririk eskaintzen, baina mediana 14.572€ denez, horrek esan nahi du diru-sarrera hori baino gutxiago duten erakundeak eta muga horretatik gora dauden erakundeak berdinak direla kopuru aldetik.

2009an, erakundeen % 46k 12.000€ baino gutxiagoko diru-sarrerak izan zituen, eta hamarretatik zazpik 60.000€ baino gutxiagokoak. 2006an, tarte horretan egondako erakundeen proportzioa apur bat handiagoa izan zen: erakundeen % 76,2k 60.000€ baino gutxiagoko diru-sarrerak izan zituen, eta % 54,9k 12.000€ baino gutxiago.

Bestalde, 12.000 eta 60.000 eurotik gorako aurrekontuak dituzten erakundeen proportzioak gora egin du 2006-2009 sasoiaren.

Erakundeek kudeatzen duten aurrekontuaren igoera hori milioi bat eta erdi eurotik gorako aurrekontua duten erakundeen proportzioan ere islatzen da (erakunde guztien % 4,5 2006an eta % 6,4 2009an).

6.10. Grafikoa. *Erakundeen banaketa 2009ko diru-sarreraren bolumenaren arabera. Ehunekoak.*




[K=341]

Bai batez bestekoak eta bai medianak bereziki handiak dira Gizarte Ekintza, Enplegu eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren eremuetan. Kontrako egoeran, Ingurumen, Aisialdi eta Kulturaren eremuak eta eremu Zibikoa daude, horiek baitituzte balio apalenak.

Ikus daiteke, halaber, boluntarioen pisuak eta diru-sarreraren bolumenak badutela erlazioa beren artean. Boluntarioen proportzio handiagoa duten erakundeek –osoko pertsonala erreferentziatatzat hartuta– diru-sarrera txikiagoak izaten dituzte, normalean.

6.11. Grafikoa. *Erakundeen banaketa 2009ko diru-sarreraren bolumenaren arabera, jarduera-eremua irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.*



[K=341]

7. Pertsonak

PERTSONA BOLUNTARIOAK

Erakundeen berezko ezaugarri bat da rol desberdinak betetzen dituzten pertsonak biltzea, erakundearekin konpromiso eta harreman mota desberdinak sortuz: pertsona boluntarioak, soldatako pertsonak, ukitutako pertsonak, bazkideak, zuzendaritzakoak, laguntzaileak, eta abar.

Borondatezko ekintza eta elkarrenganako laguntza elkartasun eta doakotasun balioen adierazleak dira, eta baita herritarren ekimen librearen adierazleak ere; horiek dira gizarte-ekimeneko erakundeak gehien bereizten dituzten jarduerak, eta, beraz, sektorearen identitate-ezaugarrietako bat direla esan daiteke.

Boluntarioei buruzko Legearen 2. artikulua¹⁸ definizio bat jasotzen du, azterlan hau egiterakoan ere kontuan hartu dena; bertan, elkarrenganako laguntza eta bazkideek, zuzendaritzako kideek, laguntzaileek eta gainerakoek gauzatzen dituzten beste jarduera batzuk ere sartzen dira barne. Hala, boluntariotza honela definitzen da: “pertsona fisikoek gauzatzen dituzten interes orokorreko ekimenen multzoa, baldin eta modu desinteresatuan, elkartasunez eta askatasunez gauzatzen badituzte, lan-, funtzionariotza- edo merkataritza-harremanak behartuta egon gabe, edo betebeharrak pertsonal edo juridikoren batek behartuta egon gabe; gainera, jarduera ordainsari ekonomikorik gabe gauzatzen da, irabazi-asmorik gabeko erakundearen bitartez, soldatako zerbitzu profesionalak ordezkatu gabe”.

Gutxi dira boluntariorik ez duten erakundeak, eta erakunde horiek sektorean oso presentzia txikia duten figura juridikoei dagozkien, hala nola gizarte-ekimeneko kooperatibei, eta abar. Dena dela, erakundeen % 34,6k dituen boluntarioen kopurua bere gobernu-organoko kideen kopuru berdina da. Hori are gehiagotan gertatzen da Eremu Zibikoko eta Enpleguaren eta Kulturaren eremuko erakundearen artean.


Hala eta guztiz ere, boluntarioek erakundeetan duten parte-hartzea oso esanguratsua da. Hala, boluntarioak dituzten erakundeek 28 boluntario dituzte batez beste, baina kasu ohikoena 6 boluntario dituztenena da. 2007an, erakundeetako boluntarioen batez bestekoa 39 pertsona izan ziren, baina moda berdina izan zen.

Gainera, 2010ean, erakundeen % 46,1ek 10 eta 50 boluntario bitarte ditu, eta % 11,9k 50 boluntario baino gehiago biltzen ditu bere baitan.

Nolanahi ere, 2007 urtearen aldean, erakundeetako boluntarioen kopurua nolabait jaitsi dela antzematen da. Hala, 10 boluntario baino gutxiago dituztenak lehen baino % 5,8 gehiago dira, eta gainerako taldeek pisu erlatiboa galdu dute.


¹⁸ Boluntarioei buruzko 17/1998 Legea, ekainaren 25ekoa (1998/07/13ko EHAA).

7.1. Grafikoa. *Boluntarioak dituzten erakundeen banaketa, boluntarioen bolumenaren arabera. Ehunekoak.*




Errealitateen heterogeneotasuna jarduera-eremu bakoitzean islatzen da. Boluntarioen bolumen mardula duten erakundeek presentzia handiagoa dute Gizar Eskubideen, Ingurumenaren eta Enpleguaren eremuetan. Enpleguaren, Kulturaren eta Osasunaren alorretan, berriz, 10 boluntario baino gutxiago dituzten erakundeen proportzioa batez bestekoa baino handiagoa da.

7.2. Grafikoa. *Boluntarioak dituzten erakundeen banaketa, boluntarioen bolumenaren arabera, jarduera-eremua irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.*



Hirugarren Sektorean gaur egun diharduten pertsona boluntarioen % 37,7k 35 urte baino gutxiago ditu, eta erretiro-adinera iritsi diren boluntarioak osoko kopuruaren % 16,6 dira.


7.3. Grafikoa *Boluntarioen banaketa adinaren arabera. Ehunekoak.*



[K=243]

Boluntario gazteek presentzia handiagoa dute Aisialdiaren eta Ingurumenaren eremuetan diharduten erakundeetan. Bestalde, ohikoagoa da boluntario adintsuagoak aurkitzea Eremu Zibikoan eta Gizarte Ekin-tzaren eta Kulturaren eremuetan.


7.4. Grafikoa. *Boluntarioen banaketa adinaren arabera, jarduera-eremua irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.*



[K=243]


Boluntarioen % 28,5k bi urte baino gutxiago daramatza erakundearekin kolaboratzen; dena dela, erakunde bereko boluntario gisa 5 urte baino gehiago daramatzaten boluntarioen taldeak nagusi izaten jarraitzen du.

7.5. Grafikoa. *Boluntarioen banaketa boluntarioen antzinatasunaren arabera. Ehunekoak.*



Pertsona boluntarioen artean, noizean behin parte-hartzen dutenen proportzioak gora egin du, nonbait, 2007tik hona. Astean 5 ordu baino gutxiago dedikatzen dituztenen ehunekoak behera egin du –badirudi ehuneko horren zati bat noizean behin parte hartzera pasatu dela-, baina astean 5 ordu baino gehiago dedikatzen dituzten pertsonen taldeak bere horretan jarraitu du edo apur bat igo da.


7.6. Grafikoa. *Boluntarioen banaketa, dedikazioaren maiztasunaren arabera. Ehunekoak.*



Noizbehinkako boluntarioek erakunde bakoitzean duten pisua xehetasunez aztertuz gero, ikus daiteke horrelako boluntarioek pisu erlatibo handiagoa dutela, batez beste, Giza Eskubideen, Ingurumenaren eta Kulturaren eremuetan.

Boluntarioen % 38,5 esku-hartzearen alorreko zereginetan dago inplikaturik, edo pertsona hartzaileengana-ko zuzeneko arretan -2007ko proportzio berdintsua-.

7.7. Grafikoa. *Boluntarioen banaketa eginkizunen arabera. Ehunekoak.*




[K=280]

Hiru erakundetatik ia batek dio bere pertsonal boluntarioaren bolumena handitu duela azken hiru urteotan, eta % 16,6k aitortzen du galdu dituen boluntarioak lortu ahal izan dituenak baino gehiago direla.


2007an bezala, erakunde gehienek bere boluntarioen bolumenari eutsi dio, baina bolumen hori handitzea lortu dutenak 2007an baino gutxiago dira (% 34,4 orain eta % 36,3 2007an). Beren boluntarioen bolumena jaitsi duten erakundeen proportzioa bereziki handia da Aisialdiaren eremuan.

7.8. Grafikoa. *Erakundeen banaketa azken 3 urteko boluntarioen bolumenaren bilakaeraren arabera. Ehunekoak.*



[K=331]

7.9. Grafikoa. Erakundeen banaketa azken 3 urteotako boluntarioen bolumenaren bilakaeraren arabera, jarduera-eremua irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.



[K=331]

SOLDATAKO PERTSONALA

Hamar erakundetatik sei pertsonal boluntarioz soilik daude osatuta. Hala, erakundeen % 41,5ek soilik kontratatu du norbait bere eginkizuna aurrera eramateko.

Hala eta guztiz ere, ehuneko horrek esan nahi du 9 puntuko igoera egon dela 2007tik hona. Izan ere, pertsonal kontratatua zuten erakundeak % 32,7 ziren urte horretan. Horrenbestez, datu hori sektorearen hazkundearen adierazleetako bat da.

Elkartea ez den beste figura juridikoren bat duten erakunde guztiek badute soldatako pertsonala. Bestalde, badirudi nolabaiteko lotura dagoela erakundeen antzintasunarekin; hala, dirudienez, erakundea zenbat eta zaharragoa den, orduan eta probabilitate handiagoa du soldatako pertsonak izateko.

Eremuen araberrako azterketak ere desberdintasun esanguratsuak erakusten ditu. Hala, Eremu Zibikoko erakundeek edo Kulturaren eremukoek askoz ere gutxiagotan izaten dituzte soldatako pertsonak (% 11,5 eta % 20,6, hurrenez hurren); beste muturrean, sektore hauetako erakunde gehienek badute soldatako pertsonala beren eginkizuna gauzatzeko: Enplegua, Giza Eskubideak (% 83,3), Gizarte Ekintza (% 78,7), Osasuna (% 62,5) eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak (% 57,7).


Soldatako pertsonen kopuruari buruzko datuek ere desberdintasun handiak erakusten dituzte erakundeen artean. Batez bestekoa 28 pertsona dira, baina gutxienerako pertsona bakarra da eta gehienekoa 1.600 pertsona. Dena dela, oso esanguratsua da ikustea erakundeen soldatako pertsonen batez bestekoa 19,6 pertsona izan zirela 2007an.

2007an bezala, hiru erakunde multzo bereizi daitezke soldatako pertsonalaren bolumenaren arabera:

- 3 soldatako pertsona baino gutxiago dituzten erakundeak: erakundeen % 36,5 dira, eta beren pisua ez da asko aldatu 2007az geroztik; 3 eta 10 soldatako pertsona bitarte dituztenak: % 29,4 izatetik % 34,6 izatera pasatu dira;
- Eta 11 eta 50 soldatako pertsona bitarte dituztenak: % 25,3 izatera iritsi ziren, eta orain % 20,5 dira.

Beste alde batetik, 50 pertsona baino gehiago kontratatuta dituzten erakundeak gutxiengo txikia izaten jarraitzen dute, baina % 7,6 izatetik % 8,3 izatera pasatu dira.


7.10. Grafikoa. Soldatako pertsonala duten erakundeen banaketa, soldatako pertsonen bolumenaren arabera. Ehunekoak.



Dirudienez, soldatako pertsonalaren igoerak eragin berezia izan du soldatako pertsonalik ez zuten erakundeetan edo soldatako pertsona gutxi zituzten erakundeetan, eta, halaber, egitura ertaina zuten eta kontratazio berriekin hurrengo tartera pasatu diren erakundeetan.


Eremuen arabera, 50 pertsona baino gehiago kontratatuta dituzten erakundeak Gizarte Ekintzaren eta Enpleguaren eremuetan aritzen dira batik bat. Ingurumenaren, Giza Eskubideen eta Kulturaren eremuetan, berriz, presentzia handiagoa dute 3 pertsona baino gutxiago kontratatuta dituzten erakundeek.

7.11. Grafikoa. Soldatako pertsonala duten erakundearen banaketa, soldatako pertsonen bolumenaren arabera, jarduera-eremua irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.




Soldatako pertsonalaren ezaugarriei dagokienez, pertsonen % 45,2k 35 urte baino gutxiago ditu; eta 50 urte baino gehiago duten pertsonak % 15,6 baino ez dira.

7.12. Grafikoa. Soldatako pertsonalaren banaketa adinaren arabera. Ehunekoak.




Pertsonalaren multzo handi batek (% 36,4) bi urte edo gutxiago daramatza erakunde berean lan egiten, eta antzeko proportzio batek (% 35,9) 5 urte baino gehiago, baina azken ehuneko hori % 45 zen 2007an. Jaitsiera hori lotuta egon liteke azken hiru urteetan pertsona berriak sartu izanarekin, baina baita pertsonalaren errotazioa handitu izanarekin ere.

7.13. Grafikoa. Soldatako pertsonalaren banaketa antzinatasunaren arabera. Ehunekoak.



Ingurumenaren eremuko soldatako pertsona da, dirudienez, erakundean denbora gutxien daramana; horren arrazoia da, seguruenik, eremu horretan berriki gertatu direla pertsona barneratzeko prozesuak edo soldatako eginkizunen garapena. Ibilbide luzeagoko pertsonak proportzio handiagoan biltzen dituzten eremuak, berriz, Kultura, Gizarte Ekintza eta Osasuna dira.


7.14. Grafikoa. Soldatako pertsonalaren banaketa beren antzinatasunaren arabera, jardueraren irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.



2010ean jasotako datuek adierazten dutenez, soldatako pertsonalaren % 63,1ek kontratu finko edo mugagabea du (ehuneko hori % 57,9 zen 2007an), eta % 30ek aldi baterako kontratua edo obrako kontratua (% 36,15 2007an). 2010ean, gainerako kasuak, % 100eraino iritsi arte, profesional autonomoak edo autonomoak dira gehienbat.


Aldi baterako kontratazioaren indizea kalkulatzen bada, aldi baterako edo obrako kontratuak kontratu finko edo mugagabeekin erlazionatuz –alde batera utziz profesionalentzako ordainketak eta presentzia txikiko beste egoera batzuk, zirkunstantzia konkretuei lotuak, hala nola praktikaldiko kontratuak, bekak, eta abar-, proportzioa % 32,4 ingurukoa da, Bizkaiko batez besteko indizea baino handiagoa –berau 18%¹⁹ izan zen- baina sektorearen 2007ko indizea baino txikiagoa (% 38).

7.15. Grafikoa. Soldatako pertsonalaren banaketa kontratu motaren arabera. Ehunekoak.



Pertsonal gehiena (% 83,7) lanaldi osoan dago kontratatuta, baina % 15ek lanaldi partzialeko kontratua du; horrenbestez, sektorea Bizkaiko batez bestekoaren gainean dago (% 13,2)²⁰, baina proportzioa 2007koa (% 29) baino nabarmenki txikiagoa da.

7.16. Grafikoa. Soldatako pertsonalaren banaketa, lanaldiaren arabera. Ehunekoak.




19 Iturria: http://www.eustat.es/elementos/ele0003300/ti_Poblacion_de_16_y_mas_años_ocupada_por_situacion_profesional_tipo_de_contrato_y_tipo_de_jornada_y_territorio_historico_miles_2009/tblo003335_c.html

20 Iturria: http://www.eustat.es/elementos/ele0003300/ti_Poblacion_de_16_y_mas_años_ocupada_por_situacion_profesional_tipo_de_contrato_y_tipo_de_jornada_y_territorio_historico_miles_2009/tblo003335_c.html

Pertsonal gehienak (% 76,9) zuzeneko esku-hartzearen alorreko zereginetan dihardu; administrazio eta kudeaketaren alorreko pertsonala, berriz, % 13 da (2007an % 21 izan zen). Batez besteko pisua handiagoa da Garapenerako Nazioarteko Lankidetzan, Kulturen eta Giza Eskubideetan.


7.17. Grafikoa. Soldatako pertsonalaren banaketa, eginkizunen arabera. Ehunekoak.



[K=137]

Erakunde gehienek diote beren soldatako pertsonalaren bolumenari eutsi diotela azken hiru urteotan; bolumena murriztu dutela diotenak % 9,1 baino ez dira, eta % 36,5ek igotzea lortu du; horrek adierazten du sektoreak jarraitu duela enplegua sortzen -2007an, ehuneko hori % 34 izan zen-.


7.18. Grafikoa. Erakundeen banaketa, soldatako pertsonen bolumenak azken 3 urteotan izandako bilakaeraren arabera. Ehunekoak.



[K=219]

Lanpostu gehien sortu dituzten erakundeak Enplegu, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzatza, Gizarte Ekin-tza eta Osasunaren alorretan diharduten erakundeak izan dira.

7.19. Grafikoa. Erakundeen banaketa, soldatako pertsonen bolumenak azken 3 urteotan izandako bilakaeraren arabera, jarduera-eremua irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.




[K=219]

Orokorrean, erakundeak ez dira oso ezkor azaltzen etorkizuna iragartzerakoan. % 66,2k uste du bere erakundeko soldatako pertsonalaren bolumena mantendu egingo dela hurrengo 3 urteetan, eta % 31,5ek uste du gora egingo duela.

Iragarpen ezkorrenak Osasun, Aisialdi eta Gizarte Ekintzaren eremuetan kontzentratzen dira batik bat (hurrenez hurren, erakundeek % 7,1, % 6,3 eta % 3,4k uste dute bolumenak behera egingo duela).

7.20. Grafikoa. *Erakundeek banaketa, soldatako pertsonen bolumenarentzat datozen 3 urteotarako aurreikusten den bilakaeraren arabera. Ehunekoak.*



Soldatako pertsonala duten erakundeek % 62,4k dio hitzarmen bati atxikita dagoela. Ehunekoak handiagoak dira Enplegu, Gizarte Ekintza eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzan. Ikus daiteke, halaber, antzinasun handiagoko erakundeek probabilitate handiagoa dutela hitzarmen bati atxikita egoteko.

GENERO-KONTUAK

Datuek adierazten dutenez, emakumeen proportzioak handiagoa jarraitzen du izaten erakundeetan. Emakumeak gehiago dira pertsona boluntarioen artean (% 56,6), soldatako pertsonen artean (% 68,5) eta bazkideen artean (% 59,6).

Ikerketaren arabera, emakumez soilik osatutako erakundeak % 8,6 dira (boluntarioak, soldatakoak eta bazkideak). Horietako gehienak, jakina, emakumeen erakundeak dira, eremuko Zibikokoak. Dena dela, horrelako erakundeek badute presentzia Osasunaren eta Gizarte Ekintzaren eremuetan ere.

Jarduera-eremu batzuetan, gizonen eta emakumeen arteko desproporzioa are handiagoa da. Hala, Enpleguaren eta Osasunaren alorretan, emakumeak boluntarioen % 90 eta % 70 baino gehiago dira, hurrenez hurren. Orobat, soldatako pertsonalaren baitan, batez bestekoa baino presentzia handiagoa dute eremu Zibikoan (% 81,3), Osasunaren eremuan (% 79,2), Aisialdiaren eremuan (% 78) eta Gizarte Ekintzaren eremuan (% 69,9).

7.1. Taula. Boluntarioen, soldatako pertsonalaren, osoko pertsonalaren eta bazkideen banaketa sexuaren arabera, jarduera-eremua irizpidetzat hartuta. Batez besteko proportzioa.

	Gizonezko Boluntarioak	Emakumezko boluntarioak	Soldatako gizonezkoak	Soldatako emakumezkoak	Gizonezko boluntarioak + soldatako gizonezkoak	Emakumezko boluntarioak + soldatako emakumezkoak	Gizonezko bazkideak	Emakumezko bazkideak	
OROKORRAK	43,4	56,6	31,5	68,5	40,7	59,3	40,4	59,6	
JARDUERA-EREMUA	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	39,7	60,3	34,6	65,4	38,4	61,6	39,0	61,0
	Zibikoa	41,1	58,9	18,8	81,3	40,4	59,6	33,1	66,9
	Kultura	52,8	47,2	33,3	66,7	52,2	47,8	42,5	57,5
	Enplegua	8,8	91,2	48,7	51,3	26,2	73,8	36,3	63,7
	Gizarte Ekintza	42,9	57,1	30,1	69,9	37,3	62,7	49,9	50,1
	Ingurumena	49,5	50,5	62,5	37,5	49,6	50,4	54,7	45,3
	Aisia	45,3	54,7	22,0	78,0	43,3	56,7	46,5	53,5
	Osasuna	29,6	70,4	20,8	79,2	27,9	72,1	32,7	67,3
	Giza Eskubideak	40,5	59,5	45,5	54,5	41,1	58,9	40,4	59,6
	[K=348]		[K=154]		[K=344]		[K=256]		

Halaber, datuak beste modu batean aztertuz gero, esan dezakegu emakumeak soldatako pertsonalaren gehiengo direla erakundeen % 51,3an, soldatako pertsonalarena erakundeen % 74,4an eta bazkideena erakundeen % 61,4an.

Kontrako muturrean, aldiz, oso gutxi dira emakumeen presentziarik ez duten erakundeak. Hain zuzen ere, erakundeen % 8k ez du emakumerik bere boluntarioen artean, % 6,5ek ez du emakumerik bere soldatako pertsonen artean, eta erakundeen % 4,9an gizonezko bazkideak soilik daude.


Dena dela, datuek jarraitzen dute erakusten emakumeen presentzia handiago hori ez datorrela bat beren gobernu-organismoetan duten presentziarekin, hau da, ez dute legokiekeen bezain presentzia handia. Hiru fundazioetatik batek ez du inongo emakumerik bere patronatu-batzordeko kideen artean, eta batzordeen % 11,2an soilik dira gehiengo emakumeak.

Elkarteen panorama hobea da alor horretan; hala eta guztiz ere, zuzendaritza-batzordeen % 11,1ek ez du emakumerik bere kideen artean, eta beren zuzendaritza-batzordeetan % 50 emakume baino gehiago dituzten erakundeak hamarretatik lau baino gutxiago dira (% 38,1).

2007 urtearekin alderatuta, azpimarratzekoa da nolabaiteko hobekuntza antzematen dela patronatu-batzordeetan. Orain dela hiru urte, emakumeen presentziarik ez zuten edo oso presentzia txikia zuten (% 25tik behera) patronatu-batzordeak % 75 ziren; orain, berriz, kasu horiek % 55,5 dira.

Beste alde batetik, apur bat jaitsi da emakumeen presentziarik ez duten zuzendaritza-batzordeen kasua: % 14,3 izatetik % 11,1 izatera pasatu dira, baina emakumeen presentzia kideen erditik gora duten batzordeen proportzioak behera egin du, % 48,6tik % 38,1era pasatuz.

7.21. Grafikoa. Erakundeen banaketa emakumeek gobernu-organismoetan duten pisuaren arabera. Ehunekoak.



8. Baliabide ekonomikoak

DIRU-SARRERAK

Erakundeek emandako datuen arabera, erakundeen % 61,7ek bere diru-sarreraren bolumena igo zuen 2007 eta 2009 bitartean, eta lautatik batek -gutxi gorabehera- jaitsiera izan zuen garai berean.

Aurreko kontsultan ikusi zenez, 2004 eta 2006 bitartean ekonomikoki hazi ziren erakundeak gutxiago izan ziren, hain zuzen ere % 59,8.

Badirudi diru-sarreraren bolumenaren jaitsierak eragin handiagoa izan duela eremu jakin batzuetan: Ingurumena, Enplegua eta Osasuna, besteak beste.

8.1. Taula. *Beren diru-sarreraren bolumenean 2007 eta 2009 bitartean igoera izan duten erakundearen proportzioa, jarduera-eremuaren arabera. Ehunekoa.*

		Mantendu egin da	Behera egin du	Gora egin du
OROKORRAK [K=143]		7,7	25,2	67,1
JARDUERA-EREMUA [K=143]	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzatza	-	15,4	84,6
	Zibikoa	4,2	12,5	83,3
	Kultura	16,1	29,0	54,8
	Enplegua	-	50	50
	Gizarte Ekintza	3,1	18,8	78,1
	Ingurumena	-	66,7	33,3
	Aisialdia	16,7	25	58,3
	Osasuna	10,5	36,8	52,6
	Giza Eskubideak	-	33,3	66,7

2007 eta 2009 bitartean, erakundeen diru-sarreraren bolumena % 47,6 igo zen, batez beste; zehatzago esanda: 2008 eta 2009 urteen bitarteko batez besteko igoera % 17,5 izan zen; 2004 eta 2006 bitartean, berriz, erakundeen igoera % 39 izan zen batez beste.

Batez besteko igoera apalagoa izan da Osasun, Giza Eskubide, Gizarte Ekintza eta Enpleguaren eremuetan, eta esanguratsuagoa izan da antzinatean txikiagoko erakundeen artean. Dena dela, ezin izan da egiaztatu ea diru-sarreraren bolumenaren igoerak loturarik ote duen finantziario publikoak erakundearen pisuarekin.

Erakundeen finantziario-iturriak hainbat motatakoak diren arren, batzuk maiztasun handiz agertzen dira eta beste batzuek askoz ere presentzia txikiagoa dute.

Hala, erakundeen % 61k partikularren dohaintza erregularren bidez finantzatzeko du bere jardueraren zati bat -gutxienez-; dohaintza horiek, sarritan, bazkideen kuotak izaten dira. 2006an, erakundeen % 58k iturri horretatik zetozen diru-sarrerak zituen.

Maiztasunaren ikuspuntutik, gehien agertzen den bigarren finantziazio-iturria jarduerara zuzendutako diru-laguntza publikoak dira. Erakundeen % 51,8k baditu horrelako diru-laguntzak.

Hala eta guztiz ere, erakunde pribatuen dohaintza erregularrak eta noizbehinkakoak erakundeen % 13,1entzat soilik dira finantziazio-iturri.

Eta gauza bera gertatzen da zerbitzuak betetzeko kontratuekin; izan ere, kontratu publikoak erakundeen % 14,8rentzat dira finantziazio-iturri, eta kontratu pribatuak erakundeen % 12,3rentzat.

8.1. Grafikoa. Diru-sarreraren iturri bakoitza duten erakundearen proportzioa. Ehunekoa.



Eremuen arabera azterketak erakusten duenez, bazkideen kuoten bidez -gutxienez zati batean- finantzitzen diren erakundearen proportzioa batez bestekoa baino handiagoa da eremu hauetan: Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak, Ingurumena, Giza Eskubideak, Zibikoa eta Osasuna. Bestalde, Gizarte Ekintzaren eta Osasunaren eremuetan, proportzio handiagoa dute beren finantziazio-iturrien artean erakunde pribatuen diru-laguntzak dituzten erakundeak.

Erakundearen finantziazio-iturrien dibertsifikazioa aztertu da, eta hortik ondorioztatu da erakundearen % 23,9k finantziazio-iturri bakarra izaten jarraitzen duela; kasuen % 39,7an, diru-iturri hori bazkideen kuotei dagokie. Datu horiek erakusten du egoera horiek nolabait ugaltu direla; izan ere, 2006 urtean, diru-iturri bakarra zuten erakundearen ehunekoa % 21 zen.

Bi finantziazio-iturri soilik dituzten erakundeak % 22,9 dira, eta kasu honetan proportzioak behera egin du, zeren 2006an % 28 baitziren.


Edonola ere, ez dirudi aldaketaren norabidea iturrien dibertsifikazioa murriztera zuzendu denik soilik. Hala, adibidez, 2006ean bost finantziazio-iturri baino gehiago zituzten erakundeak % 19 ziren, eta 2009an % 21,1.

Lau erakundetatik gutxienez hiruk finantzazio publikoa jasotzen dute. Finantziazio publikoa duten erakundeak neurri handiagoan biltzen dituzten eremuak hauexek dira: Enplegua (erakundeen % 100), Gizarte Ekintza (% 90,9) eta Ingurumena (% 88,9).


Erakunde horien % 13,6rentzat, finantziazio publikoa diru-sarreraren iturri bakarra da. Aisialdiaren eta Giza Eskubideen eremuko erakundeak eta eremu Zibikoko erakundeak dira batik bat.

% 40,6rentzat, berriz, finantziazio publikoa ez da iturri bakarra baina beren diru-sarreraren erdia baino gehiago ematen die. Egoera horretan dauden erakundeen proportzioa handiagoa da Gizarte Ekintza, Giza Eskubide eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren eremuetan.

8.2. Grafikoa. *Finantziazio publikoa duten erakundeen banaketa, finantziazio publikoak diru-sarreraren osoko zenbatekoan duen pisuaren arabera. Ehunekoak.*




8.3. Grafikoa. *Finantziazio publikoa duten erakundeen banaketa, finantziazio publikoak diru-sarreraren osoko zenbatekoan duen pisuaren arabera, jarduera-eremua irizpidetzat hartuta. Ehunekook.*



Finantziazio-iturriei buruzko erantzunak aztertuz gero, orokorrean ikus daiteke finantziazio pribatua sektoreko finantziazioaren % 55,8 dela, eta finantziazio pribatua % 44,2. Diru-laguntza publikoak (% 36) dira pisu erlatibo handiena dutenak, eta haien atzean partikularren dohaintza erregularrak datoz –horiek, normalean, bazkideen aldizkako kuotak izaten dira (% 25,8)- eta hirugarren postuan zerbitzuak betetzeko kontratu pribatuak (% 11,9).

8.4. Grafikoa. *Diru-sarrera mota bakoitzak diru-sarreraren osoko zenbatekoan duen pisu erlatiboa. Batez besteko proportzioa.*



Eremuen araberako azterketak desberdintasun nabariak islatzen ditu. Hala, finantziazio pribatuak pisu handiagoa du Garapenerako Nazioarteko Lankidetzan (% 61,7), Kulturean (% 68,2) eta Enpleguan (% 58,2); finantziazio publikoaren pisua, berriz, batez bestekoa baino nabarmenki handiagoa da gizarte Ekintzan (% 62), Ingurumenean (% 53,4), Aisialdian (% 51,8) eta Giza Eskubideetan (% 50,3). Lagin osoko erakundeek erantzunak hartuta, alderatzen baldin baditugu gizarte-ekintzaren alorrean eskumenak dituzten sailen finantziazio publikoa jasotzen duten erakundeak eta ezaugarri hori ez duten erakundeak, ikus daiteke lehenengo finantziazio publikoaren batez besteko proportzioa % 62,6 dela eta besteen kasuan % 16,4 baino ez dela.

Orobat, desberdintasunak antzematen dira eremuen eta bolumen ekonomikoaren arabera, finantziazio-iturri bakoitzaren pisu erlatiboari dagokionez.

- Bazkideen kuotak batez besteko orokorra baino handiagoak dira sektore hauetako erakundeetan: Garapenerako Nazioarteko Lankidetzan (% 38,4), Zibikoa (% 41,2) eta Giza Eskubideak (% 42,7). Halaber, jarduerarako diru-laguntza publikoen pisua batez bestekoa baino handiagoa da Garapenerako Nazioarteko Lankidetzan (% 30,9), Eremu Zibikoan (% 31,3), Ingurumenean (% 34,7) eta Giza Eskubideetan (% 34). Zerbitzuak betetzeko kontratu publikoen pisua batez bestekoa baino nabarmenki handiagoa da (% 28) Gizarte Ekintzaren eremuko erakundeek kasuan.
- Partikularren dohaintza erregularrek batez bestekoa baino pisu handiagoa dute 12.000etik beherako erakundeetan; zerbitzuak betetzeko kontratu publikoek, berriz, batez besteko pisu handiagoa dute bolumen ekonomiko handiagoa mugitzen duten erakundeetan.

8.2. Taula. *Diru-iturri bakoitzaren pisu erlatiboa diru-sarreraren osoko zenbatekoan, erakundeek bolumen ekonomikoaren arabera. Batez besteko proportzioa.*

	BOLUMEN EKONOMIKOA [K=265]					
	Orokorra [K=284]	12.000€ baino gutxiago	12.001€ - 60.000€	60.001€ - 300.000€	300.001€ - 1.500.000€	1.500.000€ baino gehiago
Partikularren dohaintza erregularrak	25,8	37,3	18,1	14,5	7,7	3,1
Erakunde pribatuak dohaintza erregularrak	1,9	1,0	2,6	3,1	4,2	0,5
Partikularren noizbehinkako dohaintzak	2,8	4,6	0,6	1,0	2,2	5,2
Erakunde pribatuak noizbehinkako dohaintzak	0,7	0,9	0,6	0,6	1,0	0,8
Zerbitzuak betetzea	7,4	7,0	9,9	6,9	8,8	2,0
Produktuen salmenta	3,6	4,1	1,9	4,4	0,9	6,8
Baliabide propioak eskuratzeko sustapenak	2,3	3,5	1,3	0,7	1,2	0,0
Zerbitzuak betetzeko kontratu pribatuak	4,5	5,0	3,5	7,9	1,6	5,0
Aurrezki-kutxen gizarte-ekintzak	2,8	1,7	3,2	4,3	6,8	0,4
Erakunde pribatuak diru-laguntzak	2,1	0,2	2,6	1,9	5,6	2,1
Ondare-errentak	0,9	0,0	1,4	0,2	2,8	0,1
Beste finantziazio-iturri pribatu batzuk	1,1	0,9	1,8	1,7	0,8	0,1
Zerbitzuak betetzeko kontratu publikoak eta hitzarmenak	7,6	0,0	2,6	10,8	24,6	48,4
Inbertsioetarako diru-laguntza publikoak	0,5	0,1	1,0	0,5	1,1	1,6
Funtzionamendurako diru-laguntza publikoak	13,7	14,0	16,0	17,1	13,5	7,1
Jarduerarako diru-laguntza publikoak	21,8	19,0	32,5	24,1	17,1	16,7
Finantziazio publikoaren alorreko beste iturri batzuk	0,6	1,1	0,4	0,3	0,1	0,3

Erakunde batek partikularren dohaintza erregularrak dituenean, dohaintza horiek beren finantziazioaren % 41,9 izaten dira, gutxi gorabehera. Jarduerarako diru-laguntza publikoak dituztenek beren diru-sarreraren % 43,9 jasotzen dute horien bidez, batez beste. Zerbitzuak betetzeko kontratu publikoak erakunde sinatzaileen diru-sarreraren % 56,6 izaten dira, batez beste.


8.5. Grafikoa. *Diru-iturri bakoitzak erakundearen diru-sarreraren osoko zenbatekoan duen pisu erlatiboa, diru-iturri hori duten erakundetan. Batez besteko proportzioa.*



Beste alde batetik, datuek adierazten dute udalen finantziazioa finantziazio publiko osoaren % 44,6 dela, eta Eusko Jaurlaritzarena eta Aldundiarena % 25 ingurukoa dela bakoitza. Europar Batasunetik (% 3,4) eta Estatutik (% 1,9) datorren finantziazioak, berriz, pisu erlatibo txikiagoa du, baina esanguratsuagoa da eremu jakin batzuetan.


Hala, adibidez, Aisialdi, Osasun eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren alorrean, Estatuaren finantziazioaren pisua txikia da baina beste gainerako eremuetan baino handiagoa. Udalaren finantziazioak, berriz, pisu handiagoa du eremu Zibikoan, Kulturean, Ingurumenean eta Aisialdian. Eta foru-finantziazioak presentzia handiagoa du Gizarte Ekintzaren eremuan.

8.6. Grafikoa. *Finantziazio publikoaren iturri bakoitzak finantziazio publiko orokorrean duen pisu erlatiboa. Bestez besteko proportzioa.*



[K=189]

8.7. Grafikoa. *Finantziazio publikoaren iturri bakoitzak finantziazio publiko orokorrean duen pisu erlatiboa, jarduera-eremuaren arabera. Batez besteko proportzioa.*




[K=189]

Erakundeek jasotzen duten finantzazio publikoaren xede arruntena zerbitzuak betetzea edo erantzukizun publikotik kanpoko jarduerak gauzatzea da. Erakundeen % 67,5k horrelako jardueretara zuzendutako finantziazio publikoa jasotzen du. Kasu gehienetan (% 89,3), finantziatziora iristeko bidea diru-laguntza izan da.

Erakundeen % 51,5ek diru publikoa jasotzen du bere funtzionamendurako, kasu gehien-gehienetan diru-laguntzen bidez (% 90,1).

Beste alde batetik, administrazio publikoek berek erantzukizun publikoko zerbitzutzat hartzen dituzten zerbitzuak betetzeko finantziazio publikoa jasotzen duten erakundeak erakunde guztien % 12,9 dira. Kasu horietan ere, modalitate arruntena diru-laguntza da (% 66,7), baina beste kasu askotan hitzarmenak (% 53,3), plazen kontzertazioa (% 20) eta beste kontratazio modalitate batzuk (% 13,3) ere aipatzen dira (*kontuan hartu behar da erakunde berberak modalitate bat baino gehiago izan ditzakeela*).


8.8. Grafikoa. *Finantziazio publikoa jasotzen duten erakundeen proportzioa, finantzazioaren xedearen arabera. Ehunekoak.*



8.3. Taula. *Finantziazio publikoa jasotzen duten erakundeen proportzioa, modalitate eta xedearen arabera.*

		Diru-laguntza	Hitzar.	Kontr. Mod.	Plazen kontzer.
MODALITATEA	Erantzukizun publikoko zerbitzuak betetzea [K=15]	66,7	53,3	13,3	20
	Beste zerbitzu edo jarduera batzuk betetzea [K=103]	89,3	10,7	5,8	0
	Erakundearen funtzionamendua [K=71]	90,1	9,9	2,8	2,8
	Inbertsioak [K=10]	100	0	0	10

8.9. Grafikoa. *Finantziazio publikoa jasotzen duten erakundeen proportzioa, xede, modalitate eta finantziazio-iturriaren arabera. Ehunekoak.*




Gai honen inguruan jasotako datuek ez dute lagin nahikorik konklusio finkoak ateratzeko; hala eta guztiz ere, badirudi erantzukizun publikotik kanpoko jarduerak egiteko jasotzen duten finantziazio publikoa mantendu edo galdu duten erakundeen kopurua handiagoa dela finantziazio gehiago lortu dutenak baino, finantziazio horren iturria zeinahi delarik ere: Eusko Jaurlaritz, Aldundia edo Udalak.

Egoera berdintsua da erakundearen funtzionamendura zuzendutako finantziazioari dagokionez, baina kasu horretan badirudi udaletatik datorrena jaitsi dela.

GASTUAK

Jarduerara zuzenean bideratzen diren gastuak erakundeen gastuaren % 86,7 dira, batez beste; 2006an, berriz, horretara zuzentzen den gastua % 84,4 zen.

8.10. Grafikoa. *Gastu mota bakoitzak osoko gastuan duen pisu erlatiboa, gastuaren xedearen arabera. Batez besteko proportzioa.*




[K=178]

Beste kontzeptu batzuei dagokienez, orokorrean, pertsonalaren gastuak erakundeen gastuaren % 24,2 izaten dira, eta gastu orokorrak % 15,1. 2006ko datuekin alderatuta, desberdintasun nagusiak hauexek dira: pertsonalaren gastuak gora egin du urte horretatik hona, zeren urte horretan % 15,8 izan baitzen gastu hori –hori bat dator soldatako pertsonalaren igoerarekin-; gastu orokorrak, berriz, behera egin dute, 2006an % 22 baitziren.

Dena dela, benetan gastu mota bakoitza duten erakundeen datuak soilik hartzen badira kontuan, ikus daiteke pertsonalaren gastuak erakundearen gastuen % 50,4 izan ohi direla (% 56 2006an). Beste alde batetik, gastu orokorrak gastu horiek dituzten erakundeen % 228 izaten dira -% 19,6 2006an-.

8.11. Grafikoa. *Gastu mota bakoitzak osoko gastuan duen pisu erlatiboa. Batez besteko proportzioa.*




[K=267]

8.12. Grafikoa. *Gastu mota bakoitza duten erakundeen proportzioa.*




8.13. Grafikoa. *Gastu mota bakoitzak osoko gastuan duen proportzioa, gastu hori duten erakundeetan. Batez besteko proportzioa.*



Erakunde txikien artean, pertsonalaren alorreko gastuak pisu txikiagoa du, eta gora egiten du pertsonalaren bolumena hazten den neurrian. Kanpo zerbitzuetarako gastua, aldiz, handiagoa da pertsonalaren bolumena jaisten den neurrian.

8.14. Grafikoa. *Gastu mota bakoitzak osoko gastuan duen pisu erlatiboa, pertsonalaren bolumenaren arabera. Batez besteko proportzioa.*




LIKIDEZIA- ETA ZORPETZE-ARAZOAK

Lau erakundetatik batek dio badituela likidezia-arazoak edo altxortegi-tentsioak –ehuneko hori 2006koa baino apur bat txikiagoa da-. Dirudienez, arazoak ohikoagoak dira Enplegu, Ingurumen eta Osasunaren arloko erakundeetan, zeren erregistratutako batez besteko proportzioa handiagoa baita.

Antzinatasunaren, bolumen ekonomikoaren eta finantziazio publikoak duen pisuaren arabera desagregatutako datuak aztertuta, ez da lotura garbirik antzeman aldagai horien eta likidezia-arazoen artean.

8.15. Grafikoa. Erakundeen banaketa likidezia-arazoak egotea irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.



[K=331]

Bildutako datuak lagin oso mugatu bati buruzkoak diren arren, azpimarratu daiteke likidezia-arazoak aipatzen dituzten erakundeen % 30ek baino gehiagok mailegu pertsonetara jotzen duela maiz edo sarri askotan, arazo horiek gainditzeko. Gehienbat, tamaina eta bolumen ekonomiko txikiko erakundeak izaten dira, antzinatasun laburrekoak.

8.4. Taula. Likidezia-arazoak dituzten erakundeen proportzioa eta altxortegi-tresna bakoitza zer maiztasunez erabiltzen duten. Ehunekoak.

	Inoiz ere ez	Gutxitan	Sarritan	Sarri askotan	
LIKIDEZIA-ARAZOAK	Eskudiruaren deskontua eta kredituen aurrerakina [K=40]	85,0	10,0	2,5	2,5
	Kreditu-linea [K=42]	61,9	14,3	9,5	14,3
	Inbertsioak eta muga jakineko gordailuak [K=38]	92,1	5,3	0	2,6
	Mailegu pertsonalak [K=44]	45,5	22,7	15,9	15,9
	Beste tresna batzuk [K=31]	80,6	9,7	3,2	6,5


Gai honetarako aztertutako laginak datuak zuhurtziaz hartzera behartzen badu ere, kalkulatu da erakunde baten batez besteko zorpetze garbia % 30,2 dela. Horrek esan nahi du kanpoko baliabideak –kredituak eta abar- erakunde baten pasiboaren herenetik gora daudela -2006an, zenbatekoa % 37 zen, gutxi gorabehera-.

Gizarte Ekintzako erakundeak batez besteko zorpetze maila horren gainetik daude (% 34,4). Antzinasu-nari dagokionez, datuek adierazten dute, nonbait, erakunde gazteenak -1 eta 10 urte bitarteko antzina-tasuna dutenak- direla zorpetze-arazoak gehien pairatzen dituztenak.

JABETZAKO LOKALAK

2007an ikusi zen bezala, erakundeen % 14k soilik dio bere lokalen jabea dela. Ehuneko hori handiagoa da Gi-zarte Ekintzan eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzan, baina, batez ere, datuek erakusten dute badagoe-la lotura bat antzinasunaren eta lokalen jabetzaren artean: erakundearen ibilbidea luzeagoa den neurrian, gero eta probabilitate handiagoa dago lokalen jabea izateko. Hala eta guztiz ere, 20 urtetik gorako ibilbidea duten erakundeen kasuan, % 25,3 baino ez da bere lana gauzatzeko erabiltzen dituen lokalen jabea.

8.16. Grafikoa. Erakundeen banaketa lokalen jabetza izatearen arabera. Ehunekoak.



8.5. Taula. Jabetzako lokalak dituzten erakundeen proportzioa, jarduera-eremua eta erakundearen antzinasuna irizpidetzat hartuta. Baiezkoaren ehunekoak.

		(%)			(%)
OROKORRA [K=352]		13,9			
JARDUERA-EREMUA [K=352]	Garapenerako Nazioarteko Lankidetz	23,1	ANTZINATASUNA [K=348]	Urtebete edo gutxiago	3,0
	Zibikoa	6,0		Urtebete eta 5 urte bitartean (barne sartuta)	4,2
	Kultura	6,9		5 eta 10 urte bitartean (barne sartuta)	7,1
	Enplegua	6,0		10 eta 20 urte bitartean (barne sartuta)	17,5
	Gizarte Ekintza	27,5		20 eta 50 urte bitartean (barne sartuta)	25,3
	Ingurumena	0,0		50 urte baino gehiago	28,6
	Aisialdia	0,0			
	Osasuna	16,2			
	Giza Eskubideak	16,7			

AITORTZA

Erakundeen % 26,2k dio gizarte izaerako erakundetzat aitortuta dagoela, eta elkarteen % 13,1k dio onura publikoko elkartetzat aitortuta dagoela.

8.6. Taula. *Gizarte izaerako erakunde bezala aitortuta dauden erakundeen proportzioa eta onura publiko-ko elkarre bezala aitortuta dauden elkartearen proportzioa, jarduera-eremuaren arabera.*

		Gizarte izaera erakundea			Onura publikoko elkartea
OROKORRA [K=100]		26,2	OROKORRA [K=46]		13,1
ARDUERA-EREMUA [K=100]	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	30,8	ARDUERA-EREMUA [K=46]	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	30
	Zibikoa	21,8		Zibikoa	9,0
	Kultura	19,4		Kultura	9,3
	Enplegua	45,5		Enplegua	50
	Gizarte Ekintza	42,7		Gizarte Ekintza	23,8
	Ingurumena	8,3		Ingurumena	0,0
	Aisialdia	23,1		Aisialdia	4
	Osasuna	22,5		Osasuna	12,8
	Giza Eskubideak	16,7		Giza Eskubideak	16,7

AUDITORIAK

Fundazioek beren kontuak aurkeztu behar dituzte urtero Fundazioen Babesletzan; izan ere, erakunde hori administrazio publikoaren ikuskaritzaz eta tutoretzaz arduratzen da, fundazioen eraketaren eta funtzionamenduaren legezkotasuna bermatzeko. Kasu batzuetan, gainera, kanpo-auditoria bat egitera daude behartuta.²¹

Orokorrean, elkarteek Batzar Nagusian onartzen dituzte beren kontuak urtero, eta ez daude behatuta kontuak kanpoan aurkeztera, neurri bereko exigentzia batez.

Kanpoko kontabilitate-auditoria urrats garrantzitsua izan daiteke erakundeen -orokorrean- eta elkartearen -bereziki- legitimitatea bermatzeko, zeren kontuak aurkeztera behartzen baitu.

Erakundeen % 11,8k dio kanpoko kontabilitate-auditoria eskatu duela azken hiru urteotan. Eskatu duten erakundeen artean, gehienak fundazioak eta tamaina eta bolumen ekonomiko handiko erakundeak dira.

21 Fundazioei buruzko abenduaren 26ko 50/2002 Legea. 25. artikulua. Kontabilitatea, auditoria eta jardura-plana. Bi urtez -jarraian- gutxienez hiru zirkunstantzia hauetako bi gertatzen badira :
 - osoko ondarea 2.400.000€ baino handiagoa da.
 - diru-sareren urteko zenbateko garbia 2.400.000etik gorakoa da.
 - langileen batez besteko kopurua 50 baino handiagoa da ekitaldian zehar.

Edonola ere, auditoriak garrantzitsuak direnez gardentasuna bermatzeko eta interes-taldeei kontuak aurkezteko, azpimarratu behar da 1.500.000 euro baino gehiago kudeatzen dituzten erakundeen % 45,5ek ez duela auditoriarik eskatu azken hiru urteotan.

8.7. Taula. Azken 3 urteotan kanpoko kontabilitate-auditoria eskatu duten erakundeen proportzioa, figura juridikoa, bolumen ekonomikoa eta pertsonalaren bolumena irizpidetzat hartuta. Baiezkoen ehunekoak.

		(%)
OROKORRAK [K=347]		11,8
FIGURA JURIDIKOA [K=347]	Elkartea	8,5
	Fundazioa	52,4
	Beste figura juridiko batzuk	30
BOLUMEN EKONÓMIKOA [K=324]	12.000€ baino gutxiago	1,4
	12.001€ - 60.000€	2,6
	60.001€ - 300.000€	18,8
	300.001€ - 1.500.000€	46,7
	1.500.000€ baino gehiago	54,5
PERTSONALAREN BOLUMENA [K=329]	10 pertsona baino gutxiago	4,8
	10 eta 50 pertsona bitartean	7,1
	51 eta 100 pertsona bitartean	37,5
	101 eta 500 pertsona bitartean	26,1
	500 pertsona baino gehiago	100

9. Kudeaketarako estrategiak

PLAN ESTRATEGIKOAK

Plangintza estrategikoa lagungarria da erakundeentzat, egiten ari direnaz eta beren jardueraren eta misioaren arteko loturaz hausnartu dezaten. Plangintza estrategikoa lagungarria da erakundearen norabidea finkatzeko, bere jardunaren jarraipena egiteko eta, azken batean, tresna baliagarria da ezarritako helburuak ahalik eta eraginkortasun eta efizientziarik handienarekin lortzeko.

Erakundeen % 27,5ek dio baduela erakundearen jarduna orientatzen duen idatzizko plan estrategiko bat; % 32,6k, berriz, horrekin zerikusia duten ekintzak garatzen ditu, baina ez da iritsi plan batean formalizatzerazifra horiek 2007koen antzekoak dira-.

Proiektu edo jardueren emaitzak ebaluatzeko sistema bat izatea, gainera, kudeaketa-tresnek erakunde batean duten ezarpen maila neurtzeko adierazletzat har daiteke. Erakundeen % 21,2k badu idatzizko sistema bat, eta % 27,2k horrekin zerikusia duten ekintzak garatzen ditu.

Kalitate-sistemen ezarpena lagungarria da erakundeen esperientzia formalizatzeko, arduren banaketa hobetzeko, beren funtzionamendua optimizatzeko... Horrez gain, baina, erantzukizun keinu bat da atenditzen diren kolektiboentzat, lagungarria da kanpoko bezeroei eta dohaintza-emaileei kontuak aurkezteko, eta abar.

Jasotako datuak adierazten dutenez, erakundeen % 10,4k badu idatziz formalizatutako kalitate-plan edo sistema bat, eta % 13,9k erakundearen kudeaketa hobetzearekin zerikusia duten ekintzak gauzatzen ditu aurtengo zifrak eta 2007koak ia berdinak dira-.

9.1. Grafikoa. Erakundeen banaketa plan bakoitza izatearen arabera eta horren formalizazio graduaren arabera. Ehunekoak.



Ehuneko orokorrekin ikuspegi global bat eskaintzen dute; dena dela, esan dugun moduan, badira errealitate oso desberdinak erakundearen tamainaren arabera, kudeatzen duen bolumen ekonomikoaren arabera, soldatuko pertsonala izatearen edo ez izatearen arabera, eta abar.

Orokorrean, erakundea pertsona gutxiagoz osatuta dagoen neurrian, kudeaketa-planari lotutako ekintzak-ekintza formalizatuak- gauzatzeko joera txikiagoa da. Emaitzak ebaluatzeko sistemen ezarpenari dagokionez, berriz, desberdintasunak txikiagoak dira.

Erakundeen bolumen ekonomikoari begiratuz gero, diru-sarreraren bolumena zenbat eta handiagoa den, orduan eta probabilitate handiagoa dago plan estrategikoa, prestakuntza-plana, laneko arriskuen prebentziorako plana edo emaitzak ebaluatzeko sistema bat izan dezaten.

9.1. Taula. *Erakundeen banaketa, plan bakoitza izatearen edo ez izatearen arabera, beren formalizazio gradua kontuan hartuta, bolumen ekonomikoaren arabera. Ehunekoak.*

		12.000€ baino gutxiago	12.001€ - 60.000€	60.001€ - 300.000€	300.001€ - 1.500.000€	1.500.000€ baino gehiago
OROKORRA [K=341]		46,0	24,3	14,4	8,8	6,5
Plan Estrategikoa [K=331]	Bai, idatziz	14,0	28	23,4	60	81,8
	Idatziz ez, baina horri lotutako ekintzak gauzatzen ditugu	30,2	32	48,9	30	0,0
	Ez	55,8	40	27,7	10	18,2
Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana [K=322]	Bai, idatziz	1,6	4,1	40,4	86,7	72,7
	Idatziz ez, baina horri lotutako ekintzak gauzatzen ditugu	5,7	6,8	14,9	3,3	13,6
	Ez	92,7	89,2	44,7	10	13,6
Prestakuntza Plana [K=325]	Bai, idatziz	10,2	12	19,1	51,7	66,7
	Idatziz ez, baina horri lotutako ekintzak gauzatzen ditugu	23,4	29,3	38,3	41,4	9,5
	Ez	66,4	58,7	42,6	6,9	23,8
Kalitate Plana/ Sistema [K=316]	Bai, idatziz	1,6	2,7	0	60,7	52,6
	Idatziz ez, baina horri lotutako ekintzak gauzatzen ditugu	9,5	6,8	31,1	14,3	31,6
	Ez	88,9	90,4	68,9	25,0	15,8
Proiektu edo Jardueren Emaitzak Ebaluatzeko Sistema [K=302]	Bai, idatziz	10,1	22,1	23,8	48,1	42,1
	Idatziz ez, baina horri lotutako ekintzak gauzatzen ditugu	26,1	25	42,9	18,5	42,1
	Ez	63,9	52,9	33,3	33,3	15,8

Soldatako pertsonala izateak eragin nabaria du horren inguruko desberdintasunetan. Adibidez, boluntarioez gain soldatako pertsonala eta plan estrategikoa dituzten erakundeen ehunekoak % 74,9ra iristen da, eta kalitate-sistema dutenak % 42,1 dira.

Beste alde batetik, soldatako pertsonala duten erakundeen % 43,7k ez du laneko arriskuen prebentziorako planik.

9.2. Taula. Erakundeen banaketa, plan bakoitza izatearen edo ez izatearen arabera, haien formalizazio gradua eta soldatako pertsonala izatea irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.

		Soldatako pertsonala duten erakundeak	Soldatak pertsonalik gabeko erakundeak
OROKORRA [K=381]		41,5	58,5
Plan Estrategikoa [K=331]	Bai, idatziz	42,9	15,2
	Idatziz ez, baina horri lotutako ekintzak gauzatzen ditugu	32,0	33,2
	Ez	25,2	51,6
Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana [K=322]	Bai, idatziz	45,8	1,7
	Idatziz ez, baina horri lotutako ekintzak gauzatzen ditugu	10,6	6,1
	Ez	43,7	92,2
Prestakuntza Plana [K=325]	Bai, idatziz	32,1	9,7
	Idatziz ez, baina horri lotutako ekintzak gauzatzen ditugu	35,7	20,5
	Ez	32,1	69,7
Proiektu edo Jardueren Emaitzak Ebaluatzeako Sistema [K=302]	Bai, idatziz	33,6	11,7
	Idatziz ez, baina horri lotutako ekintzak gauzatzen ditugu	28,2	26,3
	Ez	38,2	62,0

Kulturan, Eremu Zibikoan, Osasunean, Ingurumenean eta Giza Eskubideetan da txikiena kudeaketa-planak idatziz formalizatzen dituzten erakundeen kopurua.

KUDEAKETAREKIN ZERIKUSIA DUTEN POSTU ESANGURATSUAK

Kudeaketarekin zerikusia duten postu batzuen existentzia adierazle bezala erabili nahi izan dugu erakunde-garapena neurtzeko. Datuek garbi adierazten dutenez, postu horiek egotea edo ez egotea bereziki lotuta dago erakundeak soldatako pertsonala izatearekin edo ez izatearekin, baina baita kudeatzen duen bolumen ekonomikoarekin eta erakundeko pertsonal boluntarioaren pisuarekin ere.

Orokorrean, erakundeen % 19,4k badu gerentziaz arduratzen den pertsona bat -2007an, zifra hori % 14,3 zen- eta % 24,3k badu administrariren bat.

Hala eta guztiz ere, soldatako pertsonala duten erakundeen % 43,7k badu gerentea eta % 55,7k administrariak. Gerentea dute 12.000€ baino gutxiago kudeatzen duten erakundeen % 3,8k, eta administrariak erakunde horien % 4,5ek.

9.3. Taula. Kudeaketari lotutako postu esanguratsuak dituzten erakundeen proportzioa, irizpide hauen arabera: jarduera-eremua, soldatako pertsonala izatea, figura juridikoa, pertsonalaren bolumena eta boluntarioen pisua. Baiezkoen ehunekoak.²²

		Gerentea	Giza Baliabideen arduraduna	Koordinatzaileak, arlo eta sailetako arduradunak	Administrariak	Kalitate-arduraduna
OROKORRAK [K=152]		19,4	9,7	28,3	24,3	7,6
JARDUERA-EREMUA [K=152]	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzatza	23,1	11,5	38,5	26,9	3,8
	Zibikoa	2,6	0	5,1	2,6	0
	Kultura	7,4	1,9	10,2	11,1	2,8
	Enplegua	81,8	36,4	81,8	54,5	45,5
	Gizarte Ekintza	40	28	58,7	49,3	20
	Ingurumena	16,7	8,3	41,7	25	8,3
	Aisialdia	34,6	11,5	26,9	11,5	3,8
	Osasuna	17,5	7,5	37,5	52,5	7,5
FIGURA JURIDIKOA [K=152]	Giza Eskubideak	16,7	0	50	33,3	0
	Elkartea	42,1	21,5	66,1	62,8	15,7
	Fundazioa	66,7	38,1	90,5	57,1	33,3
SOLDATAKO PERTSONALA [K=151]	Beste figura juridiko batzuk	90	30	90	50	30
	Bai	43,7	20,3	65,2	55,7	15,2
PERTSONALAREN BOLUMENA [K=142]	Ez	2,2	2,2	2,2	2,2	2,2
	10 pertsona baino gutxiago	8,1	3,3	13,0	11,4	2,4
	10 eta 50 pertsona bitartean	15,8	7,9	27,1	22,6	6,2
	51 eta 100 pertsona bitartean	50	25	65,6	59,4	21,9
	101 eta 500 pertsona bitartean	37,0	22,2	51,9	51,9	14,8
BOLUMEN EKONOMIKOA [K=139]	500 pertsona baino gehiago	100	100	100	100	100
	12.000€ baino gutxiago	3,8	3,2	6,4	4,5	3,8
	12.001€ - 60.000€	12,0	4,8	20,5	22,9	1,2
	60.001€ - 300.000€	30,6	8,2	55,1	38,8	2,0
	300.001€ - 1.500.000€	73,3	30	90	80	33,3
BOLUNTARIOEN PISUA [K=142]	1.500.000€ baino gehiago	77,3	54,5	90,9	90,9	50
	% 25eraino	81,3	56,3	93,8	75	50
	% 25 eta % 50 bitartean	61,9	42,9	81,0	76,2	42,9
	% 50 eta % 75 bitartean	31,6	21,1	68,4	50	10,5
	% 75 eta % 100 bitartean	32,4	4,2	53,5	52,1	1,4
	% 100	2,3	2,3	2,3	2,3	2,3

22 Ehuneko hori kalkulatzeko, ez dakitenak eta erantzuten ez dutenak ere sartu ditugu barne; izan ere, kontsideratu da ezezko erantzunekin egon daitezkeela lotuta eta kanpoan utziz gero gehiago desbidera daitezkeela azkeneko ehunekoak.

KALITATEA ETA BESTE ZIURTAGIRI BATZUK

Ziurtagiriek kanpo-aitortza lortzea ahalbidetzen diete erakundeei. Kalitate-ziurtagiriren bat duten erakundeen ehunekoa % 6,9 da, gutxi gorabehera, eta % 10eraino igotzen da kalitatearen kudeaketarekin zuzenean lotuta ez dauden ziurtagiriak ere kontuan hartzen badira.

Kalitate-ziurtagiri guztien artean, ISO 9001 da erakundeek gehien aukeratzen dutena. Dirudienez, erakundeen % 3,4k du ziurtagiri hori -2007an, % 3 izan ziren-. Horrek esan nahi du erakundeek aukeratu dutela, oro har, ekonomiaren eta baliabideen aldetik –pertsonala, denbora, eta abar- irisgarriagoa den arau bat.

9.4. Taula. *Kalitatearen kudeaketarekin zerikusia duen ziurtagiria duten erakundeen proportzioa, irizpide hauen arabera: jarduera-eremua, pertsonalaren bolumena, bolumen ekonomikoa, kalitate arduraduna egotea edo ez egotea. Ehunekoak.*²³

	ISO 9001	Zilarrezko Q	Urrezko Q	PREMIE Ziurtagiria
OROKORRAK [K=289]	3,4	0,3	0,3	1,3
JARDUERA- EREMUA [K=289]	Garapenerako Nazio. Lankidetzak	3,8	0,0	0,0
	Zibikoa	0,0	0,0	0,0
	Kultura	0,0	0,0	0,0
	Enplegua	36,4	9,1	9,1
	Gizarte Ekintza	9,3	0,0	5,3
	Ingurumena	0,0	0,0	0,0
	Aisialdia	0,0	0,0	3,8
	Osasuna	2,5	0,0	0,0
	Giza Eskubideak	0,0	0,0	0,0
PERTSONALAREN BOLUMENA [K=277]	10 pertsona baino gutxiago	0,0	0,0	0,0
	10 eta 50 pertsona bitartean	2,8	0,0	0,6
	51 eta 100 pertsona bitartean	9,4	0,0	3,1
	101 eta 500 pertsona bitartean	11,1	0,0	0,0
	500 pertsona baino gehiago	50	0,0	0,0
BOLUMEN EKONOMIKOA [K=267]	12.000€ baino gutxiago	0,0	0,0	0,0
	12.001€ - 60.000€	1,2	0,0	0,0
	60.001€ - 300.000€	0,0	0,0	0,0
	300.001€ - 1.500.000€	16,7	0,0	10
	1.500.000€ baino gehiago	31,8	4,5	4,5
KALITATE- ARDURADUNA [K=119]	Bai	37,9	3,4	0,0
	Ez	1,6	0,0	0,0
KALITATE-PLANA [K=262]	Bai, idatziz	30,3	3,0	3,0
	Idatziz ez, baina horrekin lotutako ekintzak gauzatzen ditugu	4,5	0,0	0,0
	Ez	0,0	0,0	0,0

²³ Ehuneko hori kalkulatzeko, ez dakitenak eta erantzuten ez dutenak ere sartu ditugu barne; izan ere, kontsideratu da ezezko erantzunekin egon daitezkeela lotuta eta kanpoan utziz gero gehiago desbidera daitezkeela azkeneko ehunekoa.

Orobat, erakunde batzuek lortu dute zerbitzu edo alderdi konkreturen bat ziurtatzea, horrek kopuru orokorrean duen proportzioa oso txikia bada ere. Guztien artean, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunean kolaboratzen duen erakundea izatearen ziurtagiria nabarmentzen da (% 1), eta baita ingurumenaren kudeaketari lotutako ISO 14.001 ere (% 0,8).


Ziurtagiria lortu duten erakunde gehienek ezaugarri hauek dituzte: Enpleguaren eta Gizarte Ekintzaren alorrekoak dira, 50 pertsona baino gehiago dituzte beren pertsonalean, 60.000€ baino gehiago mugitzen dituzte, kalitateaz arduratzen den pertsona bat dute, eta Kalitate-plana ere bai, edo horri lotutako ekintzak gauzatzen dituzte.

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK (IKT)

Kopuru orokorrekin adierazten dutenez, erakundeen % 84,2k maiztasun handiz erabiltzen ditu tresna informatikoak; proportzio horrek gora egin du 2007koaren aldean, zeren garai hartan erakundeen % 66,3 soilik baitzegoen egoera horretan.

Neurri bereko aurrerapena ikus daiteke posta elektronikoaren erabileran; hala, esan daiteke erakundeen % 87,1ek jadanik erabiltzen duela normaltasunez bere lanerako. Halaber, proportzioa txikiagoa bada ere, erdiek baino gehiagok (% 57,7) badute webgunea.

9.2. Grafikoa. Erakundeen banaketa IKTen erabileraren arabera, parametro batzuk irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.



Beste alderdi espezifikoago batzuek desberdintasun nabariagoak erakusten dituzte erakundeen artean. Desberdintasuna markatzen duten faktoreak erakundearen tamaina eta –batez ere– bolumen ekonomikoa dira. Hala, orokorrean, zeregin informatikoak gautzeko pertsonala kontratatuta duten erakundeak % 11,7 soilik izan arren, 60.000€ eta 300.000€ bitarteko diru-sarrerak dituzten erakundeek kasuan % 30,8ra igotzen da proportzio hori.

Eremuen arabera, Kulturak eta Eremu Zibikoak batez besteko orokorraren azpiko balioak dituzte; Gizarte Ekintza, Ingurumen, Enplegu eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak, berriz, batez bestekoaren gainetik daude IKTen ezarpenari dagokionez.


9.5. Taula. *Teknologia berriak erabiltzen dituzten erakundeek proportzioa, parametro batzuk irizpidetzat hartuta, jarduera-eremuaren eta bolumen ekonomikoaren arabera. Baiezkoen ehunekoak.*

	Tresna informa- tikoak maiztasunez erabiltzen ditugu	Posta elektronikoa maiz erabiltzen dugu gure lanerako	Erakundeak badu webgunea.	Badugu domeinu propioa erakunde- arentzat	Behar duten guztiak badute ordenagailua beren lanerako	Badugu sare informatiko bat	Badugu intranet bat	Gure erakunde- aren informazioa datu-base informatizatu batean dago jasota	Badugu pertsonal kontratatu zeregin informa- tikoak gauzatzeko	Badugu aurrekontu-sail espezifiko bat aplikazio eta tresna berriak garatzeko	
OROKORRAK [K=224-338]	84,2	81,7	57,7	40,6	47,2	32,1	14,3	45,6	11,7	9,5	
JARDUEA-EREMUA [K=224-338]	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	95,5	100	77,3	60	61,9	55	14,3	63,2	0,0	6,7
	Zibikoa	70	57,1	25,8	23,2	20,9	8,7	3,7	25,8	8,5	12,1
	Kultura	76,4	75,6	52,9	23,8	32,9	15,6	1,6	29,5	5,8	6,1
	Enplegua	100	88,9	55,6	57,1	77,8	77,8	50	71,4	66,7	60
	Gizarte Ekintza	94,3	92,9	72,9	57,7	74,3	57,1	38,8	66,2	20,4	16,3
	Ingurumena	100	100	90,9	85,7	60	25	0,0	37,5	16,7	0,0
	Aisialdia	91,7	87,5	45,5	36,4	54,5	39,1	9,1	38,1	8,3	0,0
	Osasuna	91,9	97,3	80,6	57,9	48,6	35,1	18,2	68,6	14,3	0,0
	Giza Eskubideak	80	100	80	75	60	40	25	60	0,0	0,0
BOLUMEN EKONOMIKOA [K=224-338]	12.000€ baino gutxiago	71,9	70,1	41,5	24,2	23,6	11,8	4,1	25	1,0	3,8
	12.001€ - 60.000€	91,1	85,9	57,7	37,0	41,3	16,2	5,3	45,2	9,4	9,8
	60.001€ - 300.000€	92,9	95,3	73,8	65,5	73,8	56,1	33,3	68,3	30,8	12
	300.001€ - 1.500.000€	100	100	86,2	72,2	90	86,7	53,8	78,6	25	10,5
	1.500.000€ baino gehiago	100	95	95	77,8	85	90	53,3	89,5	46,2	58,3

IKTak maiztasun handiz edo maiztasunez erabiltzen dira: barneko eta kanpoko informazioa kudeatzeko (% 71,2), gizarte-oinarria kudeatzeko (% 60,8), kudeaketa ekonomiko eta finantzariorako (% 59,8), barneko parte-hartzea sustatzeko (% 57,9) eta erabiltzaileekin edo kide diren erakundeekin komunikatzeko (% 54,9).

Beste alde batetik, erakundeek erdiek baino gehiagok diote ez dituztela inoiz ere erabiltzen kolaborazio-lana gauzatzeko, ezta eragin politikoa duten ekintzetan ere.

9.3. Grafikoa. *Erakundeen banaketa, teknologia berrien erabileraren maiztasunaren arabera, helburua irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.*



[K=202-232]

Datu desagregatuen azterketak arrastoak ematen ditu gabezia handiagoak dituzten erakundeen ezauzgarriez. Hala, eremu Zibikoko eta Giza Eskubideen eremuko erakundeen artean, erdiek baino gutxiagok erabiltzen dituzte IKTak barneko parte-hartzea sustatzeko. Halaber, eremu Zibikoa da gutxien erabiltzen dituen gizarte-oinarria kudeatzeko edo pertsona erabiltzaileekin komunikatzeko.

Gizarte Ekintza, Osasun eta Kulturaren alorreko erakundeak batez bestekotik gertu daude teknologia horiek erabiltzaileekin komunikatzeko erabiltzeari dagokionez (% 50ek eta % 53,6k egiten dute, hurrenez hurren), baina nahiko urrun daude Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren edo Ingurumenaren alorreko erakundeetatik, horien erabilera % 85etik gorakoa baita horrelako xedeetarako.

9.6. Taula. *Teknologia berriak maiztasunez edo maiztasun handiz erabiltzen duten erakundeen proportzioa, beren xedearen arabera, jarduera-eremua irizpidetzat hartuta. Baiezkoen ehunekoak.*

	Barneko parte-hartzea sustatzea	Gizarte-oinarria kudeatzea	Kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa	Komunikazioa pertsona erabiltzaileekin, kide diren erakundeekin, etab.	Finantziatzaileekin komunikatzea	Eragin politikoa	Kolaborazio-lana	Barneko eta kanpoko informazioaren kudeaketa
OROKORRAK [K=224-338]	57,9	60,8	59,8	54,9	36,8	23,3	26,3	71,2
JARDUERA-EREMUA [K=224-338]								
Garapenerako Nazioarteko Lankidetzatza	76,5	94,7	75,0	86,7	76,9	57,1	50,0	80,0
Zibikoa	40,4	42,3	56,6	42,3	22,0	19,6	16,0	67,3
Kultura	52,2	56,6	42,0	53,1	21,7	9,1	22,4	53,1
Enplegua	57,1	66,7	100,0	40,0	50,0	25,0	60,0	100,0
Gizarte Ekintza	67,3	62,7	76,5	50,0	53,1	25,6	33,3	82,4
Ingurumena	57,1	85,7	66,7	85,7	40,0	33,3	33,3	100,0
Aisialdia	91,7	83,3	58,3	83,3	41,7	25,0	33,3	75,0
Osasuna	63,0	60,7	53,8	53,6	40,7	29,2	20,8	73,1
Giza Eskubideak	25,0	50,0	25,0	75,0	0,0	25,0	0,0	50,0

KOMUNIKAZIOA

Komunikazioak funtsezko garrantzia du edozein erakunderentzat. Hirugarren Sektoreko erakundeek kasuan, garrantzi berezia hartzen du erakundearen jardueren sartuta edo interesatuta dauden taldeekiko loturak, batez ere beren jardunaren xede diren pertsonekin daudenak, horiexek baitira, azken batean, erakundea legitimatzen dutenak.

Hamar erakundetatik ia zazpi diote jardueren oroitidazkia egiten dutela urtero, bazkideei edo kide diren erakundeek helarazteko. Gainera, % 48,1ek dio oroitidazkia bere finantzatzaileei edo dohaintza-emailei ere helarazten diela.

Gisa berean, erakundeek bazkide diren pertsonak edo erakundeak dira beren kontuen egoerari buruz erakundeek jakinarazten duten informazioaren hartzaileak (erakundeek % 70ek informazio hori eskaini die erregulartasunez). Informazio hori inplikaturako beste erakunde batzuekin konpartitzen duten erakundeek proportzioa askoz ere txikiagoa da.

Erakundeek misioa eta balioak ere bazkideekin eta boluntarioekin konpartitzen dira bereziki, baina azpimarratu behar da hori egiten duten erakundeak ez direla iristen osoko kopuruaren % 50era.

Beste alde batetik, beren ekintzen eraginari eta beren helburuen betetze mailari buruzko informazioa boluntarioei eta hartzaileei helarazten dieten erakundeek ehunekoak apal samarrak dira.


Hedabideak dira erakundeari buruzko ohiko informazioa gutxien helarazten zaien eragilea, informazio horren mota zeinahi delarik ere. Orobat, nolabaiteko defizita antzematen da gizarte orokorrari transmititzen zaion informazioari dagokionez. Erakundeek % 21,1ek soilik plazaratu ohi du bere jardueren oroitidazkia, eta % 24,5ek hedatzen du bere ekintzen eraginari buruzko informazioa.

9.7. Taula. *Erakundeek inplikaturak dauden kolektiboek informazioa erregulartasunez helarazten dieten erakundeek proportzioa, informazio motaren arabera. Baiezkoen ehunekoak.*

		Jarduerei buruzko urteko oroitidazkia	Kontuen egoera	Erakundearen misioa eta balioak	Gobernu-organoen osaketa	Erakundeoko pertsonen adierazleak	Helburuen betetze maila	Beren ekintzen eragina
INPLIKATURAKO KOLEKTIBOAK [K=237]	Gizartea, orokorrean	21,1	16,0	36,3	17,3	10,1	13,1	24,5
	Pertsona hartzaileak	27,4	15,2	33,3	23,2	11,0	21,5	26,6
	Boluntarioak	42,6	30,8	36,7	36,3	17,7	35,0	34,2
	Bazkide diren pertsonak/erakundeak	67,5	70,0	48,5	63,3	30,0	56,5	52,7
	Finantzizatzaileak/dohaintza-emaileak	48,1	41,4	35,0	37,6	21,1	34,2	34,6
	Beste erakunde batzuk	19,0	11,8	24,1	16,5	6,3	13,5	16,5
	Hedabideak	9,3	3,0	18,1	9,7	4,2	6,8	16,5

Lau erakundetatik hiruk –gutxi gorabehera- dio komunikazio-kanpainaren bat egiten duela, eta % 36,1en kasuan kanpainak erakundeen ohiko praktika dira –zifra horiek eta 2007koak berdintsuak dira-.

9.4. Grafikoa. Erakundeen banaketa, azken urteotan komunikazio-kanpainak egin izana irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.




[K=237]

Eremuen arabera datuak aztertuz gero, ikus daiteke eremu jakin batzuetako erakundeek ohitura handiagoa dutela komunikazio-kanpainak egiteko: Giza Eskubideak, Osasuna, Ingurumena eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak.

12.000etik beherako aurrekontua duten erakundeek tasa txikiagoak dituzte, eta badirudi aurrekontua igozen den neurrian gora egiten duela kanpainak egiteko probabilitateak ere.

9.5. Grafikoa. Erakundeen banaketa, azken urteotako komunikazio-kanpainen maiztasunaren arabera, jarduera-eremuaren arabera. Ehunekoak.




Komunikazio-kanpainak egiteko erakundeek gehien erabiltzen dituzten euskarriak hauek dira: kartelak (% 44), hitzaldiak edo solasaldiak (% 41,3), informazio-orriak (% 40,6), bidalketa elektronikoak (% 38) eta internet (% 34,6).

Kanpainak egiteari dagokionez, aipatu behar da posta elektronikoaren bidezko bidalketak erabiltzen dituzten erakundeek ehunekoa posta arrunta erabiltzen dutenena baino handiagoa dela honezkero (% 27). Hedabideen erabilerari dagokionez, % 23,4k dio tokiko prentsa erabiltzen duela, % 15,8k tokiko irratiak erabiltzen dituela eta % 12k tokiko telebista.

2007an gertatzen zen bezala, hamar erakundetatik zortzik baino gehiagok erakundea ezagutarazi nahi dute beren komunikazio-kanpainen bidez.


Kanpainak bestelako xedeez egiten dituzten erakundeen proportzioa nabarmenki txikiagoa da: % 62,7k sentsibilizazio-kanpainak gauzatzen dituzte, % 19k toki administrazioetan eragina izateko (*lobby*) eta % 18,7 dirua biltzeko. Azken kasu horien ehunekoak 2007koak baino apur bat handiagoak dira, zeren urte hartan % 17,5 eta % 14 izan baitziren, hurrenez hurren.

9.6. Grafikoa. *Komunikazio-kanpainak helburu jakin batez egiten dituzten erakundeen proportzioa, kanpaina horiek egiten dituzten erakundeen osoko kopurua erreferentziatzat hartuta. Ehunekoak.*



Dirudienez, erakundeen kanpainen helburu nagusien artean ez dago ez dirua biltzea ez *lobby*a. Salbuespen esanguratsuak dira Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren alorreko erakundeak, zeren horien % 52,6k baitio dirua biltzeko kanpainak egiten dituela, eta Ingurumenaren eremukoak, horien % 50ek *lobby*-kanpainak egiten dituela adierazten baitu.

9.7. Grafikoa. Dirua biltzeko kanpainak dituzten erakundeen proportzioa eta lobby-kanpainak gauzatzen dituzten erakundeen proportzioa, jarduera-eremuaren arabera. Baiezkoen ehunekoak.



10. Erakundeen harremanak

ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN SUSTATUTAKO PARTE-HARTZE EKIMENAK

Erakundeen % 37,6k dio noizbait parte hartu duela administrazio publikoen sustatutako parte-hartze ekimenen batean: kontseiluak, planak lantzea eta ebaluatzea, edo gisa bereko beste ekimen batzuk -2007an, ehuneko berdintsua erregistratu zen-.

Gizarte Ekintzaren eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren eremuko erakundeak dira horrelako ekimenetan gehien parte hartzen dutenak.

10.1. Taula. *Administrazio publikoen sustatutako parte-hartze ekimenetan parte hartu duten erakundearen proportzioa, jarduera-eremuaren arabera. Baiezkoen ehunekoak*

		Parte hartu dute
OROKORRAK [K=330]		37,6
JARDUERA-EREMUA [K=330]	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	60,0
	Zibikoa	44,3
	Kultura	20,0
	Enplegua	25,0
	Gizarte Ekintza	61,3
	Ingurumena	41,7
	Aisialdia	28,6
	Osasuna	26,3
	Giza Eskubideak	25,0

HARREMANA EDO LANKIDETZA INGURUNEKO ERAGILEEKIN

Erakundeen eta beren ingurunearen arteko harremanak ezagutzeko xedez, kanpoko beste eragile batzuekin dituzten harreman guztiak aipatzeko eskatu zitzaizkien erakundeei, kasu bakoitzean duten harremanaren arabera.

Oro har, datuek erakusten dute administrazio publikoarekin dagoen lotura beste edozein eragilearekin dagoena baino handiagoa dela. Hala, erakundeen % 94,5ek baditu harremanak administrazio publikoarekin, era desberdineko helburuetarako. Erakundeen parte garrantzitsu batek dio ez duela inolako harremanik edo lankidetzarik izan erakunde erlijiosoekin (% 67,8) edo enpresekin (% 57,9).

Administrazio publikoarekiko harremanek zerikusia dute, neurri handi batean, finantziarioarekin, informazioaren bidalketarekin eta lokalen lagapenarekin; dena dela, zerbitzu jakin bat emateko xedez administrazioak kontratatu dituen erakundearen proportzioa ere bada esanguratsua.

10.2. Taula. *Administrazio publikoekin harremanak izan dituzten erakundeen proportzioa, harreman motaren eta harremanaren norabidearen arabera. Baiezkoen ehunekoak.*²⁴

ADMINISTRATIO PUBLIKOA		
Administrazio publikoarekin harremanik ez duten erakundeak ²⁴ [K=382]		4,7
Harreman mota	Norabidea	Harremanak dituzten erakundeen gaineko % [K=307]
Lokalak	<i>Lokalak utzi dizkigute</i>	59,6
	<i>Lokalak utzi dizkiegu</i>	1,3
Kontsulta Organoak	<i>Gure organoetan parte hartzen dute</i>	3,9
	<i>Haien organoetan parte hartzen dugu</i>	13,4
Gobernu Organoak	<i>Gure organoetan parte hartzen dute</i>	1,6
	<i>Haien organoetan parte hartzen dugu</i>	2,9
Aholkularitza	<i>Aholkua ematen digute</i>	19,2
	<i>Aholkua ematen diegu</i>	13,7
Dohaintzak eta diru-laguntzak	<i>Dohaintzak edo diru-laguntzak eman dizkigute</i>	78,2
	<i>Dohaintzak eta diru-laguntzak eman dizkiegu</i>	0,3
Zerbitzuak kontratatzea	<i>Gure zerbitzuak kontratatu dituzte</i>	26,7
	<i>Haien zerbitzuak kontratatzen ditugu</i>	1,0
Informazioa	<i>Informazioa bidaltzen digute</i>	63,5
	<i>Informazioa bidaltzen diegu</i>	44,0
Zerbitzu eta proiektuen eskaintza bateratua		18,9
Sentsibilizazio-kanpainak elkarrekin egitea		18,2
Elkarrekin lan egitea sektorearen interes komunekoa gaitan		4,6
Finantziarioa bilatzea		15,6
Beste lankidetzak puntual batzuk		20,8
Bestelako harremanen bat administrazio publikoarekin		1,0

Ia erakundeen erdiek (% 47,9) aitortzen dute ez dutela inolako harremanik edo lankidetzarik enpresa-sektorearekin. Horrelako harremanak dituztenen artean, lotura horien gaiak hauexek izaten dira: informazioa, zerbitzuen kontratazioa edo dohaintzak edo laguntzak ematea.

²⁴ Ehuneko hori kalkulatzeko, ez dakitenak eta erantzuten ez dutenak ere sartu ditugu barne; izan ere, kontsideratu da ezezeko erantzunekin egon daitezkeela lotuta eta kanpoan utziz gero gehiago desbidera daitezkeela azkeneko ehunekoak.

10.3. Taula. *Enpresekin harremanak izan dituzten erakundeen proportzioa, harreman motaren arabera eta harremanaren norabidearen arabera. Baiezkoen ehunekoak.*

ENPRESAK		
Enpresekin harremanik ez duten erakundeak [K=382]		47,9
Harreman mota	Norabidea	Harremanak dituzten erakundeen gaineko % [K=133]
Lokalak	<i>Lokalak utzi dizkigute</i>	10,5
	<i>Lokalak utzi dizkiegu</i>	1,5
Kontsulta Organoak	<i>Gure organoetan parte hartzen dute</i>	1,5
	<i>Haien organoetan parte hartzen dugu</i>	2,3
Gobernu Organoak	<i>Gure organoetan parte hartzen dute</i>	2,3
	<i>Haien organoetan parte hartzen dugu</i>	0,8
Aholkularitza	<i>Aholkua ematen digute</i>	18,0
	<i>Aholkua ematen diegu</i>	10,5
Dohaintzak eta diru-laguntzak	<i>Dohaintzak edo diru-laguntza eman dizkigute</i>	31,6
	<i>Dohaintzak eta diru-laguntzak eman dizkiegu</i>	1,5
Zerbitzuak kontratatzea	<i>Gure zerbitzuak kontratatu dituzte</i>	18,8
	<i>Haien zerbitzuak kontratatzen ditugu</i>	36,1
Informazioa	<i>Informazioa bidaltzen digute</i>	48,1
	<i>Informazioa bidaltzen diegu</i>	35,3
Zerbitzu eta proiektuen eskaintza bateratua		8,3
Sentsibilizazio-kanpainak elkarrekin egitea		5,3
Elkarrekin lan egitea sektorearen interes komunekiko gaietan		2,3
Finantziazioa bilatzea		13,5
Beste lankidetzat puntual batzuk		18,0
Bestelako harremanen bat enpresekin		3,8

Erakunde gehienek sektoreko beste erakunde batzuekin dituzte harremanak, baina esanguratsua da horien % 23,6k ez duela inolako eraginik sektoreko gainerako erakundeekin; beraz, horrek esan nahi du sektoreko erakundeen arteko loturen sorrerak erronka izaten jarraitzen duela. Harremanak dituztenen kasuan, berriz, ikus daiteke harremanen oinarria informazioaren trukea eta elkarrenganako aholkularitza direla.

10.4. Taula. *Irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuekin harremanak izan dituzten erakundeen proportzioa, harreman motaren arabera eta harremanaren norabidearen arabera. Baiezkoen ehunekoak.*

IRABAZI-ASMORIK GABEKO BESTE ERAKUNDE BATZUK		
Irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuekin harremanik ez duten erakundeak [K=382]		23,6
Harreman mota	Norabidea	Harremanak dituzten erakundeen gaineko % [K=232]
Lokalak	<i>Lokalak utzi dizkigute</i>	23,7
	<i>Lokalak utzi dizkiegu</i>	9,9
Kontsulta Organoak	<i>Gure organoetan parte hartzen dute</i>	9,1
	<i>Haien organoetan parte hartzen dugu</i>	12,1
Gobernu Organoak	<i>Gure organoetan parte hartzen dute</i>	8,6
	<i>Haien organoetan parte hartzen dugu</i>	10,8
Aholkularitza	<i>Aholkua ematen digute</i>	34,5
	<i>Aholkua ematen diegu</i>	22,0
Dohaintzak eta diru-laguntzak	<i>Dohaintzak edo diru-laguntza eman dizkigute</i>	15,9
	<i>Dohaintzak eta diru-laguntzak eman dizkiegu</i>	8,2
Zerbitzuak kontratatzea	<i>Gure zerbitzuak kontratatatu dituzte</i>	21,6
	<i>Haien zerbitzuak kontratatzen ditugu</i>	15,1
Informazioa	<i>Informazioa bidaltzen digute</i>	70,3
	<i>Informazioa bidaltzen diegu</i>	51,7
Zerbitzu eta proiektuen eskaintza bateratua		25
Sentsibilizazio-kanpainak elkarrekin egitea		28,4
Elkarrekin lan egitea sektorearen interes komunekoa gaitan		14,2
Finantziak bilatzea		9,9
Beste lankidetzak puntual batzuk		33,6
Bestelako harremanen bat irabazi-asmorik gabeko erakundeekin		1,7

Bigarren edo hirugarren mailako erakunderen batekin harremanak edo lankidetzak dituzten erakundeak hamarretatik sei izan litezke ia (Erakunde % 63,4k ez du kontraktorik esan). Sareren batekin harremanak izan dituztela berretsi duten erakundeen arteko lotura nagusia informazioaren trukea da. Gainera, bost erakundetatik batek aitortzen du sare horiekin lan egin duela sektorearentzat interes komuna duten gaitan.

10.5. Taula. *Bigarren edo hirugarren mailako erakundeekin (sareak) harremanak izan dituzten erakundearen proportzioa, harreman motaren eta harremanaren norabidearen arabera. Baiezkoen ehunekoak.*

BIGARREN EDO HIRUGARREN MAILAKO ERAKUNDEAK (SAREAK)		
Bigarren edo hirugarren mailako erakundeekin (sareak) harremanik ez duten erakundeak [K=382]		36,6
Harreman mota	Norabidea	Harremanak dituzten erakundearen gaineko % [K=161]
Lokalak	Lokalak utzi dizkigute	3,7
	Lokalak utzi dizkiegu	3,1
Kontsulta Organoak	Gure organoetan parte hartzen dute	3,7
	Haien organoetan parte hartzen dugu	8,1
Gobernu Organoak	Gure organoetan parte hartzen dute	0,6
	Haien organoetan parte hartzen dugu	6,8
Aholkularitza	Aholkua ematen digute	11,8
	Aholkua ematen diegu	8,7
Dohaintzak eta diru-laguntzak	Dohaintzak edo diru-laguntza eman dizkigute	1,2
	Dohaintzak eta diru-laguntzak eman dizkiegu	1,9
Zerbitzuak kontratatzea	Gure zerbitzuak kontratatu dituzte	2,5
	Haien zerbitzuak kontratatzen ditugu	1,2
Informazioa	Informazioa bidaltzen digute	32,9
	Informazioa bidaltzen diegu	25,5
Zerbitzu eta proiektuen eskaintza bateratua		10,6
Sentsibilizazio-kanpainak elkarrekin egitea		16,8
Elkarrekin lan egitea sektorearen interes komuneko gaitan		20,5
Finantziazioa bilatzea		6,8
Beste lankidetzak puntual batzuk		12,4
Bestelako harremanen bat bigarren edo hirugarren mailako erakundeekin (sareak)		25,5

Erakundearen proportzio mardul batek (% 56,3) dio ez duela inolako harremanik erakunde erlijiosoekin. Harremana dutenen kasuan, horren gai nagusia lokala uztea eta informazioa pasatzea da.

10.6. Taula. *Erakunde erlijiosoekin harremanik ez duten erakundeen proportzioa, harreman motaren eta harremanaren norabidearen arabera. Baiezko ehunekoak.*

ERAKUNDE ERLIJIOSOAK		
Erakunde erlijiosokoekin harremanik ez duten erakundeak [K=382]		56,3
Harreman mota	Norabidea	Harremanak dituzten erakundeen gaineko % [K=102]
Lokalak	<i>Lokalak utzi dizkigute</i>	52,9
	<i>Lokalak utzi dizkiegu</i>	3,9
Kontsulta Organoak	<i>Gure organoetan parte hartzen dute</i>	17,6
	<i>Haien organoetan parte hartzen dugu</i>	12,7
Gobernu Organoak	<i>Gure organoetan parte hartzen dute</i>	20,6
	<i>Haien organoetan parte hartzen dugu</i>	6,9
Aholkularitza	<i>Aholkua ematen digute</i>	21,6
	<i>Aholkua ematen diegu</i>	14,7
Dohaintzak eta diru-laguntzak	<i>Dohaintzak edo diru-laguntza eman dizkigute</i>	21,6
	<i>Dohaintzak eta diru-laguntzak eman dizkiegu</i>	4,9
Zerbitzuak kontratatzea	<i>Gure zerbitzuak kontratatu dituzte</i>	10,8
	<i>Haien zerbitzuak kontratatzen ditugu</i>	1,0
Informazioa	<i>Informazioa bidaltzen digute</i>	48,0
	<i>Informazioa bidaltzen diegu</i>	43,1
Zerbitzu eta proiektuen eskaintza bateratua		12,7
Sentsibilizazio-kanpainak elkarrekin egitea		21,6
Elkarrekin lan egitea sektorearen interes komuneko gaietan		6,9
Finantziak bilatzea		5,9
Beste lankidetzak puntual batzuk		31,4
Bestelako harremanen bat Erakunde Erlijiosoekin		3,9


Erakundeen % 47,1ek dio ez duela inolako harremanik Aurrezki-Kutxen Gizarte-ekintzekin. Harreman hori duten erakundeek kasuan, loturaren gai nagusiak finantziak eta informazio-trukea dira.

10.7. Taula. Aurrezki-kutxen Gizarte-ekintzarekin harremanak izan dituzten erakundeen proportzioa, harreman motaren arabera eta harremanaren norabidearen arabera.

AURREZKI-KUTXEN GIZARTE-EKINTZAK		
Aurrezki-kutxen gizarte-ekintzekin harremanik ez duten erakundeak [K=382]		47,1
Harreman mota	Norabidea	Harremanak dituzten erakundeen gaineko % [K=141]
1 mm	<i>Nos han cedido locales</i>	14,9
	<i>Les hemos cedido locales</i>	1,4
Órganos consultivos	<i>Participan en nuestro órganos</i>	0,0
	<i>Participamos en sus órganos</i>	0,7
Órganos de Gobierno	<i>Participan en nuestro órganos</i>	2,1
	<i>Participamos en sus órganos</i>	1,4
Asesoramiento	<i>Nos asesoran</i>	5,0
	<i>Les asesoramos</i>	4,3
Donativos y subvenciones	<i>Nos han concedido donativos o subvenciones</i>	64,5
	<i>Les hemos concedido donativos y subvenciones</i>	0,0
Contratar servicios	<i>Han contratado nuestros servicios</i>	5,7
	<i>Contratamos sus servicios</i>	2,1
Información	<i>Nos envían información</i>	55,3
	<i>Les enviamos información</i>	34,8
Oferta conjunta de servicios o proyectos		7,1
Realización conjunta de campañas de sensibilización		12,1
Trabajo en común sobre temas de interés común del sector		0,7
Búsqueda de financiación		13,5
Otras colaboraciones puntuales		13,5
Otra relación con la Obra Social de la Cajas de Ahorro		3,5

Erakundeen proportzio esanguratsu batek administrazio publikoak utzitako lokalak erabiltzen ditu, edo irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuek eta Aurrezki-kutxen Gizarte-ekintzak utzitako lokalak. Beste alde batetik, aholkularitza bilatzen dutenean, erakundeek sektoreko beste erakunde batzuetara eta administrazio publikora jotzen dute. Haien zerbitzuak administrazioak kontratatzen ditu gehienbat, edo sektoreko beste erakunde batzuek. Eta informazioa administrazio publikoarekin eta sektoreko beste erakunde batzuekin trukatzeko dute batik bat.

10.1. Grafikoa. *Eragileren batekin harremanak izan dituzten erakundeen proportzioa, motaren, norabidearen eta eragilearen arabera. Baiezkoen ehunekoak.*²⁵



²⁵ Ehuneko hori kalkulatzeko, ez dakitenak eta erantzuten ez dutenak ere sartu ditugu barne; izan ere, kontsideratu da ezezko erantzunekin egon daitezkeela lotuta eta kanpoan utziz gero gehiago desbidera daitezkeela azkeneko ehunekoak.

Harremanak jarduera-eremuaren arabera aztertzen badira, azpimarratzekoa da Enpleguaren eremuko erakundeek lankidetzat handiagoa dutela enpresa-sektorearekin; eremu Zibikoko erakundeek, aldiz, gainerako eremuetakoek baino harreman gutxiago dituzte enpresekin. Gainera, eremu Zibikoko eta Kulturaren eremuko erakundeek harreman gutxiago dituzte sektoreko beste erakunde batzuekin, eta horrelako harremanak neurri handienez dituztenak Enplegu, Giza Eskubide eta Gizarte Ekintzaren eremuko erakundeak dira. Azkenik, Aisialdiaren eremuko erakunde gehienek loturak dituzte erakunde erlijiosoekin, eta horrela erakundeekin harreman gutxien dituztenak Osasunaren eremuko erakundeak dira.

10.8. Taula. *Bere ingurunean eragileekin harremanik izan ez duten erakundearen proportzioa, jarduera-eremuaren arabera. Baiezkoen ehunekoak.*²⁶

[K=382]	OROKORRA	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzat	Zibikoa	Kultura	Enplegua	Gizarte Ekintza	Ingurumena	Aisialdia	Osasuna	Giza Eskubideak
Ez dago inolako lankidetzarik/harremanik administrazio publikoarekin	4,7	0,0	7,7	7,4	0,0	2,7	0,0	0,0	5,0	0,0
Ez dago inolako lankidetzat-harremanik ezekin enpresarekin	47,9	34,6	65,4	52,8	18,2	30,7	41,7	42,3	57,5	33,3
Ez dago inolako harremanik irabazi-asmorik gabeko beste erakunderen batekin	23,6	15,4	38,5	31,5	0,0	8,0	16,7	26,9	17,5	0,0
Ez dugu inolako harremanik izan bigarren edo hirugarren mailako erakundeekin (sareak)	36,6	11,5	46,2	52,8	0,0	21,3	8,3	50,0	30,0	33,3
Ez dugu inolako harremanik izan ezekin erakunde erlijiosorekin	56,3	38,5	71,8	61,1	54,5	45,3	75,0	19,2	72,5	0,0
Ez dago inolako harremanik Gizarte Ekintzarekin	47,1	30,8	51,3	62,0	36,4	29,3	50,0	53,8	40,0	50,0


ZENBAIT ERAGILEREN SOSTENGUA

Beren Ingurunean eragileen aldetik jasotzen duten sostenguari dagokionez, erakundearen balorapen orokorra da –lehen bezala– sostengu hori txikia dela; hala eta guztiz ere, eragile horietako batek sostengu handia edo oso handia ematen diela uste duten erakundearen ehunekoa % 56,4 da, eta 2010ean egindako balorapenak 2007ko datuak hobetzen ditu, batez ere Udalen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Aurrezki-kutxen Gizarte-ekintzaren aldetik jasotako sostenguen kasuan.

2007an bezala, erakundeek uste dute Bizkaiko Foru Aldundia dela erakundeei gehien laguntzen dien instituzioa. Aurrezki-kutxen Gizarte-ekintzak bigarren postuan egon ziren 2010ean, balorapen positiboari dagokionez, zeren erakundearen % 48,8k uste baitu eragile horren sostengua handia edo oso handia dela. Hirugarren postuan, sektoreko beste erakunde batzuen sostengua azpimarratu genezake; izan ere, erakundearen % 47,2k dio sostengu handia edo oso handia jasotzen duela haien aldetik. Kontrako muturrean, erakundeek diotenez, alderdi politikoak, sindikatuak eta enpresak dira sostengu gutxien ematen duten eragileak.

²⁶ Ehuneko hori kalkulatzeko, ez dakitenak eta erantzuten ez dutenak ere sartu ditugu barne; izan ere, kontsideratu da ezezko erantzunekin egon daitezkeela lotuta eta kanpoan utzi gero gehiago desbidera daitezkeela azkeneko ehunekoak.

10.2. Grafikoa. *Erakundeen banaketa, eragileen aldetik jasotako sostenguen balorapenaren arabera. Ehunekoak.*




Jarduera-eremuaren arabera, ikus daiteke Ingurumenaren alorreko erakundeek satisfazio txikiagoa erakusten dutela Bizkaiko Foru Aldundiak eta Aurrezki-kutxetako Gizarte-ekintzek emandako sostenguen aurrean. Giza Eskubideen eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren alorreko erakundeek, aldiz, satisfazio maila handiena azaltzen dute bi eragile horiei dagokienez.

GIZARTEAREN KONFIANTZA

Kontsultatutako erakundeen artean, gizarteak eurenganako konfiantza duela uste duten erakundeen proportzioa eta kontrako iritzia dutenen proportzioa berdintsuak dira; egia da, dena dela, erakundeen erdiek baino apur bat gehiagok (% 56) kontsideratzen dutela sektoreak gizarte-konfiantza nahikoa edo handia duela -2007an, proportzioa % 53,2 zen-.

10.3. Grafikoa. Erakundeen banaketa, gizarteak sektoreko erakundeengan duen konfiantzari buruz duten iritzia irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.



[K=284]

Osasunaren eta Gizarte Ekintzaren eremuko erakundeak dira balorapen positiboena egiten dutenak gizarteak sektorean duen konfiantzaz; ezkorrenak, berriz, Giza Eskubideen eremukoak dira, alde handiz.

10.9. Taula. Erakundeen banaketa, gizarteak sektoreko erakundeengan duen konfiantzari buruz duten iritzia irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.

		Ezer ez	Txikia	Nahikoa	Handia
OROKORRAK [K=284]		1,4	42,6	50,4	5,6
JARDUERA-EREMUA [K=284]	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	0,0	47,8	43,5	8,7
	Zibikoa	3,3	45,0	46,7	5,0
	Kultura	1,5	46,3	50,7	1,5
	Enplegua	0,0	37,5	62,5	0,0
	Gizarte Ekintza	0,0	34,4	59,4	6,3
	Ingurumena	0,0	54,5	45,5	0,0
	Aisialdia	0,0	50,0	40,9	9,1
	Osasuna	3,7	29,6	51,9	14,8
	Giza Eskubideak	0,0	100,0	0,0	0,0


11. Sektorearen egituraketa

BIGARREN MAILAKO ERAKUNDEAK

Jasotako datuek adierazten dutenez, bigarren eta hirugarren mailako erakundeak sektoreko erakundeen % 5,7 inguru izan daitezke (hain zuzen ere, bigarren mailako 20 erakunderi egin ahal izan diegu inkesta); dena dela, horrelako erakundeek probabilitate handiagoa dutenez inkestari erantzuteko, beharrezkoa da proportzio globala erlatibizatzea.


Dirudienez, bigarren eta hirugarren mailako erakundeen proportzioa –osoko kopuruaren proportzioa, alegia– handiagoa da Aisialdi, Enplegu, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzeta eta Gizarte Ekintzaren eremuetan.

11.1. Grafikoa. *Erakundeen banaketa beren mailaren arabera. Ehunekoa.*




Erakundeen % 44,8k esan du bigarren edo hirugarren mailako erakunderen baten kidea dela. 2007an, proportzio hori % 49 gzan zen.

11.2. Grafikoa. *Erakundeen banaketa, bigarren/hirugarren mailako erakundearen parte izatearen arabera.*



Eremuen arabera azterketak adierazten duenez, Enplegu, Gizarte Ekintza, Osasun eta Ingurumenaren eremuko erakundeek sareetan parte hartzeko joera handiagoa dute; gainerako eremuetan, berriz, ez da hain ohikoa erakundeek bigarren mailako erakundeak eratzea edo horrelako sareei atxikitzea.

11.3. Grafikoa. *Bigarren/hirugarren mailako erakundeen partaide diren erakundeen proportzioa, jarduera -eremuaren arabera. Baiezkoen ehunekoak.*²⁷




[K=382]

Horrelako erakunde edo sareen partaide izateko arrazoiei dagokienez, erakunde gehienek aipatzen dutena –bigarren edo hirugarren mailako erakundeen partaide diren artean- da aukera eskaintzen dutela izaera bereko erakundeekin kontaktatzeko (erakundeen % 97,6k dio hori). Baliabide ekonomikoak (% 45,6) edo legitimitatea (% 71,1) lortzea, berriz, erakundeen aldetik gutxien lehenesten den arrazoiak da.

Arrazoiei dagokienez, ez da desberdintasun esanguratsurik antzematen eremuen arabera, erakundeen taldetaren arabera, bolumen ekonomikoaren arabera, eta abar.

11.4. Grafikoa. *Bigarren edo hirugarren mailako erakundeen partaide diren erakundeen banaketa, sareen partaide izateko arrazoi bakoitzari ematen dioten garrantziaren arabera. Ehunekoak.*



[K=101-124]

■ Oso garrantzitsua ■ Nahiko garrantzitsua ■ Garrantzi gutxikoa ■ Garrantzirik gabekoa

²⁷ Oraingoan, ehunekoak kalkulatzeko kontuan hartu dira ez dakitenak eta erantzuten ez dutenak ere; izan ere, kontsideratu da probabilitate handia dagoela adierazi gabeko ezezko erantzunekin lotuta egoteko, eta, beraz, kanpoan utziz gero gehiago desbidera daitekeela azkeneko ehunekoak.

Bigarren edo hirugarren mailako erakundeen partaide izatea kontuan hartu gabe, erakundeei galdetu zaie noraino ezagutzen dituzten horrelako erakundeak; ikusi dugunez, erdiek baino gehiagok (% 55) ezin izan du identifikatu bigarren edo hirugarren mailako inolako erakunde ezagunik.

Bigarren edo hirugarren mailako erakunde ezagunak identifikatzea lortu duten erakundeen proportzioa handiagoa da eremu hauetan: Gizarte Ekintza (erakundeen % 62,7k ezagutzen du baten bat), Osasuna (% 55), Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak (% 50) eta Aisialdia (% 50).


11.1. Taula. *Bigarren mailako erakunderen bat ezagutzen duten oinarriko erakundearen proportzioa, jarduera-eremuaren arabera. Ehunekoak.*²⁸

		Bigarren mailako erakundeak ezagutzen dituzte
OROKORRAK [K=382]		45,0
JARDUERA-EREMUA [K=382]	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	50,0
	Zibikoa	37,2
	Kultura	33,3
	Enplegua	45,5
	Gizarte Ekintza	62,7
	Ingurumena	41,7
	Aisialdia	50,0
	Osasuna	55,0
	Giza Eskubideak	33,3

Orokorrean, bigarren eta hirugarren mailako erakunde ezagunenen artean hauexek daude: Euskadiko GGKEen Koordinakundea, Harresiak Apurtuz, Gizardatz/Hirekin, Euskalerriko Eskautak eta FEVASPACE.

Erakundearen % 30,4k uste du –proportzio nahiko apala– bigarren edo hirugarren mailako erakundeak “nahiko” edo “asko” ezagutzen direla, eta % 22,6k soilik uste du sareen artean dagoen lankidetzak maila egokia dela.


11.5. Grafikoa. *Erakundearen banaketa, sareen artean dagoen ezagutza mailari buruz duten iritziaaren arabera. Ehunekoak.*



[K=198]

²⁸ Oraingoan, ehunekoak kalkulatzeko kontuan hartu dira ez dakitenak eta erantzuten ez dutenak ere; izan ere, kontsideratu da probabilitate handia dagoela adierazi gabeko ezezko erantzunekin lotuta egotea, eta, beraz, kanpoan utziz gero gehiago desbidera daitekeela azkeneko ehunekoak.

11.6. Grafikoa. *Erakundeen banaketa, sareen artean dagoen lankidetza mailari buruz duten iritziaeren arabera. Ehunekoak.*



[K=186]


Ingurumen, Garapenerako Nazioarteko Lankidetza, Osasun eta Aisialdiaren eremuko erakundeak kritikoagoak dira sareen arteko ezagutza eta lankidetza mailaz egiten duten balorapenean.

11.2. Taula. *Erakundeen banaketa, sareen arteko ezagutza eta lankidetza mailari buruz duten iritziaeren arabera, bigarren mailako erakundeen partaidetza, pertsonalaren bolumena eta jarduera-eremua irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.*

		EZAGUTZEN DUTE ELKAR				LANKIDETZAN ARITZEN DIRA			
		Asko	Nahiko	Gutxi	Batere ez	Asko	Nahiko	Gutxi	Batere ez
OROKORRAK									
[Elkar ezagutzen dute K =198]		5,1	25,3	62,6	7,1	2,2	20,4	68,8	8,6
[Lankidetzan aritzen dira K =186]									
JARDUERA-EREMUA	Garapenerako Nazioarteko Lankidetza	0,0	18,2	81,8	0,0	0,0	20,0	80,0	0,0
	Zibikoa	2,1	23,4	63,8	10,6	0,0	18,6	67,4	14,0
	Kultura	6,4	17,0	63,8	12,8	4,4	20,0	62,2	13,3
	Enplegua	0,0	57,1	42,9	0,0	0,0	28,6	71,4	0,0
	Gizarte Ekintza	11,4	34,1	50,0	4,5	2,4	29,3	61,0	7,3
	Ingurumena	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0	100,0	0,0
	Aisialdia	0,0	26,7	66,7	6,7	0,0	30,8	61,5	7,7
	Osasuna	5,6	16,7	77,8	0,0	0,0	5,6	94,4	0,0
PERTSONALAREN BOLUMENA	Giza Eskubideak	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0	33,3	66,7	0,0
	10 pertsona baino gutxiago	4,8	15,9	69,8	9,5	3,4	11,9	72,9	11,9
	10 - 50 pertsona	4,4	27,5	61,5	6,6	0,0	25,6	65,1	9,3
	51 - 100 pertsona	10,0	35,0	0,0	55,0	10,0	20,0	70,0	0,0
	101 - 500 pertsona	0,0	27,3	72,7	0,0	0,0	30,0	60,0	10,0
	500 pertsona baino gehiago	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0	0,0
	[Elkar ezagutzen dute K =186]								
	[Lankidetzan aritzen dira K=176]								
BIGARREN MAILAKO ERAKUNDEEN PARTAIDE IZATEA									
Bigarren /hirugarren mailako erakunde baten partaidea da		7,8	33,3	52,9	5,9	3,1	27,8	62,9	6,2
[Elkar ezagutzen dute K=182]									
[Lankidetzan aritzen dira K=171]									
Ez da bigarren/ hirugarren mailako ezein erakunderen partaidea		2,5	12,5	77,5	7,5	1,4	9,5	77,0	12,2

Erakundeen aldetik gehien baloratzen den eginkizuna da lehen mailako erakundeen arteko trukea bultzatzea. Kontrako muturrean, erakundeek sareei gutxien egozten dizkieten eginkizunak dira “baliabideak lortzea lehen mailako erakundeentzat” eta “lehen mailako erakundeak beste eragile batzuen aurrean ordezkatzeta”.

11.7. Grafikoa. *Eginkizun bakoitza bigarren/hirugarren mailako erakundeen berezko eginkizun bezala aipatzen dituzten erakundeen proportzioa. Baiezkoen ehunekoak.*




SEKTOREEKO ERAKUNDEEN ARTEKO ELKAR-EZAGUTZA

Aipatu den bezala, erakundeen % 23,6k dio ez duela inolako harremanik sektoreko erakundeekin.

Horrekin bat etorritik, erakundeen % 70,2k uste du sektoreko erakundeen arteko ezagutza maila oso txikia dela. Orobat, hamar erakundetatik zortzik baino gehiagok uste du sektoreko erakundeek oso lankidetzat txikia dutela euren artean, edo ez dutela inolako lankidetzarik.


Hala eta guztiz ere, aipatu behar da 2007an are gehiago zirela ezagutza oso txikia zela edo ezagutzarik ez zegoela uste zuten erakundeak: % 78.

11.8. Grafikoa. *Erakundeen banaketa sektoreko erakundeen artean dagoen ezagutza mailari buruz duten iritziaeren arabera. Ehunekoak.*



[K=322]

11.9. Grafikoa. *Erakundeen banaketa, sektoreko erakundeen artean dagoen lankidetza mailari buruz duten iritzia ren arabera. Ehunekoak.*



[K=257]

Desberdintasunak oso handiak ez badira ere, badirudi sare baten partaide diren erakundeak kritikoago azaldu direla; bigarren edo hirugarren mailako erakunderen baten partaide ez direnen kasuan, berriz, badirudi baikorragoak direla sektoreko erakundeek beren artean ezartzen dituzten harremanei dagokienez.

ERAKUNDEEN HAUSNARKETAK

Sektoreko erakundeen artean dagoen harreman edo lankidetza eskasa justifikatzeko erakundeek eman dituzten arrazoiak sei bloke hauetan sailkatu daitezke:

1. *Denbora eta baliabide falta:* erakunde askorentzat, batez ere boluntarioz soilik osatuta daudenentzat, beste erakunde batzuekiko koordinazioak gehiegizko ahalegina eskatzen du denbora eta baliabide aldetik, eta ez da batere erraza ahalegin horri heltzea.
2. *Eremu eta helburuen ugaritasuna:* Hirugarren Sektoreak era askotako erakundeak biltzen ditu, atenditzen dituzten kolektiboak eta eskaintzen dituzten jarduerak eta zerbitzuei dagokienez, eta erakunde batzuen kasuan hori oztopoa da beste erakunde batzuekin harremanak sortzeko.
3. *Lehiakortasuna eta konpartitzeko beldurra:* erakundeen kopuru nabari batek aipatzen du finantziazio publikoaren banaketak erakundeen artean sortzen duen lehia, sektoreko erakundeen arteko lankidetza oztopatzen duten faktoreez hitz egitean.
4. *Informaziorik eza:* 2007an gertatu zen bezala, erakunde askok jarraitzen dute informazio gehiago eskatzen Hirugarren Sektorea osatzen duten erakundeei buruz. Beste erakunde batzuei buruz informaziorik ez izateak balaztatzen ditu lankidetzarako ekimenak. Beren ustez, ezaguna baldin bada erakundeak nor diren, zertan aritzen diren, non kokatzen diren, zer helburu bilatzen dituzten eta abar, orduan errazagoa izango da balizko aliantzak identifikatzea eta hurbilketak egitea.

5. *Esperientziarik eta ohiturarik eza*: ibilbide laburragoa duten erakundeek aitortzen dute ez dutela prestakuntza nahikorik beste erakunde batzuekin kolaboratzen hasteko; gainera, ez dute ezagutzen beren urratsak norabide horretan orienta ditzakeen jardunbide egokirik. Ibilbide luzeagoa duten erakundeek -horiek ere uste dute hau dela erakundeen arteko harremanak mugatzen dituzten faktoreetako bat- ohiturarik eza aipatzen dute bereziki. Kanpo harremanei arreta nahikorik zuzendu ez zaienez, horren ondorioa izan da tresna gutxiago dituztela elkarreraginerako.
6. *Norberaren baitan bakartzea, introspektzioa eta egozentrismoa*: alde batetik, bada erakunde kopuru handi bat, sektoreak endogamiarako joera duela uste duena, hau da, ondo ezagutzen duen eta oso hurbil duen erakunde multzo txiki batekin soilik harremanak izateko joera; horrek irekitasun falta dakarkio, nolabait. Beste alde batetik, erakunde askok ahazten dute beren legimititateak eta eraginak -neurri batean- beste erakunde batzuekin kolaboratzea eskatzen dutela, hau da, beren misioa konpartitzen duten erakundeekin nolabait kolaboratzea.

Erakundeen artean dagoen harreman edo lankidetzak eskasak zenbait ondorio negatibo ekartzen ditu, eta erakundeek berek identifikatzen dituzte ondorio horiek; adibidez: baliabideak alferrik galtzea edo jarduerak gainjartzea –erakunde bik jarduera berbera egitea-. Horrenbestez, erakundeek aitortzen dute lankidetzak ahalbidetzen duten neurrien garrantzia; hasteko, topaketan eta elkarren arteko ezagutzarako espazioen sustapena, erakunde batzuek egiten duten moduan: sareek, administrazio publikoak eta Hirugarren Sektorearen Behatokiak berak.

Dena dela, sektoreko erakundeen arteko harremanek osasun ona dutela dioten erakundeek kontuan hartu beharreko zenbait arrazoi aipatzen dituzte.

Erakunde batzuek diotenez, Bizkaiko Lurralde Historikoaren dimentsio txikiak erakundeen arteko harremanak errazten ditu, zeren erakundeen arteko ezagutza erraza dela iruditzen baitzaie.


Halaber, erakunde batzuek diote aldaketa positiboak hasi direla nabaritzen, bai Hirugarren Sektoreko erakundeei buruz eskura dagoen informazioari dagokionez eta bai sortzen diren topaketa-espazioei dagokienez.

12. Sektorearen panoramari buruzko intuizioak

ETORKIZUNERAKO IKUSPEGIA

Ia erakundeen erdiek (% 47,9) uste dute beren helburuak betetzea zailagoa izango dela datozen bost urteotan orain baino; erakundeen % 19,6, berriz, baikor azaltzen da eta errazagoa izango dela uste du. 2007 urtearekin alderatuta, badirudi gora egin duela bere erakundearen etorkizuna oraina baino txarragoa dela uste duten erakundeen proportzioak (urte horretan % 40,1 zen).

12.1. Grafikoa. Erakundeen banaketa, beren helburuak datozen 5 urteotan betetzeko erraztasunaz duten ikusmoldearen arabera. Ehunekoak.



Datuek ez dute ahalbidetzen identifikatzea etorkizun hurbilari buruzko ikuspegia hobea edo txarragoa izatea nolabait esplikatu dezakeen aldagairik. Dena dela, badirudi Gizarte Ekintza, Aisialdi eta Osasunaren eremuko erakundeak ezkorragoak direla, nolabait.

12.1. Taula. Erakundeen banaketa, beren helburuak datozen 5 urteotan betetzeko erraztasunaren inguruan duten pertzepzioaren arabera; jarduera-eremua, pertsonalaren bolumena, plan estrategikoa egotea eta bigarren edo hirugarren mailako izatea iripzidetzat hartuta. Ehunekoak.

		Errazagoa	Zailagoa	Orain bezala
OROKORRAK [K=336]		19,6	47,9	32,4
JARDUERA-EREMUA [K=336]	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzatza	18,2	45,5	36,4
	Zibikoa	20,8	43,1	36,1
	Kultura	21,6	46,4	32,0
	Enplegua	10,0	30,0	60,0
	Gizarte Ekintza	16,4	55,7	27,9
	Ingurumena	20,0	40,0	40,0
	Aisialdia	13,0	60,9	26,1
	Osasuna	22,2	50,0	27,8
	Giza Eskubideak	40,0	40,0	20,0
PERTSONALAREN BOLUMENA [K=318]	10 pertsona baino gutxiago	21,1	48,6	30,3
	10 - 50 pertsona	23,7	50,6	25,6
	51 - 100 pertsona	7,4	51,9	40,7
	101 - 500	8,3	37,5	54,2
	500 pertsona baino gehiago	0,0	50,0	50,0
BOLUMEN EKONOMIKOA [K=304]	12.000€ baino gutxiago	23,9	47,2	28,9
	12.001€ - 60.000€	19,5	48,1	32,5
	60.001€ - 300.000€	18,4	42,1	39,5
	300.001€ - 1.500.000€	3,6	82,1	14,3
	1.500.000€ baino gehiago	15,8	42,1	42,1
PLAN ESTRATEGIKOA EGOTEA [K=329]	Bai, idatziz	23,9	47,7	28,4
	Idatziz ez, baina horri lotutako ekintzak gauzatzen ditugu	20,7	46,7	32,6
	Ez	16,7	50,9	32,5
LEHEN EDO BIGARREN MAILAKOA IZATEA [K=307]	Oinarriko erakundea	19,0	49,0	32,1
	Bigarren mailako erakundea	23,5	47,1	29,4

ERAKUNDEEN HAUSNARKETAK

Beren helburuak datozen bost urteotan lortzea zailagoa izango dela uste duten erakundeek aipatutako arrazoiak honela laburbil daitezke, ondorengo kategorien arabera:

1. Oraingo krisi ekonomikoaren eraginez, pentsatzekoa da baliabideak murriztu egingo direla epe labur-ertainera; horri lotuta, zalantzak sortu dira haien banaketaren inguruan, hau da, erakundeen artean eta erakundeek betetzen dituzten zerbitzuen artean banatzeko moduaren inguruan.
2. Ahulezia-egoera berezian dauden pertsonen kopuruak gora egingo du, eta, hortaz, pentsatzekoa da erakundeei eskatzen zaizkien zerbitzuak gehiago izango direla, eta baita mota gehiagokoak eta aldakorragoak ere.
3. Nabaritzen da herritarrak ez daudela behar bezain kontzientziatuta arazo sozialen inguruan, eta badago nolabaiteko krisia elkartasunaren alorrean; horren eraginez, erakundeen lanak ez du sostengu nahikorik gizartearen aldetik.
4. Baliabide gutxiago eta erakunde gehiago egoteak zorrotzu egiten du baliabideak eskuratzeko lehia.
5. Ibilbide nahiko luzea duten erakundeen barneko hazkundeak arrisku bat dakar berekin, alegia, misioa eta kudeaketaren arteko lotura hausteko arriskua; gainera, horrek inbertsio handia eskatzen du sortzen diren zailtasun berriak gainditzeko: bazkideen parte-hartzearen jaitziera, boluntarioen kudeaketa eta motibazioa, karguen errelebua, eta abar.
6. Administrazio publikoak sektorearentzat duen finantzazio eredia uniformizatzailea da, eta, gainera, oso burokratikoa da eta betekizun gehiegi ezartzen ditu; horren ondorioa da onuragarriagoa dela tamaina handiagoko erakundeentzat.
7. Erakundeen errebindikazio-funtzioa ez da eragile batzuen gustukoa, eta, hortaz, funtzio hori neutralizatzen saiatzen dira.

Hala eta guztiz ere, esan den bezala, erakunde batzuek etorkizun baikorragoa aurreikusten dute; hori justifikatzeko, euren erakundeak egindako aldaketekin zerikusia duten kanpoko eta barneko faktore batzuen inguruan duten pertzepzioan oinarritzen dira:

1. Araudien alorrean egin berri diren hobekuntzak.
2. Sektoreari eta laguntzei buruzko informazioa areagotu egin da.
3. Sektoreak administrazio publikoaren aldetik duen aitortzak hobera egin du.
4. Biztanleriaren kopurua igo da (aukera gehiago daude kolaboratzeko eta erakundeetan parte hartzeko prest dauden pertsonak aurkitzeko).
5. Kudeaketa hobetzeko estrategiak txertatu dira erakundean (barneko berrikuntza, plan estrategiko eta berritzaileak).
6. Esperientzia handiagoa izatea, bai erakunde bezala eta bai esku-hartzearen eremuan.
7. Erakundearen misioaren hedapenak hobera egin du.
8. Erakundea erakunde-sare batean integratu da.

Erakundeei galdetu zaie zein diren, euren ustez, datozen urteotan aurrez aurre izango dituzten erronkak. Jarraian, gehien errepikatu direnak aipatzen dira:

1. **Funtsak** eskuratzea, autogestioa finkatzea (baliabide propioak), finantzazio-iturriak dibertsifikatzea.
2. **Lokalak** lortzea.
3. Kanpoko laguntza edo **aholkularitza** izatea barneko kudeaketa-prozesuak bizkortzeko.
4. Beste erakunde batzuekiko **koordinazioa eta** sareko lana handitzea.
5. Herritarrek **sentsibilizatzeko** lana indartzea.
6. Esku-hartzea **berriztatzea**, oraingo errealitatera egokitzeko.
7. Araudi soziolaboralera egokitzea, laneko gatazkak konpontzea, **lan-baldintza** egokiak bermatzea.
8. **Gizarte-oinarria** handitzea.
9. Lan-taldeak eta proiektuak **egonkortzea**.
10. **Hedapen** kanpainak egitea.
11. Gobernu-organoak **berriztatzea**.
12. Bazkideen eta boluntarioen konpromisoa eta **parte-hartzea** sustatzea.
13. Administrazio eta enpresekiko **harremanak** finkatzea.
14. Taldeen **prestakuntza** indartzea.
15. **Plangintza** hobetzea.
16. Egiten den lanaren balio erantsia bistaratzea, gizartearen **aitortza** lortzea.
17. **Informazioaren eta komunikazioaren teknologien** erabilera optimizatzea.
18. **Kalitatea** hobetzeko sistemak ezartzea.

Logikoa denez, erronkek garrantzia hartzen dute erakunde bakoitzaren ezaugarrien arabera: antzinatasuna, pertsonalaren bolumena, bolumen ekonomikoa, eta abar. Dena dela, lehengo zerrendak ederki islatzen du erakundeak oso kontzienteak direla beren erakundea egokitzeko beharraz, etorkizunari aurre egiteari begira.

Oinarriko erakundeek sektoreko sareentzat adierazi dituzten erronkek deskribatzen dute, nolabait, bigarren eta hirugarren mailako erakundeentzat nahi luketen agenda. Agenda horretan sartzen diren gai batzuek zerikusia dute beren garapena datozen urteotan oztopatu dezaketen trabak kentzearekin, eta beste batzuek aurrez aurre jartzen zaizkien erronkei aurre egiteko sostengua jasotzearekin.

1. Gizarte-sentsibilizazioa beharrezkotzat hartzea; elkartegintza eta boluntariotza sustatzea.
2. Sektorearen eta beraren zerbitzuen egituraketa sustatzea, sektoreko kontzientzia sortuz oinarriko erakundeen artean.
3. Hedabideentzako arretaren beharraz konturatzea eta arreta horri heltzea.
4. Sektoreko erakundeen lanaren balio erantsia bistaratzera zuzendutako ekintzak gidatzea.
5. Sektoreko erakundeen errealitateari buruzko ezagutza handitzea.
6. Sektoreko erakundeen errealitateari buruzko informazioa hedatzeko beharraz konturatzea.
7. Irabazi-asmoa duten erakundeen lehia desleialaren aurka borrokatzea.
8. Informazioa zaintzeko eta biltzeko lan bat garatzea, aldaketak identifikatu edo aurreikusi ahal izateko.
9. Administrazio publikoarekiko mintzakidetza bereganatzea.
10. Oinarriko erakundeen diru-bilketa erraztea –funtsak lortzen laguntzea-.
11. Erakundeen ikuspegi estrategikoaren eta profesionalizazioaren beharra transmititzea.
12. Erakundeen ahaleginak batzen laguntzea eta sareko lana bultzatzea, erakundeen arteko lehia konpentsatzeko, elkar-ulertzerako espazioak sortuz.
13. Erakunde txikiei euskarria emateko azpiegitura bat lortzea.

13. Konklusioak

**Hirugarren Sektorea
hazten ari den sektore
bat da, orain dela hiru
urte baino bolumen
ekonomiko handiagoa
kudeatzen du, eta
pertsonal boluntario
eta soldatako pertsonal
gehiago bereganatu du.**

**Erakunde gehiago
daude kolektibo
bakoitza atenditzen, eta
erakundeen pertsona
erabiltzaileak orain
dela urte batzuk baino
gehiago dira. Halaber,
gora egin du askotariko
eginkizun sozialak
gauzatzen dituzten
erakundeen proportzioak
–historikoki gauzatu
dituzten eginkizun
sozialak–.**

**Bilbo Handitik kanpoko
eskualdeetako elkarte-
sareak ahula izaten
jarraitzen du.**

IDENTITATEA ETA JARDUERA

Hirugarren Sektorea hazten ari den Sektore bat da. Egindako estimazioek erakusten dutenez, erakundeek kopurua % 10 inguru igo da azken hiru urteotan. Hain zuzen ere, 2010ean, sektoreak ia 6.000 erakunde zituen Bizkaian.

Horrenbestez, erakundeekin kolaboratzen duten pertsona boluntarioen bolumenak ere gora egin du -% 9 inguru garai berean-; dena dela, sektorearen hazkundera sektoreak kudeatzen dituen diru-sarreraren bolumenean islatu da gehienbat. Izan ere, orain dela hiru urte baino ia % 26 handiagoa da bolumen hori –2006an, BPGaren % 1,58 zela kalkulatu zen, eta 2009an % 2-. Aldi berean, jardueraren hazkundera enpleguaren hazkundera islatu da. Hala, egindako estimazioen arabera, soldatako pertsonen bolumena ia % 34 igo da, eta gaur egun 30.000 pertsonatik gorakoa da.

Erakundeek hainbat eremutan gauzatzen dute beren eginkizuna eta askotariko kolektiboak atenditzen dituzte. Ia erakundeek erdiek bazterketa egoerak atenditzen dituzte eta hirutatik batek mendetasun edo babesgabetasun egoerak. Sektoreko erakundeek jardueraren hartzaile diren kolektibo ia guztiek erakunde gehiagoren arreta jasotzen dute orain. Beste alde batetik, erakunde bakoitzaren pertsona erabiltzaileen batez besteko kopuruak ere gora egin du azken hiru urteotan.

Sektoreko erakundeek % 54,3k eragin politikoa egotzi lekiokkeen jardueraren bat gauzatzen du. Ikusi denez, historikoki bereizgarritzat izan dituzten gizarte-eginkizunak betetzen dituzten erakundeek proportzioak igoera txiki bat izan du –eginkizun horiek ikerketa, iritzi publikoaren sentsibilizazioa eta salaketa dira, besteak beste–.

Figura juridiko bakoitzaren pisu erlatiboak adierazten duenez (fundazioak, elkarteak, gizarte-ekimeneko kooperatibak,...), sektorearen erakunde gehienak elkarteak dira, lehen bezala.

Erakundeek lurralde-presentziari dagokionez, datuek erakusten dute Bilbo Handiko eskualdeak –batez ere beraren hiriburuak– erakundeek hiru laurdenak kontzentratzen dituela. Ez dirudi elkartearen sareak Bilbo Handitik kanpo duen presentzia orain dela hiru urtekoa baino handiagoa denik.

Erakunde gehienek EAEn edo Bizkaiko Lurralde Historikoan (zehazki % 29,3 eta %26,4) gauzatzen dute beren lana. Gutxi gorabehera % 20k eremu handiago batean dihardu, eta % 24,3k izaera lokalagoa du. Oro har, azken hiru urteotan ez da aldaketa nabarmenik antzeman beren jardueraren irismen geografikoa-ri dagokionez; nolanahi ere, eskualde eta udal mailako erakundeek eta maila beheagoko erakundeek pisu erlatiboa galdu dute, neurri txiki batean, osoko kopuruan; EAEko lurralde osoan diharduten erakundeen pisu erlatiboak, aldiz, gora egin du garai horretan.

ERAKUNDEEN EGITURA

Sektorearen errealitatea heterogeneoa da, zeren tamaina eta egitura oso desberdineko erakundeez osatuta baitago. Hori, neurri handi batean, estu lotuta dago antzintasunarekin eta jarduera-eremuarekin.

Batez bestekoak adierazten duenez, sektoreko erakundeak 40 pertsonaz osatuta daude, batez beste, bai soldatako pertsonak eta bai boluntarioak kontuan hartuta. Nolanahi ere, medianaren balioak adierazten du 14 kide baino gehiago dituzten erakundeek eta 14 kide baino gutxiago dituztenek proportzio berdintsua dutela. 2007 urtearen aldean, ikus daiteke 50 pertsona baino gehiagoko erakundeen pisu erlatiboa apur bat jaitsi dela eta 10 pertsona baino gutxiago dituztenen pisu erlatiboak igoera txiki bat izan duela.

Erakundearen tamaina diru-sarreraren bolumenaren arabera neurtzen bada, aldiz, desberdintasunak kontrako norabidea hartzen du orain dela urte batzuetako egoerarekin alderatuta. Hala, datuek erakusten dutenez, bolumen ekonomiko handiagoa mugitzen duten erakundeen kopuruak gora egin du 2006-2009 aldian. 2009an, erakundeen % 46k 12.000 € baino gutxiago mugitu ditu; 2006an, berriz, erakunde horiek erakunde guztien % 54,9 ziren. Halaber, 1.500.000 euro baino gehiago mugitzen duten erakundeak erakunde guztien % 4,5 ziren 2006an, eta 2009an % 6,4 izatera pasatu dira.

Hirugarren Sektoreko erakundeen ezaugarri nagusietako bat da bazkideez eta boluntarioz osatutako gizarte-oinarria dutela. Gaur egun, elkarteek 271 bazkide eta 28 boluntario dituzte, batez beste.

2007 urtearen aldean, 100 bazkide baino gehiago biltzen dituzten elkarteak kopurua ia % 5 jaitsi da. Hala eta guztiz ere, bazkideen bolumenak gora egin du edo mantendu egin da elkarteak % 86,4an, azken hiru urteotan. Bazkideen galera gehien pairatu duten erakundeen artean, Kulturaren eta Aisialdiaren eremukoak daude.

Pertsonal asko duten erakundeek pisia galdu dute osoko kopuruan.

12.000€ baino gehiago kudeatzen dituzten erakundeen taldeak gora egin du.

Erakunde gehienek lortu dute beren bazkideen bolumenari eustea; hala eta guztiz ere, behera egin du gizarte-oinarri zabala duten erakundeen pisuak.

Erakundeen ia % 90 gehienbat boluntarioz osatuta dago. Hamar erakundetatik ia seitan boluntarioak soilik daude.

Erakundeen % 40ek jarraitzen du zailtasunak izaten bere gobernu-organoak berriztatze; erakundeen % 8k, berriz, bere batzordeko kide guztiak aldatu zituen bere azken berrikuntzan.

Boluntarioek eta erabiltzaileek erakundeetan duten parte-hartze mailak txikia izaten jarraitzen du.

Erakundeen proportzio handi batek lortu du bere boluntarioen kopurua mantentzea edo handitzea; dena dela, oro har, boluntario aldetik bolumen handiagoa duten erakundeen pisuak behera egin duela nabaritzen da.

Boluntarioek presentzia eztaba daezina dute Hirugarren Sektorean, eta alderdi horretan ez da aldaketa esanguratsurik gertatu 2007tik hona. Hamar erakundetatik ia sei boluntarioz soilik osatuta daude, eta hamarretatik ia bederatzigehienbat boluntarioz osatuta daude. Eredu Zibikoa, Kultura, Aisialdia eta Ingurumena dira boluntarioz soilik osatutako erakundeak proportzio handi-
nean biltzen dituzten eremuak.

Gobernu-organoak behar den bezala ezin berriztatzeak erronka izaten jarraitzen du erakunde askorentzat. Erakundeen % 40 eta % 50 bitartean ez zen kide berri-rik sartu azken berrikuntzan. Fundazioen kasuan, badirudi beren egoera apur bat okertu dela 2007koaren aldean; elkarrean egoerak, aldiz, hobera egin du sasoi honetan. Dena dela, badirudi elkarrean kasuan ere beharrezkoa dela gobernu-or-ganoak indartzea, nahiz eta beren azken berrikuntzan kide guztiak aldatu zituzten zuzendaritza-batzordeen proportzioa apur bat igo den (% 4,9tik % 7,7ra).

Beste alde batetik, rol bikoitzeko kideak dituzten zuzendaritza-batzordeen kasuen maiztasunak gora egin du, hau da, borondatezko karguaz gain erakundearen sol-datako pertsonalaren partaideak direnen kasuak ugaritu dira.

Beharrezkoa da erakundearen barneko bizitzarekin zerikusia duten kolekti-boen parte-hartzea sustatzen jarraitzea. Batez ere boluntarioen eta erabili-tzaileen parte-hartzea, horietatik baitira, oro har, parte-hartze maila apalagoak izaten dituztenak.

Boluntario egonkorak erakundearen plangintzan eta ebaluazioan eta jarduera konkretuen antolaketan inplikatzeko dituzten erakundeen proportzioa % 50 da, gutxi gorabehera. Eta erakundeen % 24,5ek soilik dio mekanismoak eskaini-tzen dituela erabiltzaileek parte hartu dezaten jardueraren ebaluazioan.

PERTSONAK

Datuek erakusten dutenez, erakundeek orain dela hiru urte baino boluntario gutxiago dituzte. Hala, 2010ean, batez bestekoa 28 pertsona boluntario dira; 2007an, berriz, 39 zen batez bestekoa.

Boluntarioen presentziak erakundeetan izan duen jaitsiera 10 boluntario baino gu-txiago dituzten erakundeen bilakaeran ere antzematen da, zeren haien proportzioa % 5,8 igo baita; boluntario aldetik kopuru handiagoa zuten erakundeek, aldiz, pisu erlatiboa galdu dute.

Hala eta guztiz ere, erakunde gehienek diote beren boluntarioen bolumenari eutsi diotela, eta hirutatik ia batek dio bere boluntarioen bolumena handitu duela azken hiru urteotan. 2007an bezala, erakundeek % 17k soilik aitortzen du galdutako boluntarioen kopurua erakarri dituen boluntario berriena baino handiagoa dela.

Edonola ere, bereziki garrantzitsua da sentsibilizazio eta parte-hartze neurriak bultzatzea, pertsona boluntarioak erakarri ahal izateko eta erakundearekin duten lotura indartzeko, Aisialdiaren alorrean; halaber, gauza bera egin behar da boluntario asko dituzten erakundeetan, zeren eta, dirudienez, boluntarioen galera horrelako erakundeetan nabaritu baita gehienbat.

Hirugarren Sektorean gaur egun inplikaturik dauden boluntarioen % 37,7 35 urtetik beherakoa da, eta erretiratzeko adinera iritsi direnak osoko kopuruaren % 16,6 dira. Boluntario gazteek presentzia handiagoa dute Aisialdiaren eta Ingurumenaren eremuetan. Adin aldetik nagusiagoak diren boluntarioak, berriz, sarriagotan aritzen dira eremu Zibikoan, Gizarte Ekintzaren eremuan eta Kulturaren eremuan.

Noizbehinka parte hartzen duten pertsona boluntarioen proportzioak gora egin du –dirudienez- 2007tik hona.

Behera egin du astean 5 ordu baino gehiago dedikatzen dituzten boluntarioen ehunekoak –dirudienez, noizbehinkako parte-hartzera pasatu dira zenbait boluntario-. Aldi berean, baina, apur bat igo da borondatezko lanean astean 5 ordu baino gehiago ematen dituztenen proportzioa. Giza Eskubide, Ingurumen eta Kulturaren eremuetan, noizbehinkako boluntarioek pisu erlatibo handiagoa dute, batez beste.

Beste alde batetik, Hirugarren Sektoreak enplegua sortzen jarraitzen du. Hain zuzen ere, erakundeek % 41,5ek pertsonaren bat du kontratatuta bere eginkizuna gauzatzeko, 2007an baino %9 gehiago, gutxi gorabehera.

2010ean, erakundeetan zeuden soldatako pertsonen batez besteko orokorra 28 izan zen; 2007an, berriz, 20 pertsona izan ziren.

Eremu Zibikoko eta Kulturaren eremuko erakundeek askoz ere maiztasun gutxiagoz izaten dituzte soldatako pertsonak; Enplegu, Giza Eskubide, Gizarte Ekintza, Osasun eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren eremuko erakunde gehienek, aldiz, badute soldatako pertsonala.

Astean bost ordutik gorako dedikazioa duten boluntarioen kopurua mantentzen bada ere, gora egin du noizbehinkako boluntarioen pisuak –haien lankidetzak ez du asteroko maiztasunik-.

Hirugarren Sektoreak enplegua sortzen jarraitzen du. Soldatako pertsonala duten erakundeek taldea osoko kopuruaren % 32,7 izatetik % 41,5 izatera pasatu da.

Erakunde gehienek diote beren soldatako pertsonalaren bolumenari eutsi diotela azken hiru urteotan, % 9,1ek soilik dio bere bolumena jaitsi dela eta % 36,5ek dio bolumen hori handitu duela –enplegua sortu ahal izan duten erakundeak 2007an baino % 2 gehiago dira-. Lanpostuak sektore hauetan sortu dira gehienbat: Enplegua, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzatza, Gizarte Ekin-tza eta Osasuna.

Antza denez, soldatako pertsonalaren hazkundeak horrelako pertsonalik ez zuten erakundeetan edo oso soldatako pertsonal gutxi zuten erakundeetan nabaritu da gehienbat –dena dela, datuek erakusten dute egitura ertaineko erakunde batzuek ere (11 eta 50 pertsona kontratatuta) jasan bide dutela sek-toreko pertsonalean gertatutako galeraren zati handi bat-.

Sektoreko soldatako pertsonala gaztea da, eta bere erakundeari lotuta gutxienez 5 urte daramatzatenak dira talde nagusia.

Sektoreko langileen kolektiboa bereziki gaztea da. Hala, soldataz lan egiten duten pertsonen % 45,2k 35 urte baino gehiago ditu, eta 50 urtetik gorako pertsonak % 15,6 baino ez dira.

Pertsonalaren herenak baino gehiagok 5 urte baino gehiago daramatza lanean oraingo erakundeetan, baina ehuneko hori handiagoa zen 2007an. Jaitsiera lotu-ta egon daiteke soldatako pertsonal berriak erakundeetan azken hiru urteotan izandako igoerarekin, baina beste arrazoi bat pertsonalaren errotazioaren haz-kundea izan liteke.

Gora egin du kontratu mugagabeen eta lanaldi osoko kontratuen pisuak. Aldi baterako kontratazioaren indizea murriztu egin da Hirugarren Sektorean, baina batez besteko orokorraren gainetik jarraitzen du.

Kontratu finko edo mugagabearen bitartez kontratatutako pertsonala % 58etik % 63era igo da 2007tik 2010era; aldi baterako kontratuen eta obra jakineko kontratuen pisua, berriz, % 36tik % 30era jaitsi da garai horretan.

Aldi baterako kontratazioaren indizea % 32,4 da, gutxi gorabehera, eta Bizkaiko batez besteko indizearen gainetik jarraitzen du (% 18²⁹), baina 2007ko indizea-ren azpitik dago (% 38). Orobat, nabaritzen da behera egin duela lanaldiko par-tzialeko kontratazioak. Lanaldi partzialeko kontratuen indizea % 15 da, eta, be-raz, sektorea Bizkaiko batez bestekoaren gainetik dago (13,2%)³⁰, baina 2007ko batez bestekoaren azpitik (% 29).

Emakumeak gehiago dira pertsona boluntarioen artean (% 56,6), soldatako pertsonen artean (% 68,5) eta bazkideen artean ere bai (% 59,6). Jarduera-e-remu jakin batzuetan, hala nola Enplegu, Osasun, Zibiko, Aisialdi eta Gizarte Ekintzan, gizonen eta emakumeen arteko desproporzioa are handiagoa da.

29 Iturria: http://www.eustat.es/elementos/ele0003300/ti_Poblacion_de_16_y_mas_años_ocupada_por_situacion_profesional_tipo_de_contrato_y_tipo_de_jornada_y_territorio_historico_miles_2009/tblo003335_c.html

30 Iturria: http://www.eustat.es/elementos/ele0003300/ti_Poblacion_de_16_y_mas_años_ocupada_por_situacion_profesional_tipo_de_contrato_y_tipo_de_jornada_y_territorio_historico_miles_2009/tblo003335_c.html

Hala eta guztiz ere, bada datuek adierazten jarraitzen duten alderdi bat, alegia, emakumeek duten presentzia handiago hori ez datorrela bat erakundeetako botere-organoetan duten presentziarekin. Emakumeek ez dute presentziarik edo oso presentzia txikia dute (% 25etik beherakoa) patronatu-batzordeen % 55,5ean –orain dela hiru urte, egoera are okerragoa zen, hori kasuen % 75ean gertatzen baitzen-. Beste alde batetik, apur bat jaitsi da emakumerik gabeko zuzendaritza-batzordeen proportzioa (% 14,3 izatetik % 11,1 izatera pasatu dira); bestalde, kideen erdiak baino gehiago emakume diren batzordeen proportzioa % 48,6tik % 38,1era jaitsi da.

BALIABIDE EKONOMIKOAK

Erakundeen % 67,1ek igo du bere diru-sarreraren bolumena 2007 eta 2009 bitartean. Garai horretan, gainera, erakundeen diru-sarreraren bolumena % 47,6 hazi da batez beste.

Erakundeen % 23,9ren finantziazioa diru-iturri bakar batetik dator; 2006ean, proportzio hori % 21 zen. Bi diru-iturritatik finantzatzaren diren erakundeak % 22,9 izan dira 2009an, eta % 28 2006an. Horrez gain, bost finantzazio-iturri baino gehiago zituzten erakundeak % 19 ziren 2006an; 2009an, berriz, ehuneko hori % 21,1eraino iritsi da.

Lau erakundetatik gutxienez hiruk finantziazio publikoa jasotzen dute. Erakunde horien % 13,6an, finantziazio publikoa euren diru-iturri bakarra da -batez ere Aisialdi eta Giza Eskubideen alorreko erakundeak eta erakunde Zibikoak dira-. Erakundeen % 40,6rentzat, finantziazio publikoa ez da bere diru-iturri bakarra, baina diru-sarreraren erdia baino gehiago ematen dio. Egoera horretan dauden erakundeak gehiago aurkitzen ditugu Gizarte Ekintza, Giza Eskubide eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren eremuetan.

Orokorrean, finantziazio pribatua sektoreko finantziazio osoaren % 55,8 da eta finantziazio publikoa % 44,2. Diru-laguntza publikoak dira pisu erlatibo handiena dutenak (% 36), eta gero datoz partikularren dohaintza erregularrak, normalean bazkideen aldizkako kuotak izaten direnak (% 25,8), eta zerbitzuak betetzeko kontratu pribatuak (% 11,9).

Orokorrean, finantziazio pribatuak pisu handiagoa du Kulturen (% 68,2), Garapenerako Nazioarteko Lankidetzan (% 61,7) eta Enpleguan (% 58,2). Beste eremu batzuetan, berriz, finantziazio publikoaren pisuak alde handiz gaintzen du batez bestekoa: Gizarte Ekintza (% 62), Ingurumena (% 53,4), Aisialdia (% 51,8) eta Giza Eskubideak (% 50,3).

Sektorea gehienbat emakumez osatuta badago ere, emakumeek ez dute berdintasunezko presentziarik gobernu-organoetan. Presentzia handiagoa lortu dute patronatu-batzordeetan, baina gutxiengo izaten jarraitzen dute, eta pisua galdu dute zuzendaritza-batzordeetan.

Finantziazio-iturrien dibertsifikazioak konpondu gabeko gaia izaten jarraitzen du erakundeen proportzio garrantzitsu batentzat, batzuek beren egoera hobetzea lortu badute ere.

Lau erakundetatik gutxienez hiruk finantziazio publikoa jasotzen dute (hamar kasutatik lautan, iturri horrek diru-sarreraren % 50 baino gehiago ematen du), baina gehienek badituzte beste finantziazio-iturri batzuk ere. Orokorrean, finantziazio pribatua sektoreko finantziazioaren % 55,8 da eta finantziazio publikoa % 44,2.

Halaber, finantziazio-iturri bakoitzaren pisua desberdina da eremuen arabera. Hala, bazkideen kuotak sektoreko batez besteko orokorraren gainetik daude Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren eremuan (% 38,4), eremu Zibikoan (% 41,2) eta Giza Eskubideen eremuan (% 42,7). Jarduerara zuzendutako diru-laguntza publikoek osoko finantzazioan duten pisua handiagoa da Garapenerako Nazioarteko Lankidetzan (% 30,9), eremu Zibikoan (% 31,3), Ingurumenean (% 34,7) eta Giza Eskubideen eremuan (% 34). Azkenik, Gizarte Ekintzaren eremuko erakundeen artean, zerbitzuak betetzeko kontratu pribatuen pisua batez bestekoa baino nabarmenki handiagoa da (%28).

Partikularren dohaintza erregularrak batez bestekoaren gainetik daude 12.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten erakundeetan. Zerbitzuak betetzeko kontratu publikoen kasuan, bolumen ekonomiko handiagoa mugitzen duten erakundeek pisu handiagoa hartzen dute.

Udal finantziazioa iturri garrantzitsuena da, batez ere Kulturen, eremu Zibikoan, Ingurumenean eta Aisialdian. Foru finantziazioa bigarrena da garrantzi aldetik, eta pisu handiagoa du Gizarte Ekintzaren eremuko erakundeen artean.

Finantziazio publikoa jasotzeko modu ohikoena diru-laguntza da, baita erantzukizun publikoko zerbitzuak betetzearen kasuan ere.

Gastuaren % 85ek baino gehiagok zuzeneko lotura du jarduerarekin, eta gastu orokorren pisua jaitsi egin da azken urteotan.

Orokorrean, datuek adierazten dute udal finantziazioa finantziazio osoaren % 44,6 dela; Eusko Jaurlaritzarena eta Aldundiarena, berriz, % 25 dira hurrenez hurren.

Udal finantziazioak pisu handiagoa du eremu Zibikoan, Kulturen, Ingurumenean eta Aisialdian. Bizkaiko Foru Aldundiaren finantziazioa, berriz, presentzia handiagoa du Gizarte Ekintzaren alorrean.

Sektoreko erakundeek jasotzen duten finantziazio publikoaren helmuga arruntea erantzukizun publikoko katalogoetan sartuta ez dauden zerbitzuak betetzea edo jarduerak gauzatzea da. Erakundeen % 67,5ek helburu horretara zuzendutako finantziazioa jasotzen du administrazio publikotik. Kasu gehienetan (% 89,3), finantziazioa jasotzea ahalbidetu dien modalitatea diru-laguntza da. Erakundeen % 51,5ek laguntzak jasotzen ditu erakundearen funtzionamendurako, kasu gehienetan diru-laguntzen bitartez (% 90,1). Erantzukizun publikoko zerbitzuak betetzera zuzendutako finantziazio publikoa duten erakundeak sektoreko erakundeen % 12,9 dira. Kasu horietan ere, modalitate ohikoena diru-laguntza da, eta beraren atzean datoz hitzarmenak (% 53,3), plazen kontzertazioa (% 20) eta beste kontratazio modalitate batzuk (% 13,3).

Jarduerara zuzenean bideratutako gastuak erakundeen gastuaren % 86,7 izaten dira, batez beste. Beste kontzeptu batzuk kontuan hartuta, oro har, pertsonalaren alorreko gastuak gastuaren % 24,2 dira (% 14,8 2006an) eta gastu orokorrak % 15,1 (% 22 2006an). Hala eta guztiz ere, gastu mota bakoitza benetan duten erakundeak soilik hartzen badira kontuan, pertsonalaren alorreko gastuak gastu guztien % 50,4 dira (% 56 2006an) eta gastu orokorrak % 22,8 (% 19,6 2006an).

Lau erakundetatik batek dio badituela likideziako arazoak edo altxortegiko tentsioak –ehuneko hori apur bat jaitsi da 2006 urtetik hona-. Beste alde batetik, 2007an ere ikusi zen bezala, erakundeen % 14k soilik ditu jabetzako lokalak; horrek esplikatzan du, nolabait, zergatik dauden zailtasunak ondare-ondasunetan oinarritutako kreditu-lineak lortzeko. Erakundeen % 61,9k dio kreditu-lineak ez direla inoiz ere beren likideziako arazoak konpontzeko aukeratzen duten irtenbidea; arazo horiek dituzten erakundeen % 30ek, berriz, sarritan edo oso sarritan jotzen du mailegu pertsonaletara, arazoak gainditzeko.

Erakundeen % 11,8k aitortzen du kontabilitateko kanpo-auditoria bat eskatu izana azken hiru urteotan. Hori egin duten erakunde gehienak tamaina eta bolumen ekonomiko handiko fundazioak eta erakundeak dira. Hala eta guztiz ere, 1.500.000 euro baino gehiago kudeatzen duten erakundeen % 45,5ek –gutxienez- ez du kanpo-auditoriarik eskatu azken hiru urteotan.

KUDEAKETARAKO ESTRATEGIAK

Orokorrean, erakundeak partaide gutxiago dituen neurrian edo bolumen ekonomiko txikiagoa duen neurrian, orduan eta txikiagoa da kudeaketa-estrategiak abiatzeko joera –estrategia formalizatuak edo formalizatu gabekoak-.

Erakundeen % 27,5ek dio baduela idatzizko plan estrategikoa, eta beste % 32,6k horrekin zerikusia duten ekintzak gauzatzen ditu, Plan batean formalizatzen iritsi ez bada ere. Beste alde batetik, erakundeen % 10,4k badu idatziz formalizatutako kalitate-plana edo kalitate-sistema, eta beste % 13,9k horrekin zerikusia duten ekintzak gauzatzen ditu. Bi kasu horietan, zifra horiek 2007koen antzekoak dira.

Soldatako pertsonala izateak eragin nabaria du puntu horretan dauden desberdintasunetan. Adibidez, soldatako pertsonala dutenen artean, plan estrategikoa duten erakundeak % 74,9 dira, eta kalitate-sistema dutenak % 42,1.

Erakundeak kudeatzeko planak idatziz gutxien formalizatzen dituzten erakundeak eremu hauetakoak dira: Kultura, eremu Zibikoa, Osasuna, Ingurumena eta Giza Eskubideak.

Aipatu behar da, beste alde batetik, soldatako pertsonala duten erakundeen % 43,7k ez duela laneko arriskuen prebentziorako planik, eurek aitortzen dutenez.

Likideziako eta altxortegiko arazoek garrantzia izaten jarraitzen dute, kontuan hartuta, gainera, sektoreko erakundeek ez dutela ondare-ondasunik.

Kanpo-auditoriek bete gabeko zeregina jarraitzen dute izaten sektoreko erakunde handi askorentzat.

Kudeaketa-estrategien ezarpen maila orain dela hiru urtekoaren antzekoa da. Batez ere txertatu dituzte egitura eta bolumen ekonomiko handiko erakundeek, eta baita soldatako pertsonala kontratatu dutenek ere.

Laneko arriskuei buruzko planak egitea gauzatu gabeko zeregina da soldatako pertsonala duten erakunde gehienentzat.

Erakundeen % 7 inguruk badu kalitate-ziurtagiria.

Kalitate-ziurtagiriren bat duten erakundeen ehunekoa % 6,9 da, gutxi gorabehera. Ehuneko hori % 10era iristen da kalitatearen kudeaketarekin zuzenean lotuta ez dauden ziurtagiriak kontuan hartzen badira. Ziurtagiri horien artean, ISO 9001 da sarrien aukeratzen dena. Erakundeen % 3,4k badu ziurtagiri hori.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilera zabaldu egin da sektoreko erakundeen artean.

Erakundeen % 84,2k maiztasunez erabiltzen ditu tresna informatikoak; 2007an, berriz, proportzioa % 66,3 zen. Hain zuzen ere, erakundeen % 81,7k dio posta elektronikoa erabili ohi duela bere lanerako, eta erakundeen erdiek baino gehiagok (% 57,7) webgunea dute.

Hala eta guztiz ere, IKTak ez dira maiz erabiltzen kolaborazio-lana egiteko, ezta eragin politikoko ekintzak ere gauzatzeko.

IKTak maiztasunez edo maiztasun handiz erabiltzen dira, batez ere barneko eta kanpoko informazioa kudeatzeko (kasuen % 71,2), eta, orobat, gizarte-oinarria kudeatzeko (% 60,8), kudeaketa ekonomiko eta finantzariarako (% 59,8), erakundearen barneko parte-hartzea sustatzeko (% 57,9) eta pertsona erabiltzaileekin edo kide diren erakundeekin komunikatzeko (% 54,9). Dena dela, erakundeen erdiek baino gehiagok diote ez dituztela tresna horiek inoiz ere erabiltzen kolaborazio-lana egiteko, ezta eragin politikoko ekintzak ere gauzatzeko.

Informazioaren trukea hobetu daiteke erakundeen “interes talde” batzuekin, hala nola hedabideekin, gizartearekin edo finantzatzaileekin.

Hamar erakundetatik ia zazpik diote jardueren urteko oroitidazkia prestatzen dutela eta bazkideei edo kide diren erakundeei helarazten dietela. Gainera, % 48,1k dio oroitidazkia bere finantziatzaileei edo diru-emaileei ere bidaltzen dietela. Bazkide diren pertsonak edo erakundeak dira beren kontuen egoerari buruz erakundeek plazaratzen duten informazioaren hartzaile nagusiak (erakundeen % 70ek aldizkakotasunez eskaintzen die informazio hori).

Hala eta guztiz ere, erakundeei buruzko informazio arrunta gutxien jasotzen duen eragilea hedabideak dira, informazio hori edozein motatakoa delarik ere. Halaber, nolabaiteko defizita antzematen da gizarteari helarazten zaion informazioan. Erakundeen % 21,1ek soilik helarazi ohi dio bere jardueri buruzko informazioa, eta % 24,5ek bere ekintzen eraginari buruzko informazioa helarazten du.

Ez dirudi aurrerapen handirik egin denik kanpo-komunikazioaren alorrean.

Lau erakundetatik hiruk –gutxi gorabehera– dio komunikazio-kanpainaren bat egiten duela, eta kasuen % 36,1ean kanpainak erakundeen ohiko praktikaren zati dira –zifra horiek eta 2007koak oso antzekoak dira-. Eremu jakin batzuetako erakundeek ohitura handiagoa dute kanpainak egiteko: Giza Eskubideak, Osasuna, Ingurumena eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak. 12.000etik beherako aurrekontua duten erakundeek tasa txikiagoak dituzte, eta badirudi aurrekontua igotzen den neurrian gora egiten duela kanpainak egiteko probabilitateak ere.

Kanpainetako euskarrei dagokienez, erakundeek gehien erabiltzen dituztenak hauexek dira: kartelak (% 44), hitzaldiak edo solasaldiak (% 41,3), informazio-orriak (% 40,6), bidalketa elektronikoak (% 38) eta Internet (% 34,6). Aipatzekoa da beren kanpainetan posta elektronikoaren bidezko bidalketak egiten dituzten erakundeak gehiago direla posta arrunta erabiltzen dutenak baino (% 27). Hedabideetara iristeari dagokionez, % 23,4k dio tokiko prentsa erabiltzen duela, % 15,8k tokiko irratia erabiltzen du eta % 12 tokiko telebista.

2007an gertatzen zen bezala, erakundeek egiten duten komunikazio-kanpainen helburu nagusia erakundea ezagutzera ematea da, eta % 62,7k sentsibilizatzea zuzendutako kanpainak egiten ditu.

Dirudienez, ez dirua biltzea eta ez lobby ez daude erakundeen kanpainen helburu nagusien artean (% 18,7 eta % 19, hurrenez hurren). Dena dela, balio horiek igo egin dira 2007tik hona. Diru-bilketari dagokionez, bada salbuespen azpimarragarri bat, hots, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren eremuko erakundeak; izan ere, % 52,6k dio helburu horretara zuzendutako kanpainak egiten dituela. Ingurumenaren eremua ere salbuespena da lobby-kanpainei dagokienez, zeren kontsultatutako erakundeen % 50k horrelako kanpainak egiten baititu, erakundeek berek diotenez.

ERAKUNDEEN HARREMANAK

Ia erakunde guztiek harremanak dituzte administrazio publikoarekin; % 4,7k soilik dio bere jarduera horrelako harremanik gabe gauzatzen duela. Harreman horiek lotuta daude, batez ere, finantziazioarekin, informazioa bidaltzearekin eta lokalak uztearekin; dena dela, esanguratsua da zerbitzuren bat emateko kontratatu diren erakundeen proportzioa ere.

Erakundeen ia erdiek (% 47,9) aitortzen dute ez dutela inolako harreman edo lankidetzarik enpresa-sektorearekin. Horrelako harremanak dituztenen kasuan, loturek informazio-kontuekin, zerbitzuen kontratazioarekin edo diru-laguntzak ematearekin dute zerikusia, batez ere. Azpimarratzekoa da Enpleguaren eremuko erakundeek lankidetzari handiagoa dutela enpresa-sektorearekin; horrelako harremanak gutxien dituztenak, berriz, eremu Zibikoari atxikitako erakundeak dira.

Komunikazio-kanpainak ez dira erabiltzen ez dirua eskuratzeko eta ezta lobby-ekintzetarako ere. Hor ez da aldaketarik egon.

Ez dirudi erakundeen eta beste eragile batzuen arteko harremanak igo direnik aurreko urteetatik hona.

**Erakundeek
%23,6ak hirugarren
sektoreko beste ezein
erakunderekin ez duela
inolako harremanik
adierazten du.**

Nahiz eta erakunde gehienek harremanak dituzten sektoreko beste erakunde batzuekin, esanguratsua da ikustea nola % 23,6k dioten ez duela inolako harremanik hirugarren sektoreko beste ezein erakunderekin; horrek esan nahi du horrelako loturak sortzeak erronka izaten jarraitzen duela. Oro har, eremu Zibikoko eta Kulturaren eremuko erakundeek harreman gutxiago izaten dituzte sektoreko beste erakunde batzuekin; horrelako harremanak gehien izaten dituzten erakundeak, berriz, Enpleguaren, Giza Eskubideen eta Gizarte Ekin-tzaren eremukoak dira. Antzematen den harreman mota nagusiaren oinarriak informazioaren trukea eta elkarrenganako aholkularitza dira.

Bigarren eta hirugarren mailako erakundeak dauzkaten erakundeek lotura nagusiaren mamia informazioa elkarren artean trukatzeko da; horrez gain, baina, bost erakundetatik batek dio sektorearentzat interes komuna duten gaien inguruan lan egiten duela erakunde edo sare horiekin.

Erakundeek proportzio handi batek (% 56,3) dio ez duela inolako harremanik erakunde erlijiosoekin. Aisialdiaren eremuko elkarte gehienak erakunde erlijiosoei lotuta daude, eta lotura gutxien dutenak Osasunaren eremukoak dira. Harremana egon den kasuetan, beraren gaia lokalak uztea eta informazioa helaraztea da, batez ere.

Erakundeek % 47,1ek dio ez duela inolako harremanik Aurrezki-kutxen Gizarte-ekintzarekin. Horrelako harremana dagoenean, finantziarioarekin eta informazioa helaraztearekin izaten du zerikusia, gehienbat.

Erakundeek proportzio mardul batek administrazio publikoak utzitako lokalak ditu, baina irabazi-asmorik gabeko zenbait erakundek eta Aurrezki-kutxen Gizarte-ekintzek ere baliabide hori eskaintzen dute. Sektoreko erakundeek sektoreko beste erakunde batzuetara eta administrazio publikora jotzen dute, gehienbat, aholkularitza eskatzeko eta informazioa trukatzeko. Halaber, haien zerbitzuak gehien kontratatzen dituztenak administrazioa eta sektoreko beste erakunde batzuk izaten dira.

**Beste eragile batzuen
aldetik jasotzen duten
sostenguari buruzko
pertzepzioak gora egin du
hiru urtetik hona, baina
oraindik ere txikitzat
jotzen da.**

Beren ingurunean eragileek aldetik jasotzen duten sostenguaren inguruan erakundeek egiten duten balorapenaren arabera, sostengu hori benetan eskasa dela ikus daiteke. Eragile horietako batek sostengu handia edo nahikoa ematen diela uste duten erakundeek proportzioa % 56,4 da, askoz jota. Dena dela, balorapenak 2007ko datuak hobetzen ditu, batez ere Bizkaiko Foru Aldundiari, Aurrezki-kutxen Gizarte-ekintzari eta Udalei dagokienez.

Erakundeen ustez, Bizkaiko Foru Aldundia da sostengurik handiena ematen dien instituzioa. Bigarren postuan, berriz, Aurrezki-kutxen Gizarte-ekintza dago, eta hirugarren postuan sektoreko beste erakunde batzuen sostengua aipatzen da. Erakundeen iritziz, gutxien laguntzen duten eragileak alderdi politikoak, sindikatuak eta enpresak dira.

Gizarteak haienganako konfiantza duela uste duten erakundeen proportzioa eta kontrako iritzia dutenen proportzioa berdintsuak dira; egia da, dena dela, erdiek baino gehiagok (% 56) uste dutela sektoreak gizarte-konfiantza handia edo nahikoa duela eurengan -2007an, zifra hori % 53,2 zen-.

SEKTOREAREN EGITURAKETA

Erakundeen % 44,8k dio bigarren edo hirugarren mailako erakunderen baten kidea dela (% 49 2007an). Enplegu, Gizarte Ekintza, Osasun eta Ingurumenaren alorreko erakundeak maiztasun handiagoz izaten dira sareren baten partaide.

Erakundeen % 22,6k soilik uste du sareen artean dagoen lankidetzat maila egokia dela. Halaber, hamar erakundetatik zortzik baino gehiagok uste dute sektoreko erakundeen arteko lankidetzat txikia dela edo ez dagoela lankidetzarik euren artean. Beste alde batetik, erakunde askok (% 70,2) jarraitzen dute pentsatzen erakundeen arteko ezagutza maila oso txikia dela; nolana ere, hori pentsatzen dutenen ehunekoa handiagoa zen 2007an (% 78).

SEKTOREKO PANORAMARI BURUZKO INTUIZIOAK

Erakundeen ia erdiek (% 47,9) uste dute beren helburuak betetzea zailagoa izango dela datozen bost urteotan orain baino; erakundeen % 19,6, aldiz, baikor azaltzen da eta hori errazagoa izango dela uste du. 2007ko datuen aldean, badirudi beren erakundearen etorkizuna oraingoa baino txarragoa izango dela uste duten erakundeen multzoak gora egin duela harrezkero. Izan ere, horien proportzioa % 40,1 zen 2007an.

Sektoreko erakundeen erdiek baino gehiago ez dira beste ezein erakunderen partaide.

Erakunde gehienek uste dute sareek eta oinarriko erakundeek gehiago kolaboratu beharko luketela euren artean. Dirudienez, elkarren arteko ezagutza nabarmenki hobetu da, oraindik ere txikia izaten jarraitu arren.

14. Taula eta grafikoen aurkibidea. Galdetegia

3. KAPITULUA. METODOLOGÍA ETA LAN-PROZESUA

	DESKRIBAPENA	ORRIALDEA
3.1. Taula	Hasierako unibertsoaren gaineko datuak.	10
3.2. Taula	Informazioa biltzeko estrategia (2. fasea).	11
3.3. Taula	Datuak biltzeko lana (2. fasea).	12
3.4. Taula	Unibertsoaren datuak, 2010.	12
3.5. Taula	Laginaren datuak.	14
3.6. Taula	Laginaren eta unibertsoaren 2010eko banaketa, jarduera-eremuaren arabera. Kopuru absolutuak eta ehunekoak.	14

4. KAPITULUA. KOPURU OROKORRAK

	DESKRIBAPENA	ORRIALDEA
4.1. Taula	Hirugarren Sektorearen kopurua handiak. Erakundeen kopurua eta pertsona boluntarioen, soldatako pertsonalaren eta diru-sarreraren estimazioa, 2010ean. Kopuru absolutuak.	17

5. KAPITULUA. IDENTITATEA ETA JARDUERA

	DESKRIBAPENA	ORRIALDEA
5.1. Taula	Unibertsoaren banaketa figura juridikoaren arabera. Ehunekoak eta kopuru absolutuak.	18
5.2. Taula	Unibertsoaren banaketa jarduera-eremuaren arabera. Ehunekoak eta kopuru absolutuak.	18
5.3. Taula	Unibertsoaren banaketa kokapen geografikoaren arabera, Eustat eskualdeak irizpidetzat hartuta. Kopuru absolutuak, ehunekoak eta biztanleriaren araberrako ratioa.	20
5.4. Taula	Laginaren banaketa irizpide hauen arabera: Eustat eskualdeak, jarduera-eremua eta bolumen ekonomikoa.	20
5.5. Taula	Jarduera mota bakoitza gauzatzen duten erakundeen proportzioa, jarduera-eremuaren arabera. Ehunekoak.	23
5.6. Taula	Jarduera mota bakoitza gauzatzen duten erakundeen proportzioa, erakundearen bolumen ekonomikoaren arabera. Ehunekoak.	24
5.7. Taula	Beren jarduera mendetasun-, bazterketa- edo babesgabetasun- egoerak atenditzera zuzentzen duten erakundeen proportzioa, jarduera-eremuaren arabera. Ehunekoak.	25
5.8. Taula	Erakundeen pertsona erabiltzaileen kopurua, jarduera-eremuaren eta bolumen ekonomikoaren arabera. Oinarrizko deskribatzaileak.	26
5.9. Taula	Erakundeen banaketa jarduera-eremu geografikoaren arabera, jarduera-eremua eta pertsonalaren bolumena irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.	27
5.10. Taula	Erakundeetan kode etikoa egotea, jarduera eremuaren arabera.	29
5.1. Grafikoa	Unibertsoaren banaketa figura juridikoaren eta jarduera-eremuaren arabera. Ehunekoak.	19
5.2. Grafikoa	Laginaren banaketa figura juridikoaren eta bolumen ekonomikoaren arabera.	19
5.3. Grafikoa	Kolektibo bakoitzarengana zuzentzen diren erakundeen proportzioa. Ehunekoak.	21
5.4. Grafikoa	Erakundeen banaketa jarduera-eremu geografikoaren arabera. Ehunekoak.	27
5.5. Grafikoa	Erakundeen banaketa antzintasunaren arabera. Ehunekoak.	28
5.6. Grafikoa	Erakundeen banaketa beren jarduera gidatzen duten printzipioen arabera. Ehunekoak.	29

6. KAPITULUA. ERAKUNDEEN EGITURA

	DESKRIBAPENA	ORRIALDEA
6.1. Taula	Erakundeen banaketa zuzendaritza-batzordearen eta patronatu-batzordearen bileren maiztasunaren arabera. Ehunekoak.	32
6.2. Taula	Erakundeen banaketa, gobernu-organoetako kideek erakundearen alderdi batzuetan duten parte-hartzearen arabera. Baiezko erantzunen ehunekoa.	35
6.3. Taula	Erakundeen banaketa, boluntario egonkorrek erakundearen alderdi batzuetan duten parte-hartzearen arabera. Baiezko erantzunen ehunekoa.	35
6.4. Taula	Soldatako pertsonala duten erakundeen banaketa, soldatako pertsonalak erakundearen alderdi batzuetan duen parte-hartzearen arabera. Baiezko erantzunen ehunekoa.	36
6.5. Taula	Erakundeen banaketa, pertsona erabiltzaileek erakundearen alderdi batzuetan duten parte-hartzearen arabera. Baiezko erantzunen ehunekoa.	36
6.1. Grafikoa	Erakundeen banaketa, zuzendaritza-batzordearen eta patronatu-batzordearen kide kopuruaren arabera. Ehunekoak.	30
6.2. Grafikoa	Erakundeen banaketa kide berriek zuzendaritza-batzordean eta patronatu-batzordean duten pisuaren arabera. Ehunekoak.	31
6.3. Grafikoa	Erakundeen banaketa, zuzendaritza-batzordean eta patronatu-batzordean rol bikoitza duten kideen pisuaren arabera. Ehunekoak.	32
6.4. Grafikoa	Elkarteen banaketa, bazkideen bolumenaren arabera. Ehunekoak.	33
6.5. Grafikoa	Elkarteen banaketa, bazkideen bolumenak azken hiru urteotan izandako bilakaeraren arabera. Ehunekoak.	33
6.6. Grafikoa	Elkarteen banaketa, bazkideen bolumenak azken 3 urteotan izandako bilakaeraren arabera, jarduera-eremua irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.	34
6.7. Grafikoa	Erakundeen banaketa, boluntarioek pertsonal osoan duten pisuaren arabera. Ehunekoak.	35
6.8. Grafikoa	Erakundeen banaketa pertsonalaren bolumenaren arabera. Ehunekoak.	37
6.9. Grafikoa	Erakundeen banaketa, pertsonalaren bolumenaren eta jarduera-eremuaren arabera. Ehunekoak.	37
6.10. Grafikoa	Erakundeen banaketa 2009ko diru-sarreraren bolumenaren arabera. Ehunekoak.	38
6.11. Grafikoa	Erakundeen banaketa 2009ko diru-sarreraren bolumenaren arabera, jarduera-eremua irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.	39

7. KAPITULUA. PERTSONAK

	DESKRIBAPENA	ORRIALDEA
7.1. Taula	Boluntarioen, soldatako pertsonalaren, osoko pertsonalaren eta bazkideen banaketa sexuaren arabera, jarduera-eremua irizpidetzat hartuta. Batez besteko proportzioa.	53
7.1. Grafikoa	Boluntarioak dituzten erakundeen banaketa, boluntarioen bolumenaren arabera. Ehunekoak.	41
7.2. Grafikoa	Boluntarioak dituzten erakundeen banaketa, boluntarioen bolumenaren arabera, jarduera-eremua irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.	41
7.3. Grafikoa	Boluntarioen banaketa adinaren arabera. Ehunekoak.	42
7.4. Grafikoa	Boluntarioen banaketa adinaren arabera, jarduera-eremua irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.	42
7.5. Grafikoa	Boluntarioen banaketa boluntarioen antzinasunaren arabera. Ehunekoak.	43
7.6. Grafikoa	Boluntarioen banaketa, dedikazioaren maiztasunaren arabera. Ehunekoak.	43
7.7. Grafikoa	Boluntarioen banaketa eginkizunen arabera. Ehunekoak.	44
7.8. Grafikoa	Erakundeen banaketa azken 3 urtekotako boluntarioen bolumenaren bilakaeraren arabera. Ehunekoak.	44
7.9. Grafikoa	Erakundeen banaketa azken 3 urteotako boluntarioen bolumenaren bilakaeraren arabera, jarduera-eremua irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.	45
7.10. Grafikoa	Soldatako pertsonala duten erakundeen banaketa, soldatako pertsonen bolumenaren arabera. Ehunekoak.	46
7.11. Grafikoa	Soldatako pertsonala duten erakundeen banaketa, soldatako pertsonen bolumenaren arabera, jarduera-eremua irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.	47
7.12. Grafikoa	Soldatako pertsonalaren banaketa adinaren arabera. Ehunekoak.	47
7.13. Grafikoa	Soldatako pertsonalaren banaketa antzinasunaren arabera. Ehunekoak.	48
7.14. Grafikoa	Soldatako pertsonalaren banaketa beren antzinasunaren arabera, jarduera-eremua irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.	48
7.15. Grafikoa	Soldatako pertsonalaren banaketa kontratu motaren arabera. Ehunekoak.	49
7.16. Grafikoa	Soldatako pertsonalaren banaketa, lanaldiaren arabera. Ehunekoak.	49
7.17. Grafikoa	Soldatako pertsonalaren banaketa, eginkizunen arabera. Ehunekoak.	50
7.18. Grafikoa	Erakundeen banaketa, soldatako pertsonen bolumenak azken 3 urteotan izandako bilakaeraren arabera. Ehunekoak.	50
7.19. Grafikoa	Erakundeen banaketa, soldatako pertsonen bolumenak azken 3 urteotan izandako bilakaeraren arabera, jarduera-eremua irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.	51
7.20. Grafikoa	Erakundeen banaketa, soldatako pertsonen bolumenarentzat datozen 3 urteotarako aurreikusten den bilakaeraren arabera. Ehunekoak.	52
7.21. Grafikoa	Boluntarioen, soldatako pertsonalaren, osoko pertsonalaren eta bazkideen banaketa sexuaren arabera, jarduera-eremua irizpidetzat hartuta. Batez besteko proportzioa.	54

8. KAPITULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

	DESKRIBAPENA	ORRIALDEA
8.1. Taula	Beren diru-sarrerren bolumenean 2007 eta 2009 bitartean igoera izan duten erakundeen proportzioa, jarduera-eremuaren arabera. Ehunekoak.	55
8.2. Taula	Diru-iturri bakoitzaren pisu erlatiboa diru-sarrerren osoko zenbatekoan, erakundeen bolumen ekonomikoaren arabera. Batez besteko proportzioa.	59
8.3. Taula	Finantziazio publikoa jasotzen duten erakundeen proportzioa, modalitate eta xedearen arabera.	62
8.4. Taula	Likidezia-arazoak dituzten erakundeen proportzioa eta altxortegi-tresna bakoitza zer maiztasunez erabiltzen duten. Ehunekoak.	66
8.5. Taula	Jabetzako lokalak dituzten erakundeen proportzioa, jarduera-eremua eta erakundearen antzintasuna irizpidetzat hartuta. Baiezkoaren ehunekoak.	67
8.6. Taula	Gizarte izaerako erakunde bezala aitortuta dauden erakundeen proportzioa eta onura publikoko elkarte bezala aitortuta dauden elkarten proportzioa, jarduera-eremuaren arabera.	68
8.7. Taula	Azken 3 urteotan kanpoko kontabilitate-auditoria eskatu duten erakundeen proportzioa, figura juridikoa, bolumen ekonomikoa eta pertsonalaren bolumena irizpidetzat hartuta. Baiezkoen ehunekoak.	69
8.1. Grafikoa	Diru-sarrerren iturri bakoitza duten erakundeen proportzioa. Ehunekoak.	56
8.2. Grafikoa	Finantziazio publikoa duten erakundeen banaketa, finantziazio publikoak diru-sarrerren osoko zenbatekoan duen pisuaren arabera. Ehunekoak.	57
8.3. Grafikoa	Finantziazio publikoa duten erakundeen banaketa, finantziazio publikoak diru-sarrerren osoko zenbatekoan duen pisuaren arabera, jarduera-eremua irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.	58
8.4. Grafikoa	Diru-sarrera mota bakoitzak diru-sarrerren osoko zenbatekoan duen pisu erlatiboa. Batez besteko proportzioa.	58
8.5. Grafikoa	Diru-iturri bakoitzak erakundeen diru-sarrerren osoko zenbatekoan duen pisu erlatiboa, diru-iturri hori duten erakundetan. Batez besteko proportzioa.	60
8.6. Grafikoa	Finantziazio publikoaren iturri bakoitzak finantziazio publiko orokorrean duen pisu erlatiboa. Batez besteko proportzioa.	61
8.7. Grafikoa	Finantziazio publikoaren iturri bakoitzak finantziazio publiko orokorrean duen pisu erlatiboa, jarduera-eremuaren arabera. Batez besteko proportzioa.	61
8.8. Grafikoa	Finantziazio publikoa jasotzen duten erakundeen proportzioa, finantziazioaren xedearen arabera. Ehunekoak.	62
8.9. Grafikoa	Finantziazio publikoa jasotzen duten erakundeen proportzioa, xede, modalitate eta finantziazio-iturriaren arabera. Ehunekoak.	63
8.10. Grafikoa	Gastu mota bakoitzak osoko gastuan duen pisu erlatiboa, gastuaren xedearen arabera. Batez besteko proportzioa.	64
8.11. Grafikoa	Gastu mota bakoitzak osoko gastuan duen pisu erlatiboa. Batez besteko proportzioa.	64
8.12. Grafikoa	Gastu mota bakoitza duten erakundeen proportzioa.	65
8.13. Grafikoa	Gastu mota bakoitzak osoko gastuan duen proportzioa, gastu hori duten erakundetan. Batez besteko proportzioa.	65
8.14. Grafikoa	Gastu mota bakoitzak osoko gastuan duen pisu erlatiboa, pertsonalaren bolumenaren arabera. Batez besteko proportzioa.	65
8.15. Grafikoa	Erakundeen banaketa likidezia-arazoak egotea irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.	66
8.16. Grafikoa	Erakundeen banaketa lokalen jabetza izatearen arabera. Ehunekoak.	67

9. KAPITULUA. KUDEAKETARAKO ESTRATEGIAK

	DESKRIBAPENA	ORRIALDEA
9.1. Taula	Erakundeen banaketa, plan bakoitza izatearen edo ez izatearen arabera, beren formalizazio gradua kontuan hartuta, bolumen ekonomikoaren arabera. Ehunekoak.	71
9.2. Taula	Erakundeen banaketa, plan bakoitza izatearen edo ez izatearen arabera, haien formalizazio gradua eta soldatako pertsonala izatea irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.	72
9.3. Taula	Kudeaketari lotutako postu esanguratsuak dituzten erakundeen proportzioa, irizpide hauen arabera: jarduera-eremua, soldatako pertsonala izatea, figura juridikoa, pertsonalaren bolumena eta boluntarioen pisua. Baiezkoen ehunekoak.	73
9.4. Taula	Kalitatearen kudeaketarekin zerikusia duen ziurtagiria duten erakundeen proportzioa, irizpide hauen arabera: jarduera-eremua, pertsonalaren bolumena, bolumen ekonomikoa, kalitate arduraduna egotea edo ez egotea. Ehunekoak.	74
9.5. Taula	Teknologia berriak erabiltzen dituzten erakundeen proportzioa, parametro batzuk irizpidetzat hartuta, jarduera-eremuaren eta bolumen ekonomikoaren arabera. Baiezkoen ehunekoak.	76
9.6. Taula	Teknologia berriak maiztasunez edo maiztasun handiz erabiltzen duten erakundeen proportzioa, beren xedearen arabera, jarduera-eremua irizpidetzat hartuta. Baiezkoen ehunekoak.	77
9.7. Taula	Erakundean inplikaturik dauden kolektiboei informazioa erregulartasunez helarazten dieten erakundeen proportzioa, informazio motaren arabera. Baiezkoen ehunekoak.	78
9.1. Grafikoa	Erakundeen banaketa plan bakoitza izatearen arabera eta horren formalizazio graduaren arabera. Ehunekoak.	70
9.2. Grafikoa	Erakundeen banaketa IKTen erabileraren arabera, parametro batzuk irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.	75
9.3. Grafikoa	Erakundeen banaketa, teknologia berrien erabileraren maiztasunaren arabera, helburua irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.	77
9.4. Grafikoa	Erakundeen banaketa, azken urteotan komunikazio-kanpainak egin izana irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.	79
9.5. Grafikoa	Erakundeen banaketa, azken urteotako komunikazio-kanpainen maiztasunaren arabera, jarduera-eremuaren arabera. Ehunekoak.	79
9.6. Grafikoa	Komunikazio-kanpainak helburu jakin batez egiten dituzten erakundeen proportzioa, kanpaina horiek egiten dituzten erakundeen osoko kopurua erreferentziazat hartuta. Ehunekoak.	80
9.7. Grafikoa	Dirua biltzeko kanpainak dituzten erakundeen proportzioa eta lobby-kanpainak gauzatzen dituzten erakundeen proportzioa, jarduera-eremuaren arabera. Baiezkoen ehunekoak.	81

10. KAPITULUA. ERAKUNDEEN HARREMANAK

	DESKRIBAPENA	ORRIALDEA
10.1. Taula	Administrazio publikoek sustatutako parte-hartze ekimenetan parte hartu duten erakundeen proportzioa, jarduera-eremuaren arabera. Baiezkoen ehunekoak.	82
10.2. Taula	Administrazio publikoekin harremanak izan dituzten erakundeen proportzioa, harreman motaren eta harremanaren norabidearen arabera. Baiezkoen ehunekoak.	83
10.3. Taula	Enpresekin harremanak izan dituzten erakundeen proportzioa, harreman motaren arabera eta harremanaren norabidearen arabera. Baiezkoen ehunekoak.	84
10.4. Taula	Irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuekin harremanak izan dituzten erakundeen proportzioa, harreman motaren arabera eta harremanaren norabidearen arabera. Baiezkoen ehunekoak.	85
10.5. Taula	Bigarren edo hirugarren mailako erakundeekin (sareak) harremanak izan dituzten erakundeen proportzioa, harreman motaren eta harremanaren norabidearen arabera. Baiezkoen ehunekoak.	86
10.6. Taula	Erakunde erlijiosoekin harremanik ez duten erakundeen proportzioa, harreman motaren eta harremanaren norabidearen arabera. Baiezko ehunekoak.	87
